


 BOOKTEGI

Karonen laguna

BENJAMIN AURREKOETXEA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

BENJAMIN AURREKOETXEA

Karonen laguna

*Liburuak erretzen dituzten lekuetan
azkenean pertsonak erretzen dituzte.*

Heinrich Heine

*Gizatiarraren bihotza gautxoria da.
zerbait isilka iguriki du eta,
abagunea iristen zaionean,
airatzen da hartarantz artez joateko.*

Haruki Murakami

*... bidali niri liburuak amaiera zoriontsuarekin,
hegazkina nobedaderik gabe lurreratu dadila,
medikua ebakuntza-gelatik irritsu atera dadila,
ume itsuaren begiak zabaldu daitezela,
fusilatzera agindutako mutikoa salbatu dadila,
hautxoak berriz batzuk besteekin kausitu daitezela,
eta egin daitezela bestak, ospatu daitezela ezteiak.*

Nazim Hikmet

Eri xume saiatuekin goroldioak haitza zulatzen du,
unez uneko, mendez mendeko, istorioak izkiriatur.

Mikaela Zalduna

OSTIRAL ARRASTIRIA

1

Hiriburuan, Aiztogile karrikaren erdigunera, hirugarren solairuko ezkerreko idazgelan, eskuko telefonoa jotzen aditzen zen, butakan, erdi etzanda, eguerdiko pizza kartoi hutsaren ondoan oinak mahai gainean, erdi lotan zegoen hogeit hamabost inguruko gizonaren jakako patrikeran. Aldamenean, apur bat aldendurik, angelu zuzena egitera zegoen ebanozkoan, bera baino arean gazteagoa zen andrazkoa manikura egiteko atzazalak karrakatzen. Horman, biek ikus zezaten eran, erloju borobilak arratseko laurak zirela agertzen zuen. Kanpoko atean, behatxuloaren gainaldean zegoen letoizko plakan, ikertzaile pribatua eta azpian, letra larriaz, Matias izen propioa idatzita begiesten zen. Gela huts bat zen, apenas hamabost metro karratukoa, urdin ilun koloreko pantaila zuten lanpara bana bi mahaietan ipinita, hiru jezarleku, armairu txikia, sarrerako eskuma aldeko holtzean sofa higatua eta, gainera, pertsiana zirrikituetatik ilunbera argitasun pittina zatika sartzen zen. Barnean, sarbidearen ondora, hotza kentzeko nahikoa ez zen berogailu elektrikoak kanpoko izotz giroa mantsotu egiten zuen, larriturik.

HOGEI ETA ZORTZI ORDU LEHENAGO

OSTEGUN EGUERDIA

2

Neguko aurreneko ostegun eguerdian, Saldropoko ingurunea zuri-zuri zegoen.

-Makua, hemen dago xerkatzen gabiltzan gorpua. Egurrezko gurutzean plastikozko lokarriekin dago estekatuta eta ez dauka itxura onik. Ematen dit gainera datorkiguna gorabehera handiko kontu latza dela. -Eiderrek kideari ozen hitz egin zion.

-Azkenean basaz goraino likistu behar zendua non dagoen jakiteko. Zuzenean aterpera etorri izan bagina, baina ez, saria erdiesteko nekeak eta bi pairatu behar. Saldropon, Saldropon bai, baina Saldropo egundoko eremua da! Koordenatu geografikoak eskatzea gehiegitxo, ezta?

Nereak deiadar egin zuen.

-Bergara, hildakoa nora dago begira?

-Zer diostazu?

-Gorpuak norantz begiratzen duen!

-Ez naiz konturatu. Hainbatera begiratuko du!

-Ia, barruratu zaitetz berriz eta leihatilapean egon behar duen izena behatu. Gorpu horrek bere ikusmira asetzeko norabait so egin behar du; ziur Érebo-ren semearen bila dabilela!

Eguerdi jelatua, benetan hotza, beribiletik kanpoaldera jalgitzeko gogo gutxi ematen zuena, atearen kontra sustraituta bezala zegoen bertatik itzurtzeko borondate gaberik.

Bolanteari eusten ziola, Nereak haizetakotik ortzira so egiten zuen. Alertze eta pagoen gainetik, laino gris ilunak leunki mugitzen ziren.

Laguna sarbide zabaleko aterpearen kanpoaldera atera zen. Aldi berean, hitz egiteko beste, ez gehiagorik, Makuak leihua berriz beheratu zuen.

-Zer?

-Hor Atxuri ipintzen du!

-Joder! Horixe bakarrik falta zitzaigun! Hiru aukera zituen ba, baina hala ere errazenean ezarri beharrean gaitzenean kokatzea ebatzi du. Ze gogo urri duen jendeak edozein ardandegira joan eta adiskideekin ardo batzuk edo zerbezak edateko, edo gaurko egunaz, gainera ordu honetan, hobeto salda bero bat; gorputzak eskertuko luke. Ez, gu hondatzeko, bat edo batek Hades-eko txalupariaren besoetara igorri du.

Jarlekuan astiro mugituz, Nereak troposfera aldean biltzen ziren hodeiak beste behin behatu zituen. Ematen zuen une batetik bestera egundoko edur-puska ederra botako zuela.

-Zelan dago jantzita?

-Jantzita? Ez dauka soinekorik bata!

-Ezer ere ez? Karonentzat txanpon bat ere ez? Txilibitua estaltzeko ezer ere ez?

-Ez bata ez bestea!

-Benetan ez duela ezer?

-Beno, bai.

-Tira ba, bota!

-Iduneko erara altzairuzko kablea.

-Banekien zerbait izan behar zuela. Ez nuen gogorik, baina azkenean autotik atera beharko naiz.

Atze aldeko jarlekutik, Nereak elurretarako erabiltzen den kolore gorriko lumazko jaka hartu eta kanpora ilkitzen zen heinean soinean beztitu zuen.

-Joder, hau dona hotza, hi!

Hogei zentimetroko elurte zuri zuriak begiek ikus zezaketen eremu osoa estaltzen zuen, berez inguru desiragarriari nolabaiteko xarma berezia eskainiz bezala. Ez zegoen inolako hanka-arrastorik, han-hemenka azeri txiki eta katagorriren batenak soilik.

-Goazen, goazen barnera, bertan izoztu behar dugu eta!

-Hi, hor barruen hemen baño hotzago iten jona. -Eiderrek.

-Noski, elur-zuloa emango joana, eztona? -Nereak buru-berokia egokitzen zuela.

Bien artean maiz ematen ziren hitanozko esaldi laburrak.

-Hotzaren pertzepzioa aintzat hartuta bai; antzina elurra edukitzeko erabiltzen ziren zuloetan izaten denaren antzerakoa da. Eiderrek barneratzeko lehen urratsa eramaterakoan ihardetsi zion.

-Baina haize honek labana baten erara aurpegiko azala moztuko digu, beraz ausardia.

-A, hori bai.

-Gauza berezirik ikusi duzu.

-Ez, ematen du erratza pasatu dutela; hosto bat bera ere ez dut ikusi.

-Hortaz, eszenatokia araztu egin dute. Benetan interesgarria. Beno, hemen daukagu. Dohakabe honek gisa honetan amaitzeko zer gaiztakeria egin ote du. Zeozer egingo zuen ba! Ikus dezagun. Norbaitek burdin hari batekin ito du; bizikletena? Baliteke, seguraski. Bat eta hirurogei eta hamabost zentimetroko luzera, kiloetan hortik ibiliko da, hirurogei eta hamabost, gutxi gora-behera. Bere sasoirik onenean zegoela ematen du; ile beltza, begi beltzak, itxura batean primerako hortzeria, manikura frantsesa. Ummm, badago maila.

-Nerea, zientifikokoak, forentsea eta epailea deitu beharko dira.

-Beribil barrutik deitu ditut. Laster izango dira hemen.

-Ederto. -Eiderrek ihardetsi zion.

-Erretratu batzuk aterako dizkiot, gurutze erara egurretan nola dagoen ipinita, zer erabili duten estekatzeko, eta norantz begira dagoen gogoratzeko; zientifikokoen lana da, baina eurenak izan arte baliagarri izango zaizkigu. Guzti hau batek bakarrik ezin izan du egin.

Zenduak bere hogeiei eta hamabost urteetatik-edo so egiten zion, begi irtenak zituen eta bizarra txarto arradaturik. Bat-batean Nereari burutik oinetara hozkirriak lasterka egin zion. Ezin izan zuen saihestu. Begietara behatu eta defuntuari galdetu zion: -zer, berriketarako gogo gabe geratu zara? Lasai, ezagutu behar dugun guztia aitortuko diguzu. Ez larritu, baina azkenean dena azalduko diguzu. Zure gorpuaren analisi forentseak gauza asko argituko digu, hatz-markak ere bai eta hortik abiatuko gara jakiten nor zaren, zure guraso eta neba-arrebak nortzuk diren, zelango gaztaroa izan zenuen, norekin izan zenituen harremanak, eta irudikatu daitekeen beste guztia, baita baten bat amorraturik ipintzeko ze gaiztakeria egin duzun ere. Nasai egon, egin beharreko guztiaz gu artatuko gara.

Beraren lana burututzat emanda, Nerea aterik gabeko sarbide zabaletik kidea begira geratu zen. Eider hurreratu zitzaion eta besoa sarguko markoa egitera zegoen harrian pausatu zuen.

Bizkitartean, bi kideak ingurua begiratzera ilki ziren.

Eguerdi aurreratuan, zeru grisa iluntzen hasia zen eta egiten zuen hotzak txingarren gainean hiru arte enborren muturrak ukitzera eskatzen zuen.

-Automobil bat. Aditzen duzu? Bergarak Makuari.

-Zientifikokoak izango dira. Epailea edo forentsea izango baziren deituko zidaten. Horiei euren egiteko denbora apur bat eman beharko diegu. -Makuak.

-Inguru paregabea, ezta?

-Hemen ez zara sekula egon?

-Ez, gaur lehen aldia. Zu? -Eiderrek, hango edertasuna begietsiz.

-Bai, mendigoizalea izana naiz. Hortik apur bat aurrerago Otzarretako pagodia dago. Hor ere ez zara egon, ezta?

-Beti joateko, baina oraindik ez.

-Beste auto bat dator. Ia goazen. -Nereak Bergara presatu zuen.

Saldropoko hezeguneak duen interpretazio zentzura bueltatu zirenerako Forentsea sarbidetik iguriki zegoen. Zientifikokoak inori jaramonik egin gabe tresnak bilduta idoki ziren. Ematen zuen euren arteko harremana ez zela onegia. Epaileak Nerea behatu zuen; hark nolabaiteko harridura agertzeko-edo begiak eta sorbalda aldi berean jaso zituen. Juezak forentsea so egin eta burua hildakoaren aldera mugituz agindu zion:

-Ia Ibon!

Forentsea aurretiazko azterketa egiten hasi zen. Zenduak betaurrekorik erabiltzen zuen jakiteko sudur-zubian sakonune gorrixkarik zuen aztertuz hasi zen. Gero belarriak erreparatu zizkion; ez zuen inolako ñabardurarik antzeman. Ahoa arean zabaldu eta hortzak arakatu zizkion.

Gorpuak zituen zenbait ubeldura hauteman zuen. Unetxo batez, heriotzaren zurruntasuna ikusteko, eskumako eskuarekin kokotsetik gora tiratu ondoren askatu zuen. Gero, hatz luzea esku-azpira tolestu zion jarraian solte uzteko; zenduari atzamarra izoztuta bezala geratu zitzaion. Xehetasunez egin beharrekoa zen gainerako azterketa, hildakoa epaitegiko gorputegira eramango zenerako utzi zuen.

-Ibon, duela zenbat ordu irato dute? Hori esateko moduan bazaude, ezta?

-Nereak forentseari galdegin zion.

-Gorpua gurutzean izanda ez da erreza. Behaketan ez diot sabeleko orban berderik hauteman, beraz hogeit eta lau ordu baino gutxiago. Egin dizkiodan buru eta esku-azpirako hatz luzearen mugimenduei erreparatuz eta, gainera, bart hemen egingo zuen hotza kontutan hartuz, goizaldeko ordu biak aldera hilko zutela esango nuke, bea ziurtasunez jakin behar da, eta horrek zerraldoa gorputegira eramatea eskatzen du han autopsia egiteko. Epalea hemen dago, beraz laster izango da hilotza altxatzea eta gure espaziora eramatea. Heldu dira ehorztetxekoak? -Forentseak itaundu zuen.

-Beribil baten motorra aditzen da eta argiak begiesten dira. Botatzen ari den elur lodi horrekin eurak izango dira. Nor bestela? -Heldu berrien ardura hartzera kanpora ilkitzen zela, Eiderrek zehaztu zuen.

Gidariak erdi zabalik zekarren leihotik eta barruan zetozen lauren ahots gozakaiztuez lagunduta, bolumen oso ozenaz Black Sabbath taldearen "*never say die*" aditzen zen, eta belar usaina.

-Beste bi gauza, -erantsi zuen forentseak- bata, ebakortzen ertzak higatuta dituela. Horrekin zer esan nahi dudan? Ba, zalantzarik gabe esango nuke kainaberarekin arrantzan egiten duela. Zaletasun hori duten askok pita hortzekin mozten du eta, horren ondorioz, ebakortzen ertzat higatu egiten zaizkie; finagoak direnak guraizeak erabiltzen dituzte; kar-kar! -Eta galdera bat bota zuen-: gixajo horrek bere bizitza salbatzeko borrokatu zuen? Ubeldurak begiratuta baietz esango nuke; kolore beltz arinekoak dira. Hau da: babesten hasi denetik hil duten arte oso denbora gutxi igaro dela. Ubeldura baten kolore-ereduak orden bat jarraitzen du: badakizue, hasieran beltza dela, gero urdinxka, aurrerago berdexka eta osatuz doala horia... Nik esango nuke hemen ez dutela hil. Zenduak dituen ubeldurak ondo begiratzuz, ziurtasunez esan daiteke horrela izan dela. Gainerako ñabardura guztiak jakiteko txostena iguriki beharko duzue. Jose, zure aldia.

Forentseak agertutako ausardiagatik epaileak harridura keinua aurpegian ipinita, ehorztetxekoei zendua altxatzeko agindua eman zien-: ia, zuok, hartu gurutzea, ipini lurrean eta hildakoari moztu lokarriak poltsan sartzeko, eta badakizue nora eramanez.

Seguraski, taldeburua zenak elur bolekin jolasean aritzea agindua betetzea baino nahiago izango zuen eta, erantzun gisa, ozpin bisaia agertu zuen.

Une batez, epailariari gogoeta egiten zuela antzeman ziezaiokeen. Aurpegiera behatuta, ordukoa ez zela bere egunik onena barrundatzen zitzaion; ingurukoek zalantza gehiegi agindu mailaren aurrean.

Haltzez eginiko gurutzean, eraila eskumuturretatik eta orkatiletatik plastikozko bridekin estekatuta zegoen. Lurrean gorantz begira kokatzea lanak emanda lortu ostean, kurrika batekin lokarriak murriztu zizkioten.

-Itxaron, gauzatxo bat, unetxo bat bakarrik behar dut horren atzealdea begiratzeko -forentseak artetaturik-. Hemen dago, uste nuena. Ikusten duzue lepoko gorriunetxoa? Irato aurretik zerbait xiringatu diote. Zergatik diodan hori, ba odoljariora eta gatzapena bizirik dauden izakiengan bakarrik ematen delako,

bestela hil ostekoak izaten dira. Puntutxo horretan odola gatzatuta dago, nolanahi ere, egingo diogun analisisian ikusiko da leukozitoak mugitzen diren ala ez, ezen hilik egonda ere, ordu batzuetan gorputzeko hainbat gaik oraindik bizirik jarraitzen du.

Forentseak urrats bat gibelera egin zuenean, ehorztetxeko langileek eraildakoaren gorpua poltsa batean kokatu zuten. Ozta-ozta, labainduak maiz, automobil luzangan barruratzea erdietsi zuten. Haren ondoren, sartu ziren barnera eta entzuten etorri ziren soinu berdina zolitzuz gorputegirantz abiatu ziren.

-Beno, hemengoa badago. -Epaileak irmoki.

-Bai, goazen lurralde honetatik edo bertan jelatuta geratuko gara. Ia herrira bakez heltzen garen! -Egunari luzetsita, Nereak etxeko epeltasunaren desioa zuen.

-Zeanuritik hobeto? -Epaileak Nereari begietara so eginez.

-Bai, jakina, Jose. Urkiola urruti dago hemendik.

Arrastiria ilunsentirako zidorrean deblauki barneratzen zela, etenik gabeko ekinean elurra zentimetroak metatzen tematu zen.

OSTEGUN GAUA

3

Gauerdirako oraindinokarren zertxobait falta zela, norbaitek Nerearen bizilekuko txirrina jo zuen. Sarrera zabaltzen ez zen berandutu. Ez zuen inor ikusi, baina sarlekua zerratzeraz zihoala, lanpasaren gainean, azal zuriko gutun bat antzeman zuen. Txunditu zen. Zer egin jakin gabe, segundo batzuk hantxe zorura begira ekuratu zen. Halakorik ez zitzaion inoiz gertatu. Mehatxu bat zela begitandu zitzaion. Zoladuratik eskutitza jasotzeko, sarrerako Adam kontsola gainean zuen kartoi kutxatik latex eskularrua baliatu zuen.

Istant bat geroago, sarbidea hetsi eta sukalderantz joan zen. Gutuna mahai gainean laga eta arasatik errioxar arno botilari kortxoa kendu zion. Basokada bat behar zuen. Mahai txikiaren aitzinean jesarri eta edalontziko pitinka joan zen edaten. Eskutitza labana zorrotz batekin kontuz zabaltzeko, beste behin latexko eskularruak ipini zituen. Plegu-laurden batean, ordenagailuz izkiriaturiko esaldi soil bat: *“Laga dena”*. Gainera, Polaroid zink paperean, itxuraz lepoaren inguruan altzairuzko klabearekin iratotako zendu baten argazkia ere bazegoen. Zutitu eta ezkaratzetik jalgi zen sarrerako atea giltzaz zarratzera.

Noraezean bezala, batetik bestera gogoetatsu higitu zen. Korridorea labur geratu zitzaion. Hiru-lau joan etorri eta jesarri zen. Erretratuko hildakoa berriro behatu zuen. *“Ematen dit kontu hau atzean geratu den sasoia batetik datorkidala. Gaur egun, era informatikoan izanda, nork bidaltzen du eskutitzez mehatxua?* Hausnarrean ipini zen. *“Hiltzailearen adinak zerikusia izango du, edo, iraganeko aldi batera eramatea gura gaitu?* Nerea ezbaian ezarrita zegoen. *“Baina auzia da beste zerraldo bat dagoela eta Saldropokoaren antzera hil dutela. Horako hori non ote dago? Oraindino ez du inork salatu, beraz hil berri dute edo inor ez da hortik*

igarotzen, edo erretratua atera eta gero, inork ez ikusteko beste nonbaitera eramán dute.

Telefonoa hartu eta nagusiari hots egiteko prestatu zen.

-Alberto!

-Bai, esan Makua. E, belu zabiltza!

-Bai, oraintxe bertan jazo da.

-Zer da agitu den hori?

-Ateko txilina jo eta lanpasean eskutitz bat utzi didate.

-Zabaldu duzu?

-Bai.

-Ia ba, esan!

-Plegu-laurden batean, “*laga dena*”, makinaz idatzita eta eztarriaren inguruan duen altzairuzko klabearekin itotako defuntu baten erretratua ere badago.

-Joder! Etxean zagoz?

-Bai.

-Lagunik gabe?

-Bai.

-Ez zaitez mugitu. Talde bat bidaliko dizut oraintxe eta egoitzan elkar ikusten dugu. Bergarari neuk deituko diot bera ere etor dadin.

Nereak argazkia beste behin behatu zuen. Saldropoko interpretazio gunean kausitutako iratoa baino gazteagoa zela irudikatu zuen. Ilea beltza zuen eta aurpegi luzanga. Sudurra erreparatu zion. Itxuraz boxeolari batena zitekeen. Ezker belarriko arrakadan urrezurizko krokadura batean diamantea zirudiena zuen. Soinean elastiko beltza eta praka bakero urdin ilunak. Oinak ez zitzaizkion

begiesten. Ingurumenari erreparatuz, nonbait helmugarik gabeko errepide elurtuaren gainean zegoen.

Makuak dirudunen baten bizkarra zaintzen ibiltzen den horietakoa zelakoaren gogoeta egin zuen, edo akaso, behar bazen bai, bazitekeen polizia bat ere izatea. Baina zergatia zen ulertzen ez zuena. Berak kasuarekin aurrera egitea ez bazuten nahi, zergatik jarri zuten eraila Saldropon, euren barruti judizialean eta ez beste edozein lurraldetan? Eta argazkiko zenduak berarekin zein harreman zuen? Berak izandako kasuren batekoa izan zitekeen? *“Ez dut kasua alde batera utziko”*, ebatzi zuen. *“Putakume horiek joan daitezela pikutara”*, ozen bota zuen. Bere bizitzara heldu berri kontuetan murgilduta hausnarrean segitu zuen. Bat-batean sakeleko telefonoa dardarka aditu zuen. Nagusia zen.

-Makua?

-Bai, Alberto, esan.

-Taldea behean, sarreran daukazu.

-Ez dut ezer entelegatzen, -Nereak lanlekuko sarreran zutik zioen-. Zergatik guzti hau ikerketa abiatu baino ez dugu egin eta. Oraindik zendua nor den ere ez dakigu eta zirikatzen hasi zaizkigu. Eta hildakoa beste herrialde batekoa bada? Ikerketa hango talderen batek egin beharko duela mundu guztiak daki. Bai, gure laguntasuna izango dute, baina osagarri lez, xehetasunen bat behar badute, ez besterik. Beraz, mehatxuak zergatik hasi dira hain arin? Talde horrek dena kontrolpean duela uste du.

-Lasai, Makua, dena argituko dugu. Sarrerako txirrina jo hurrengo segundoetan kalean entzun duzu zeozer, zarataren bat edo? -Albertok itauna begietara zuzenduz egin zion.

-Esango nuke zilindrada handiko motor bat entzun dudala, baina ez nago ziur. - Nereak berehalako batean ihardetsi zion.

-Ederki. Orain, egunsentia heldu arte, nasai itxaron behar dugu. Nik uste dagoeneko zientifikokoek hildakoaren gorabeherak zehaztuta izango dituztela, hala ere goizeko zortziak arte iguriki behar dugu. Egoera nahikoa zaila da berez; hortaz, hildakoa nor den ezagutzen dugunean jazoerak arrapaladan abiatuko dira.

Bainugelatik bueltan Nereak langelako atea zabaldu zuen. Beste biak bere ahotza entzuteko eran hitz egiten hasi zen:

-Nahi eta nahi ez, honen guzti honen giblean andana bat dago. Baina zertarako? Zein da eraildako bi horien xedea? Nork daki hiltzea zertarako behar den, ezta? - Bat-batean ahoan gustatzen ez zitzaion zaporea antzeman zuen; aho-keru mingatza. Heriotzak bere ostean uzten duen usainak sorrarazten duen zaporea zela oroitu zuen. Barneratu zenean zarratu zuen atea eta beste biak behatu ondoren, bere mahaira zuzendu zen. Lagun batek Van Goghen tamaina ertaineko ekiloreen kopia mahaiaren aldamenean zuen eta begira geratu zen. Arnasbidea hartzeko-edo, hutsera eraman zuen oroimena.

-Zazpi eta erdiak dira. Zientifikokoak zortzietan hasten dira lanean. Laster jakingo dugu Saldropoko eraila nor den eta non bizi izan den.

-Bai, Alberto. Ordu erdi barru hasiko gara aurrera egiten, -Eiderrek beharrezko erantzun lez gaineratu zuen.

Nerea hotz zen. Esekitokitik kapusaia hartzeko zutitu zen. Gauerdian herio-mehatxua jaso zuenetik ez zen bera. Aldartea eraldatuta zuen. Ez zuen kanpora azaleratzen; inor konturatu ez zedin bere baitan izaten ahalegintzen zen; lanak

ematen zizkion, ordea. Guztiarekin ere, mehatxua zinezkoa zen. Kafea behar zuen eta zerbait gozoa jatea.

-Banoa makinatik kafe bat ateratzera eta bide batez zeozer ezta jan behar dut. Zuok kaferik nahi? -Nereak.

-Bai, betikoa. -Erantzun zuen Albertok.

-Bergara, zuk?

-Bai, nik be bai, betikoa. -Eiderrek ihardetsi zion-. Esaldia bota aurreko milaren batean burura ekarri zuen kafeak makinatik berak ateratzea, baina ia aldi berean ebatzi zuen Nereari batetik bestera higitzen lagatzea, era horretan patxada eta airea bere egingo zituelakoan.

Langelako sarrera irekitzen zuela, sakelako telefonoaren ahaire nahasezina aditu zuen. Ukipen-pantaila begiratu zuen. Bere ahizpa zen. Asunek deitzeko goizegi zela pentsatu zuen, hala ere, ezinbestekoa zitzaion erantzutea; ez zuen munduan beste odolkiderik.

-Asun, egun on! Zelan hain goiz?

-Egun on, Nerea. Ba, lanean nago eta aspaldian ez dugunez elkarrekin bazkaldu, ba, ondo legoke biok batera eguerdiko otordua egiten badugu. Zer iruditzen zaizu? Zelan zabilta denboraz?

-Astia atera dezaket, baina ez pentsa oso une aproposa denik.

-A, beno, beste egun baterako utzi dezakegu.

-Ez, itxaron. Ondo letorkidake elkarrekin bazkaltzen badugu, eskuartean daukadan guzti honi eten bat egiteko primeran.

-Ederki. Ordua?

-Lasai, neu artatuko naiz guztiaz. Zuk ekin lanean eta utzi bestea neure kontu.

-A, ederto batean!

-Musu bat.

-Bai, beste bat.

Albertok eskuturreko erlojuan ordua behatu zuen. Saldropokoaren xehetasunak behar zituenenez halabeharrezkoa zitzaion zientifikoko burua zen Martarekin hitz egitea. Prestatu zen hots egiteko. Segidan heldu zitzaion hariaren beste aldekoaren erantzuna.

-Arren, jarriko didazu Marta Aberasturi andrearekin?

-Noren partez, -telefonoaren beste aldean entzun zen.

-Alberto Muñagorri naiz.

-Alberto, Marta oraino ez da etorri. Mezu bat lagako diot heltzen denean zuri deitzeko?

-Bai, mesedez, utzi ohartxo bat.

-Alberto, itxaron, sartzear dago. Sarbidetik barnera datorrela ikusten nago. Itxoin apurtxo bat.

-Alberto, Marta naiz. Egun on.

-Bai, halan ekarri.

-Saldropokoaren zehazkizunak beharko dituzu, ezta?

-Lehen bait lehen nor den jakin behar dugu. Zeozertan hasteko antsiaz beterik gaude.

-Bai, Alberto, ulertzen dut. Emadazu bost bat minutu. Neure langelara egokitzen naizenean hots egingo dizut eta orain arte egin duguna azaldu. Bost minutu, bai?

-Bai, jakina. Gero arte.

-Bai, oraintxe deituko dizut.

Eiderrek begiak jaiki zituen. Apunte gisa, kaier batean zirriborroak egiten zebilen. Laukiduneko orriaren goiko eskuin aldean, sare bat zuen margotuta nondik armiarma bat jaisten zen eta, beherago, orri osoa hartzera, bi hildakoen aurpegiak zituen txukun margotuta.

Albertoren telefonoak jo zuen.

-Bai!

-Alberto, Marta naiz.

-Marta, bota!

-Hatz-markaren arabera eraildakoak Salvador deitzen da.

-Beste xehetasunak edo gainerakoak gure kontura uzten dituzue?

-Ez, beste zeozer be esango dizut: Gasteizen, Olagibel kalean bizi izan dela, 01003 posta kutxa. Abizenak, karrikaren zenbakia, solairua eta bestelako xehetasunak, barneko komunikazio bidez idatziz bidaliko dizkizut. Beste guztia zuon kontukoa dela uste dut.

-Bai, Marta. Mila esker.

-Beste batera arte.

-Agur!

-Jose Goikoetxeak darama kasua, ezta? -Albertok itaundu zuen.

-Bai. Erantzun zion Nereak.

-Berarekin hitz egin behar dut.

Nerea karrikara jalgi zen. Bere ohizko ostatura kafea edatera joan gura zuen. Hagitz bizkortzeko bigarrenaren premia zuen, kafetegikoa, zapore bizikoa eta indartsua.

Eraikinetik atera zenean begitartean hotzak bortizki jo zion. Ez zuen gibelera egin. Berotzeko desiraz burua esku biekin marruskatu zuen. Jabetu gabe, atzealdean zuen orbaina eskuztatu zuen. Betirako izango zuen oroipena zen; gazte denboratakoa; kantaldi bat ikusten zeudela, guardia zibilak futbol zelai batera sartu, arineketan irten behar eta, buruan borraz jo zutenekoa. Bizitzak dituen paradoxak. Tenperaturaren aldaketa bat dagoenean beti agertzen zaio, beti gogoratzen dio zein alde murrizta dagoen batetik bestera atoan joateko, berehalakoan bizitza hondatzeko.

Nerea eskatu berri zuen kafe ebakia edaten zegoen. Begirada likido desiragarrian zuen galduta. Saldropoko hezegunean agertutako erailaren berri izan zuenetik gertatutako gora behera guztiei bueltaka zebilen. Ñabardura guztiak, huskeriak izanda ere, albainduta izatea gustatzen zitzaion. Itaunak ziren batez ere garunera etortzen zitzaizkionak: *“Zergatik esan ziguten Saldropoko hezegunean eta ez Saldropoko hezeguneko interpretazio gunean? Zergatik biluzik? Zergatik altzairuzko kablea? Buztana eta Atxuri. Atxuri Gorbeiako sarrera edo Bilboko auzunea? Gasteizen hil dute?”*

Bien bitartean, epailea bere bulegora noiz helduko, Alberto zenbait ohar idazten ari zen, oro har, aurretiazko txostena prestatzeko ezinbestekoak izango ziren datuak. Beste mezu bat ere idatzi zuen, hots: Makuaren kaleko grabazio kamerak begiztatzea. Ahalik eta lasterren ezagutu behar zuten lanpasaren gainean eskutitza utzi zuena, hortik tiraka atera zezaketen agindua nork eman zuen eta, tenkatzen segituz, kasua argitzeko baliagarriak izan zitezkeen beste gauza asko.

-Eider eta Nerea, kasuaren sumarioa sekretupean dago, -Alberto kontuak argitzen hasita.

-Eta erretratuko zendua? -Nereak jakin gurean.

-Horrek ere Gasteizeko helbidea du.

-Beraz kasua hara? -Eiderrek.

-Bai. Guk txostenak prestatu eta dagokion taldera bidaliko ditugu.

-Txostenak pluralean diozu? -Nereak.

-A, bai, erretratukoa Urkiolan kausitu dute, beraz biak gure ardurapeko eremuan. Horren berri egoitzara oraintxe bertan heldu da. Mendigoizale batzuk Anbotorako bide hasieran aurkitu dute, oraindikarren pagodi barreneko elurrez beteriko asfaltoan.

-Agiriak patrikeran topatu dizkiote?

-Bai, poltsikoak Abadiñoko udaltzainak miatu dizkio eta berak esandakoa dakigu. Atondu gaitezen, Jose epailea gure deiaren zain dago bera ere hara abiatzeko eta. Zoazte zuok biok, Makua eta zu, Bergara. Beste gauza bat, Abadiñoko udaltzaina bertan dago zuok noiz helduko. Berak emango dizue zenduaren kartera.

-Zientifikokoak? -Eiderrek.

-Bai, horretaz oraintxe artatuko naiz. -Ia, belu egin orduko hasi gaitezen higitzen-. Albertok.

-Bai, bagoaz. -Nereak.

Egoitzatik irten aitzinetik, Nereak Asuni, bere ahizpa bakarrari, hots egin zion eguerdiko otordua bertan behera lagatzeko asmotan. Eguna arrats apalera arte erabat katramilatu zitzaion.

OSTIRAL ARRASTIRIA

4

-Bai, nor?

-Arratsalde on.

-Halan ekarri.

-Matias ikertzailea zara?

-Hori dio ateko plakak. Zertan lagundu zaitzaket?

-Begira, Matias, nire senarra hil egin dute eta zurekin hitz egitea nahi dut. Zer jazo zaion jakiteko ikerketa neure kontura egitea gura dut, horrexegatik deitzen dizut. Badakizu, bertsio ofizialez ez naiz gehiegi fidatzen. Noiz ikus gaitezke?

-Beno, ba, orain gauza batzuk egiten nabil, baina hala ere ordu pare bat ematen badidazu esaten didazun lekura hurreratu naiteke.

-A, ederto, gaur bertan! Ze ondo!

-Bai. Non nahi duzu elkar ikustea?

-Neure etxera etorriko bazina primeran letorkidake!

-Bai, zelan ez ba! Non bizi zara?

-Olagibel kalean. Badakizu non dagoen?

-Zelan ez dut jakingo, ba! Hemendik bertara dago!

-Bai, begiratu dut non daukazun langela.

-Zein ordutan nahiko zenuke?

-Ordu pare bat barru, ondo? Seiretan-edo, bai?

-Primeran! Zenbakia, solairua?

-Oraintxe bidaliko dizut WhatsApp-ez.

-Ederto. Zelan deitzen zara?

-Sara Bidart.

-Orduan gero arte, Bidart andrea.

-Bai, gero arte.

Gizonak oinak mahai gainetik jaitsi zituen eta aldamenean zuen andrazkoa begiratu. Emakumeak irriñotxo eskaini zion, telefonoz emandako hizketaldia jarraituta, gogoetara diruren bat ikusiko zuelakoaren antsia etorri izan balitzaio bezala.

-Zer, lana? -Bota zion andereak.

-Hori ematen du.

-Kalea?

-Olagibel.

-Uau, diru freskoa!

-Ikusiko da.

-Moztu bizarra eta ipini guapo.

-Trajea?

-Bestea, urdin iluna, eta gainera berokia.

-Gorbatarik?

-Ez.

-Alkandora?

-Zuria.

-Ez didazu gauza handirik esaten, hemen ez daukat besterik eta.

-Zuk galdetu eta nik erantzun; badakizu.

Arratsaldea zimeltzen hasita zegoen. Matiassek mahai azpian botak bilatu zituen eta tiraderatik 9koa oratu, gero pizza kartoi hutsaren ondoan ipintzeko. Zutitu, burdina gerrian jarri, armairutik nezeserra hartu eta bizarra egitera korridoreko komunara abiatu zen. Bueltan, berokia beztitu zuenean, mendekoari hurrengo bota zion: -Luzia, hetsi atea giltzaz. -Emakumeak begietara irmotasunez so egin zion, baina ez zion tutik esan.

Berriz korridorean, behetik gora baten bat zetorrenaren oin hotsak antzeman zituen. Nor izan zitekeen jakiteko, beherako eskilarak hartu beharrean gorantz egin zuen. Aurki baretu zitzaizkion hasierako larritasunaren eraginez azkarregi zihoazkion bihotz taupadak, Bixenteren adatsa ikusi zuenean, alegia. Idazgelara sarri joaten zen lagunak noizbehinka lantxoren bat edo beste egiten laguntzen zion. Karrikara jalgi ziren.

Kanpoaldean aire izoztuak bortizki araztu zien bisaia.

Matiassek bisitara joan aurretik gorputza berotzea behar zuen. Laguna horretarako beti zeukan prest.

-Goazen, Bixente, -esan zion ikertzaileak.

-Hi nora hoa hain dotore. -Galdegin zion lagunak.

-Ba, badakik: telefono deia, hildako bat, emazteak jakin gurea. Beharbada lana.

-Interesgarria, ezta?

-Hildakoren baten gora beherak ezagutzea jakingarria bada bai.

-Hori da zure pasioa.

-Hori da gure ogibidea esatea zuzenagoa litzateke.

-Ziur baietz.

-Badakizu lanak logalea ematen didala; gogaitu egiten nau, baina bizi behar. Betiko kontua. -Matiasak atartean, karrikaren aurreko espaloia begira.

-Ba, zure idazkari berria ezagutzera etorri naiz, baina beste baterako utzi beharko dut.

Hiru-lau beribil saihestu behar izan zituzten, aurrez-aurre zuten ardandegi moduko batera barneratzeko.

-Bi ebaki eta koinak pare bat, -eskatu zuen Matiasak. Buruarekin gora-behera eginez, tabernako langileak baiezkoa agindu zien. Bazirudien barraren beste aldean lan egiten zuten gehienek pasahitza berdina zutela.- Hildako bati buruz entzun duzu zeozer?

-Ez. -Bixentek.

Kalean automobilen ibilia ugariagotzen ari zen.

Arratsaldeak ez zuen jostaldirako gonbitik egiten; neguko hotz dardartia eta ilun. Gainera, eguratsari une batetik bestera elurra botatzen jarraituko zuelakoaren antza hartzen zitzaion.

-Begira, hortik doa Mikel, -Bixentek eskuarekin aditzera eman zuen.

Bat-batean Matias kalera jalgi zen eta beribil batek galga gogor sakatu behar izan zuen aurrean ez eramateko. Mikel jabetu zen.

Unetxo bat beranduago hirugarrena tabernara barneratu eta bere zain zeuden bi lagunekin elkartu zen.

-Zuk, Mikel, hildako bati buruz entzun duzu zozertxo. -Itaundu zion Bixentek.

-Defuntua, non?

-Ez dakigu, ba! Hori galdetu diot Bixenteri. -Matiasak argitu zuen.

-Niretzat ere hauek eskatu dutena, -Mikelek lan egiteko gogo gutxi antzematen zitzaion otseinari-. Eta norbaitek ikerketa bat egitea eskatu dizu? Emazteak, akaso? Zelan zoazen jantzita ikusita hori ematen du.

-Bai, oraintxe daukat hitzordua.

Seietarako hamar minutu eskas geratzen ziren.

Erabat grisa zen iluntzean elur-euri arinak zorua bustitzen zuen.

Aitzineko espaloira joateko karrika zeharkatzera jalgi zenean, bizkorregi zihoan moto batek Matiasen gorputza ukitu zuen. Oreka galduta zorura ez amiltzeko, aldamenean aparkatutako beribilean eskuak ipini behar izan zituen. Larritu zen. Bat-batean, heriotzaren usaina sudur zulotik barnera sartzen. Instintiboki mutur beltza ezarri zitzaion.

Zigarro bat behar zuen. Denbora joan zitzaion. Lortu zuen aurkitzea. Txiskeroarekin batera jakako patrikan zeukan. Zupada luzearen kea botaz ekin zuen espaloitik aurrera. Sakelako telefonoaren pantailan ordua behatu zuen. Azkarrago joaten hasi zen, martxa nordikoan bezala. Ez zen garaiz helduko.

Senetik irtenda zihoan. Bizipen hunkigarriak pilatuta zituen mataza egitera bezala eta aspaldiko partez begi bistan kasu bat. Ezkontza-haustea eta gero, beste bizitza bat. Jokoz kanpo sentitzen zen, erraztasunik gabe, errealitatetik kanpo biziko bazen erara. Bere burua ezagutuko ez bazuen moduan sumatzen zuen. Hala ere, pausu bat aurrera emateko grinaz, bezero izan zitekeenaren bizilekuko bideari ekin zion. Ikerketan lehen bait lehen hasi behar zuen, bizirik sentitzeko, beharrezkoa zela antzemateko, oreka berreskuratzeke, sorrak ordaintzeko; kontu larrietan arituta ere, berriro bizitzaz gozatzen bustitzeko.

Txirrina jo aurretik, likaon bat bailitzan, ingurua usnatu zuen. Ez zitzaion ezer susmagarri begitandu. Soseguz sakatu zuen botoia.

-Bai?

-Sara Bidart anderea?

-Bai.

-Matias Martinez de Oca.

-Igo.

Ikertzailea noiz iritsiko, Sara ateetan zegoen iguriki. Muskulu bikietara heltzen zitzaion gure haitzen koloreko artile janzki luzea beztitzen zuen eta etxean egoteko ipintzen diren zapatila hori hitsak.

-Sara Bidart andrea?

-Bai, ni naiz. Zu Matias izango zara, ezta?

-Horixe bera. -Matiasen detektibe pribatuaren agiria erakutsi zion.

-Ez da beharrezkoa. Etorri, sartu zaitez. Eseri hor, nahi duzun lekuan. Zeozer edateko? -Egongelara sartzekotan zirenean, Matiasen aurpegira soslai begiratzuz, Sarak itaundu zion.

-Cognac-a ondo legoke.

-Nik pentsatzen nuen eskola berriko ikertzaileak ez zenutela egunez edaten!

-Batzuetan ez, baina orain ondo letorkidake; burmuina bizkortzea behar dut atoa. Goizean goizetik okertu zait eguna eta uste dut oraindik luze joango zaidala.

-Napoleon? -Sarak galdera ikurra begietan ipinita.

-Ederto legoke. Bidart andrea zelan lortu duzu nire telefono zenbakia?

-Lagun batek eman dit, Alizia Agirrek, behin bere gizonaren kontuak argitzeko zure laguntza izan zuen.

-A, bai, gogoratzen dut.

-Egin zenion lanarekin bera oso pozik geratu zen.

-Ni ere bai, Bidart andrea.

-Arren, deitu Sara.

-Eta nigandik zer gura duzu?

-Begira, Matias, nire gizona hilik aurkitu dute. Oraindik ez naiz gorputegira joan bera dela baieztatzeko, baina hona aurkeztu zaizkidan bi ertzainek diote nire senarra dela. Hatz-markak ikertu ondoren ziurtasunez diote Xalbador dela. Bi kontu dira zu kontratatzeraz eragiten nautenak: bata, ez naizela bertsio ofizialaz fidatzen eta, bigarrena, poliziak nolabaiteko beldurtxoa ematen didala. Uste duzu nahiko arrazoi dela zure laguntza behar izateko?

-Bai, Sara, nahikoa eta soberakoa. Zure senarra non agertu da hilda?

-Ez didate xehetasunik eman, baina bai, Bizkaian, Zeanurin aurkitu dutela hilik.

-Xehetasun bat ere ez?

-Soilik kasuaren sumarioa sekretupean dagoela. Galdetu didate ia noiz ikusi nuen azken aldiz.

-Sumarioa sekretupean izateak ikerlana zaildu egiten du. Baina badut ertzaintzan lagun bat eta hortik beharbada zeozertxo jakingo dugu. Ez da izango garrantzitsua, baina bai, zelan, zein lekutan, zein egoeratan eta zein ordutan aurkitu duten, eta Xalbador erail duten ordua jakiteko ere. Lanean hasteko datu horiek ezinbestekoak dira eta derrigorrezkoa zaie esatea; legeak derrigortzen die. Lehenbailehen joan beharko zinateke gorputegira, bederen jakiteko zein egoeratan dagoen; esan nahi dut: gorpuak ezer agerrarazten duen; hitz batean: nola hil duten. Kasuaren sumarioa sekretupean egonda ere, forentsea zeozer esatera derrigortuta dago. Nahi baduzu lagunduko zaitut.

-Eskertzen dizut.

-Gainera, Xalbadorren gorpua ikustea ikerketarako baliagarria izango zait eta forentseak dioena bere ahotik entzutea ere bai.

-Lehenengo eta behin zure zerbitzu-sariei buruz hitz egin behar dugu. Badakit Aliziari zenbat kobratu zenion eta badakit baita, Aliziari egin zenion lanak Xalbadorren heriotzaz ez duela zer ikusirik. Hortaz, zeuk esan beharko didazu.

-Begira, Bidart andrea, zure senarraren heriotzari buruz ezer jakin gabe, ausartuko nintzateke esatera kontu delikatu baten aurrean gaudela eta, harila askatzen hasi arte, ez dugula jakingo ikerketa zein tamainakoa izango den. Luze joango den usaina hartzen diot eta, ez hori bakarrik, ez litzateke gehiegikeria izango erailketa baten aurrean gaudela aipatzea. Horrekin esan nahi dudana zera da: gure bizitzak ere arriskuan egon daitezkeela, beraz kontuz ibili beharko dugu edo gu geu ere edozein bazterretan hilik agertu gaitezke.

-5.000 aurrerapen gisa eta amaitzen duzunean 18.000 Euro?

-6.000 euro gastuetarako, hiru egun barru beste 6.000, ikerketaren erdira heltzen garenean 9.000 eta amaitzen dudanean 8.000. Ematen dit oso kontu larri baten aurrean gaudela eta Xalbadorren izen ona zaindu beharra dugu, bai ala bai, eta zu nahastean zaudenez zeurea ere bai, noski. Horrekin zer esan nahi duan: ba, behar bada, baten bat aurrean eraman beharko dela. Garbi dago, ezta? Ulertzen didazu? Uste dut nahiko argi hitz egiten dudala, ezta? -Erabaki zuen Matiasek.

-Konforme. Oraintxe emango dizkizut 6.000.

-Ondo ezagutzen zenuen senarra?

-Gizonak sekula ez dira ondoegi ezagutzen.

-Zelan konpondu izan zarete?

-Ezkondu ginen arte oso ondo. Gero ere bai, luzaroan, semea izan nuen arte. Handik aurrera adarrak ipintzen hasi zitzaidan, baina ez baten bakarrik, nahi zuen guztietan baino. Badakizu, betiko kontua.

-Zenbat urte ditu semeak?

-Hamar urte bete berri ditu.

-Zure semearen etorkizuna ere jokoan egon daiteke; behintzat izen ona jagon behar zaio.

-Bai, ziur.

-Gizonak zenbat urte?

-Biok adin berekoak gara, hogei eta hamabost.

-Orain non daukazu semea?

-Egun batzuetarako neure amarekin egongo da.

-Zure senarrak diru kontuetan arazorik izan du?

-Ez, nik dakidala.

-Zertan lan egiten zuen?

-Bost lankideko etxe-agentzia bat izan dugu orain neurea dena. Beno, enpresa nire aitak sortu zuen, baina berak ardura hartu zuenez geroztik etekin handia atera dio.

-Politikan sartuta?

-Ez.

-Andreekin arazorik?

-Nik dakidala ez.

-Gaztaroan izan zuen gora behera larririk?

-Poliziarekin ez, beste zeozertan ez dakit, baina nor egon ziur.

-Narkotikoen salerosketetan sartuta?

-Inolaz ere ez; jakingo nuen.

-Zaletasunik?

-Arrantzan egitea gustatzen zitzaion.

-Apustueta jokatzeko zuen?

-Ez dut uste. Enpresako kontabilitatea neuk begiztatzen dut.

-Bai, baina zure enpresa bezalakoak B diru multzoak izaten dituzte.

-Apustueta ibili izan bazen jakingo nuen.

-Gauetz ateratzen zineten afaltzera, koparen bat edatera? Bera bakarrik edo lagunekin?

-Bi galdera. Lehenengoaren erantzuna: noiz behinka, ez maizegi. Bigarrenari: bai, sarri. Eta galdetu aurretik nora joaten ginen jatetxe eta tabernen izenak folio batean ipiniko dizkizut biharko-edo.

-Ados. Seguraski sarriago hitz egin beharko dugu, batez ere bere lagunei buruz. Ezagutzen duzu bere gaztetako lagun taldea?

-Bai, noski, Matias. Baina hobeki bihar-edo, etzi-edo, jarraitzen badugu. Nekatuta nago eta gainera hileta prestatzen hasi beharko naiz. O, ze nazka! Itxaron segundo bat.

Sara zutitu eta korridorean barrena urrundu zen. Handik minutu erdi eskasera, esku batean dirua zekarrela bueltatu zen.

-Tori, Matias, 6.000koa. Bihar, ondo baderitzozu, goizeko hamaikak aldera gorputegira joatea gustatuko litzaidake. Ondo letorkizuke nirekin batera bertaratzea?

-Bai, noski, Bidart andrea.

-Barkatu behar didazu, neka-neka egina nago. Bihar arte ba, orduan.

-Azkenengo gauzatxo bat soilik, Bidart andrea.

-Bai, esan.

-Xalbadorren erretraturik badaukazu? Untzu ateratako bat. A, eta beste bat bere gaztetako kuadrillakoa?

-Bai, jakina. Ze mamala ni be! Oraintxe ekarriko dizut bat. Hobeto esanda, bihar emango dizkizut biak; uste dut biak ditudala. Bihar arte, Matias.

-Bai, bihar arte.

Gorbeia ardandegian ez zen jende gehiegirik. Egunak ziren kanpoan, terraza erara ipintzen zituzten mahai eta jezarlekuak bazter batean bilduta zituztela eta bertaratzen zen bezeroak barruak ematen zuen espaziora moldatu behar izaten zuen. Orduko gauak ez zuen karrikan egotera gonbiterik egiten eta, barraren ondoan, hango hiru-lauak aski nasai zeuden. Matiasek mostradorearen albo batetik begira zuen zerbitzariari ardo bat eskatu zion.

Iluntzeko zortziak ziren.

“Pentsatzen ipinita”, zioen bere baitan, “orain arteko enkargu gehienak huskeriak izan direla esango nuke. Betiko adarren kontuak. Egun pare bat desagertuta zeraman sendi aberats baten alabaren kasua, Burua galdu zuen gizonaren tema. Istripu baten ondorioz suminez beteriko enpresari batek bere bizkartzaina hiltzeko zorian egon zenekoa. Eskuarki herriko farmazia bakarretik Tadalafilo pastillak faltatzen zirenekoa eta bestelako xehekeriak. Sararen gizona zertara joan ote zen Bizkaira han bizia uzteko? Edo hara eraman orduko, azken arnasa emana zuen? Zer zeukan esku artean? Bidart andreak esandako guztia egia balitz, jazoera honek nora garamatza? Lehenbailehen jakin behar dugu zein egoeratan eta zehazki non aurkitu duten, horrek gorabeheretan argitzapen apurtxo bat izaten lagunduko digu eta”.

Ardoari zurrutada ñimiñoa eman zion. Usaindu zuen kristalezko edalontzikoa. Ez zuen muturra okertu. Kopan geratzen zena trago luze batean irentsi zuen. Bixente ikusi zuen tabernara barneratzen. Non zegoen esateko ez zuen behar izan eskua altxatzerik.

-Berrito ikusten gara. Gaur jaiak ala? -Matiasi bostekoa ematen ziola irribarretsu bota zuen.

-Ardoa? Galdetu zion ikertzaileak.

-Jakina!

-Bi ardo hona! -Matiasen ozen barrakoari.

Tabernariak nagiturik ematen zuen eta ozpin aurpegia ezin kendurik zebilen batetik bestera. Halako batean, isil isilik, ardo botilarekin eta kristalezko bi koparekin hurbildu zitzairen. Ez zuen hitzik egin. Bazirudien nekadura ere lepo gainean pilatuta zuela.

-Hildakoaren andrearekin zelan joan da elkarrizketa?

-Pentsatzen nuen baino akigarriagoa eta arriskutsuagoa izango dela ematen dit. Bai, Bixente, kontu larriren baten aurrean gaude eta, ez hori bakarrik, beste behin ere zure laguntza beharko dut. Gauza asko ikertu beharko ditugu. Uste dut, Xalbadorren bizitza goitik behera arakatu beharko dugula.

-Eraila, Xalbador deitzen da?

-Bai. Bihar Sara Bidartekin gorputegira noa eta eguerdirako jakingo dut nondik hasi beharko dugun. Ziur naiz, ikertzen hasteko aldi berean zenbait bide desberdin hartu beharko ditugula. Baina utz ditzagun lanak beste baterako, ezperez, denbora baino lehen, aurpegian zimurrak aterako zaizkigu. Zelan emaztea? -Matiasen.

-Bere saltsan; ordu honetan orfeoiekin abesten egongo da. Zu, badakizu, eta gainera nire adinekoa da, badakizu Alfredo oso txarto dagoela?

-Ez, ez dut ezer entzun. Jakin badakit bikotearengandik banandu egin zela eta beste batekin hasi, harekin ere uzteko. Auzokoak gara, baina ez dut aspaldi-aspaldi ikusi. Etxea saldu egin zuten, ezta? -Matiasen.

-Bai. Orain erdi jauztear dagoen baserri batean bizi da.

-Bera bakarrik?

-Ez, beste jende batekin. -Bixentek.

-Bere taldekoak zirenekin?

-Ez.

-Eta Lukas?

-Lukas ere erabat gaizki.

-Puf!

-Alfredok erdipurdi egin zuen emaztea bazterrera utzi eta beste batekin egitasmo berria abiatzeko.

-Beno, hori zalantzarria da baieztatzea. Ez zaigu ezagun euren bikote harremana azkenetan edo zein egoeratan izango zen; dudagabe ez zirela egongo unerik onena bizitzen, -azaldu zuen Matiasek.

-Ez, eskuarki ez ziren ondo moldatuko, bestela ez zuten pausu hori emango.

-Gainera, bi lagun horiek, gazterik hasi ziren gaia bizitzen eta bizimodua ez dute naretu. Horri gehitzen badiozu azken bi urteetan Ameriketatik etorri den kaka-mokordo hori, ba, ez dakit, baina... egur lar.

-Bai, horri buruz irakurri dut zeozer. Fentaniloa edo zombien droga. Honezkero, badirudi Estatu Batuetan suizidioetan eta automobil istripuetan bizia galdu duten baino pertsona gehiago hil dituela.

-Opioide sintetikoa, ezta?

-Bai, heroina baino 50 bider indartsuagoa eta morfina baino 100 bider potenteagoa -Bixentek osagarri lez.

-Egin kontuak.

-Ia, beste batera?

-Bai... -Matiassek

Bostgarrenerako ikertzaileak komunerako bidea hartu zuen. Eskuak horma bilatzen zuen eta, ustez zegoen, ibilian zorua pixka bat mugitzen zela. Neketsua gertatu zitzaion premiazkoa zuena. Txorrotadak ez zuen marra zuzena idorotzen, noraezean gisara zebilkion eta, beste behin, ozta-ozta libratu zen zirritu aldea arras hondatuta ez ahitzeko. -Goazen lagun, -esan zion Bixenteri-, nahikoa dut gaurkoz, zoladura higitzen antzematen dut. Laguna bera bezain errekaratuta zegoen. Ardandegiko ateetan bereizi ziren nor bere aldetik bizilekura abiatzeko.

Handik aurrera, betiko antzera, Matiassek bakarrik ibili zuen hordialdia. Langelarako bidea egiten saiatu zen. Eskerrak enpresagatik egiten zuela; beti enpresagatik, bestela inondik inora ere ez. Amaigabeko betiko lelo berbera. Nork bere burua zuritu behar, jakina. Egoera hartan, bizitegia askoz ere hurbilago izanda ere, hara joatea zaila egiten zitzaion. Lana pilatzen zitzaionean, orduan bezala, berarentzat desiragarriagoa zen bulegotxoko sofan ordu batzuk lo egitea.

Gogoetak bata bestearen atzetik zetozkion, baina albaindu barik. Ideia solteak ziren, elkarrekiko inolako erlaziorik gabeak. Ezustean, zenduaren izena ekarri zuen garunera, jarraian Bixenterekin izandako solaseko Alfredo eta Lukas gaixoak. *Denboraz ez badakizu gelditzen, dagokizun beta baino lehenago helduko zaizu gainbehera*, pentsatu zuen. Horren ostean, beste ezertan erreparatu gabe, Sara heldu zitzaion gogora; betaurreko beltzekin ikusten zuen. Pairatzen zegoena irudien segida bat zen, nolabait etenik ez zuen jarraipen batean zetozkion mihiseak ziren. Supituan, bere baitan eiterik gabeko Xalbador nabarmendu zitzaion eta burutapenari hastapena eman: *Nor da tipo hori? Adin berekoak izanda elkar ezagutu behar dugu. Gure hiria ez da hain handia ba!* Jarraitu zuen pentsakor. Algaraka hasi zen. Bere buruari egiten zion barre. Batzuetan karkara eta deitorea elkarrekin eskutik iristen zitzaizkion. Etorkizun bikaineko bidean dena hankaz gora bota eta zerotik hasi, horixe zen egin zuena; jasan ezinak ekartzen duen ordaina, baina eroetxean ez amaitzeak ere pila bat balio du eta, ez hori bakarrik, duintasuna

ezinbestekoa da aurrera egiteko, bestela zertan bihurtzen da gizakia: itzaltsua, otzana, norbaiten menekoa alegia, nortasun gabea. Supituan izebaren, bere amaren ahizparen irudia erretratuaren erara ekarri zuen gogora eta hark sarri esaten zuena gomutatu zuen, hots: *gizakiak nolabaiteko harrotasuna izan behar du, bestela zer?* Estresa, antsietatea, depresioa eta kronifikazioa; bizitza osoa farmaziari begira egotea. Eskerrak! Bizitzeko beste aukera bat. Bizitzaz goatzeko beste era bat.

Ustekabean Mikelen atartera heldu zela jabetu zen, ordea, ez zegoen inorekin egoteko legez eta aldatu zuen noranzkoa. Bere oinekin behaztopatu zen. Ozta-ozta lortu zuen automobil baten kapotean bi eskuak ezartzea. Tente jarraitzeko antsiaz, belaunak bihurritu zitzaizkion. Ez zen zorura amildu. Ez zuen kalean gora egitea nahi, aldiz, beste aukerarik ez. Nasaitu zen begiestean bera ez zela karrikan higitzen zen kaltetu bakarra. Bere aurretik igaro zen hirukotea animatu zuen. Ez zuen entelegatu esan ziena. Berak ere ez zien ulertu besteek bota ziotena. Gaitzerdi. Batzuetan egoki ahoskatzea zein zaila egiten den. Alaitu zen. Irribarretxoa ezpainetan agertu zitzaion.

Aurrerago batzuk ukabilka eta auska. Ze arraroa. Matiasek espaloia aldatu zuen. Borrokak ikusteaz aspertuta zegoen; soilik norbaiti argibideren bat atera behar zitzaionean egiten zuen halakorik, eta gogor gainera. Betikoa, beharrak aharra.

Zertarako balio izan zait pertsona azkarra, bizkorra, argia, ernea izatea? Deblauki bere burmuinaz jabetu zen, eta tximistaren abiaduran, film bateko fotogramen erara, bere berrogei urteak borondearen aurretik iragan zitzaizkion. Galduta zegoenaren irudia iritsi zitzaion, baina, aldi berean, harro sentitzen zen. Begi ertzetik malko ale bat ilki zitzaion; soilik bat. Ez zen konturatu tantak masailetik beherako zidorra azaltzen zuela. Negar anpulu gazitua idunera heldu orduko leitu zitzaion. Izotzaren irudirako soilik ahuleria arraro bat.

LARUNBAT GOIZA

5

Detektibea goizdanik iratzartu zen. Behatu zuen ingurua. Bere mahaia eta Luziarena begietsi zituen. Gainetik burusia zuela sofan zegoen etzanda. Egunari bisaia eskaintzeko kafea behar zuen, ezinbestez. Ordu batzuk lehenago tabakorri paketea non laga zuen oldozten ezarri zen. Ez zuen galerarik, kafea egiteko mahaitxoan. Jaiki zen eta paketetik geratzen zen zigarro bakarra eskuratu zuen; bertan isiotu zuen. Aurrenengo ke-ahokada botatzen zuela, kafea ipintzen zuen latoizko potea zabaldu zuen. Apenas geratzen zen koilara txiki bete. Okertu zuen muturra eta bitan atera zuen ahotik eztul faltsua. Kafetera elektrikoari ura ipini zion. Zakarrontzian bezperako kafe hondarra; garbi zegoen; ez zegoen zigarrokinik. Halabeharrezkoa zuen kafea, baina etorri zitzaion pentsamenduak manatu ziona ekidin zuen. *“Oraindik duintasun apurra gordetzen dugu, laster beharbada horixe ere ez”,* garunean bueltaka.

Ezkaratzetik karrikara jalgi zenean, hotzak izotzaren erara eman zion bisaian. Burua ipar lurburuko blokea egin zitzaion eta orbaina. Bekain gaineko ebakiondoa min ematen hasi zitzaion. Erdi horditurik ibilitako gau batean jipoitu zuteneko oroitzapena; gomuta mingarria; aurpegiaren mirailean bizitza osorako izango zuen bezuza. Eta oraindikarren ikusten zitzaizkion orbaindutako jostura puntu haietan ospitalea islatzen zen eta, bizitzak zein azkar egin dezakeen batetik besterako bidea, instant batean dena amaitu daitekeena, den dena zein erraz amildu daitekeen hondamendira. Mozkor erdi batek nola ezarri dezakeen dena hankaz gora. Eta zibilizazioaren gainbehera eta baloreen galera, errespetuaren eza, eta lana galtzea, eta beste behin zerotik hasi beharra.

Tabako dendan barneratu zen. Mutuak beti bezala agurkatu zuen, hots: behera so eginez. Ez zen mintzogabea, mutuak egiten omen zuen berriketarik, ordea, inork

ez zekien norekin erausten zuen. Edozein paper zati batean zenbakiak bakarrik idazten zituen, salneurriak bezeroari adieraztekoak, alegia. Apaletik euskarazko egunkaria jaso, amerikar zaporeko zigarro paketea galdatu eta erabilera legaleko hamarreko billetea mostradorean ezarri zuen. Mutuak diru-paperaren aldamenean gainerakoak itzuli zizkion eta hamarrekoa bereganatu. Matiasak ez zuen hitzik laga eta karrikara jalgi zen.

Zigarreta irazeki ondorik, beherantz abiatu zen. Floridako parkean barruratzeko asmotan, Legebiltzarreko eraikinaren ondotik zihoan. Gogoetak atondu behar zituen, baina bazirudien oraindik gaueko ardoarekin zituela, ez bait zitzaion bat bera ere buruko muinera iristen.

Jendea batetik bestera oinez zebilen, osasuna jagon gurean. Ikertzaileak Sara Bidart andrearekin hamaiketarako zuela hitzordua oroitu zuen. Oraindinokarren goiz zen. Aurrerago errumaniar aguretxo batek akordeoia jotzen zuelakoaren hatz mugimenduak egiten zituen, hala ere anplifikadoretik aditzen zena ez zen berak jotzen zuena, hatz mugimenduak eta doinua denboraz ez zetozelako bat; aire triste eta baldarra. Orohar pena ematen zuen. Nekez, ahalegina egin zuen eskua poltsikoan sartzeko, baina saioa hutsean geratu zitzaion eta, noski, haren orde, -denok gabiltza izorratuta, lagun, -nahi gabe, ahots baxuan atera zitzaion. Ez zuen etorbide nagusira joan nahi eta ezkerrera biratu zen, La Senda tabernarantz bideratzeko. Kafe bat behar zuen.

Hiru neska-mutilekin zihoazen bi emakume igaro zituen. Seinak algaraka ipini zitzaizkion. Ez zen harritu, bizarra egin gabe, ileak bakoitza punta batera begira, trajea zimurrez beterik eta lohi. Pailaso baten jasa izanda nola ez dira umeak barreka hasiko, noski, errukirik izaten ez duten izaki txikiak, umeak hobeto, hori baino askoz gutxiago behar izaten dute karkailaka lehertzeko. -Ederto, zuek, -bat-batean, bere baitara etorri zitzaiona ozen bota zuen eta langelara bueltatzeko oinetan egin zuen bira. Otu zitzaion itxura apur bat jagon behar zuela. Kafeak gerorako iguriki beharko zuen.

Bere aitzinean patinete gainean zihoan gazte batek edadeko andrazko bat lurrera bota zuen. Mutila ez zen ekuratu, lehen baino bizkorrago alde egin zuen. Andrea ezin zen zorutik zutitu. Laguntza ematera hiru-lau pertsona hurbildu zitzaizkion. Handik aurrera, ez hain asago, adineko gizonezko batek besoa luzatzeagatik patinetekoa astigar zuri eta lodi baten kontra kolpekatu zen. Bekaineko ebakiduratik odol joria isurtzen zitzaiola begiesten zen. Gizonak arin alde egin zuen eta gaztea ezin zen lurretik jaiki. Bizitzaren kontuak: egiten denaren ordaina beti. Urrunago jendetza bola bat egiten zuela begiz atzematen zen. Auto batek zebra-bidetik pasatzen ez zen neska bat kolpatu zuen. Neskatoa zoruan ahoz gora etzanera zegoen eta beribileko gidaria behingoan jarri zen gaztea sorosten. Bertatik, ez hain urrun, udaltzainen sirena hotsa aditzen zen; heltzear ziren, baina beti bezala bost minutu beranduago; protokoloaren kontuak, ziur.

Matias Andra Mari Zuriaren plazatik gora zihoan, gero San Frantzisko aldapatik bulegorako bideari ekiteko. Lanlekuko ataritik hurbilen zegoen tabernan kafe hutsa eta Goya bat galdatu zuen. Nekeak ahituta zegoen.

Eskailerak igotzen hasi zenean gogora ekarri zuen igaro gauean Bixenterekin edandako soberako alkohola eta zigarro pakete osoa erre zuenekoa. Haren gorputza sekulako unadurak beretua zuen. Geratu zen. Eskilararen lehenengo atsedean lekuan jesartzea ebatzi zuen. *“Itxuraz dena lasai dagoela ematen du”,* oharkabea pentsamendura agertu zitzaion. *“Etzanaldi egun bat izango dugu edo hutsartea laster jauzika hasiko?”* Bere baitan bildurik, burmuinera heldu berri zitzaiona gogoeta berberak ezezten zuen. Nekez egin zuen langelako sarbideraino eta besaulkiaren aldamenera heldu zenean gorputza atzeraka bota zuen gainera.

-Kontxo, hildako bat, -esan zuen Luziak, harriidura aurpeirik gabe. Soilik ziren egun batzuk detektibearen bulegoan lanean hasia zela eta, jada, bazekien bere ugazaba nor zen.

Matiasen ez zion ezer ihardetsi. Besaulkira hobeto egokitzeke, gorputzak batera eta bestera zirkin bat egin zuen. Eraildako bat ikertu beharrean eta ez zuen adigai bakar bat ere nondik abiatu behar zuen. Bakarrik errumaniar akordeoi jolea jaugin zitzaion kopetaren aurrera. *“Zelan izan dezake jende batek horrenbesteko azal lodia, eta gainera dirua erregutu; ez da posible. Dena da iruzur galanta”!* Soilik horretan pentsatzeak suspertu zuen. Jaiki, jaka kendu eta bizarra egitera pasabideko komunara ateratzekotan zenean:

-Kafe usaina, ezin dut sinetsi!

-Ia, dirua behar dut. Matias, dirua behar dut eta ez nago txantxetan. Txanpon bat ere ez daukat. -Luziak erabat haserre zegoenaren begitartea agertuz.

-Zenbat behar duzu?

-Eman laurehun hasteko.

-Tori bostehun eta datorren hilera arte tutik ere ez!

-Eta soldata?

-Gaur laugarren eguna eta soldata eske zabiltza?

-Ez, jakin nahi dut, akordatu bezala, soldatarik izango dudan, edo lana bilatzen hasi beharko naizen? -Ihardetsi zion langileak.

-Ezezikorik esan dizut?

-Ez.

-Ba, orduan?

-Ia, aldatu itzazu soinekoak tintoreriara eramateko.

-Ikertzaile sartu nintzen bizitzan beste aukerarik ez zitzaidalako geratzen. Eta badakizu gauza bat? Ba, titulua tonbolan lortu nuela, gure ofizioan dabilen mundu guztiak bezala, jakina; gertatzen dena da, ba, batzuk sariak ematen dituzten elizara joaten direla. Eta orain bota iezadazu daukazun beste galderaren bat edo isildu zaitez betiko.

-Ia, kendu itzazu behingo batez arropok kiratsa darie eta, -Luziak osterera ere agindu zion.

-Badakizu zergatik apurtu genuen emazteak eta biok?

-Ez.

-Emazteak nik neraman ikertzaile bizitza ez zuelako jasaten; bizimodua erabat egiten dut gauez. Berarekin ez nuen konpromiso handiegirik. Ikertzen nituen kasu batzuetatik mehatxuak jasaten nituen. Badakizu, gure ofiziokoak bizitza erabat izarigabea dabillkigu. Lan asko eta diru gutxi. Mozkorrak sarri. Guzti hori izan zen berak ni pikutara bidaltzeko arrazoia. Argi geratu zaizu?

-Bai.

-Ba, horixe dago hemen! Gutariko bakar bat ere ez litzateke sekula ezkondu beharko; kaka mokordoa, denok berdin esaten dugu. Ia, Luzia, gauza bat egin behar duzu.

-Zer, esan!

-Azken asteko lau egunkariak, badakizu zeintzuk, erosi eta goitik behera irakurri. Gauzaren bat deigarria dela begiesten baduzu idatzi zein egunkaritan eta zein orrialdetan azaltzen den. Beste gauza bat: aztertu eskela guztiak. Azken zazpi egun hauetan zenduak nortzuk izan diren eta euren nondik norakoak jakin nahi ditut; euren bizitza eta bizi izan diren artean egindako dena; zehatz-mehatz, badakizu.

Matias gorputegira iritsi zenerako, Sara Bidart sarbidean iguriki zuen. Egin behar zuena egiteko, alai-edo antzematen zitzaion, nolabait bere senarra zendu izanak poztuko balu bezala. Ezpainak irribarre arinaz tindatuta zituen, ilea kiribilak egitera, traje beltza, bota beltzak, zisne-lepodun jertse beltza eta gainetik arean distira ematen zuen beroki gris iluna, eta, egiten zuen gehiegizko argitasunetik babesteko, Isabel Marant markako betaurreko beltzak. Emakumeak “kaixo” batekin agurtu zuen Matias.

-Kaixo, Bidart andrea.

-Eguraldi gozoa gaurkoa. -Sarak.

-Bai. Ia egun osoa horrela egiten duen!

-Ondo legoke.

-Bai. Sara, arestian hots egin dut eta esan didate Aitor Ruiz de Azua forentsearekin egoteko hitzordua duzula.

-Bai, bart gauean, zurekin egon ondoren, egin nuen lehen gauza izan zen. Gainetik geratuta geunden ordua errespetatu didate; hortaz, barneratu gaitezke.

-Ea, goazen! -Matiasek.

Harrera-lekuan, beltz zurixka egiten zuen marmol mostradore luzangan, andrazko administrari gazteak beharrezko azalpenak ematen zituen; besteak beste, otzana ere bazen eta zorrotza argibideetan. Bidart andreak bere izen abizena esan zuenean, itxaroteko apur batean erregutu eta telefonoz deitu zuen. Iguriki egon beharra ez zen luzatu. Aitor forentsea minutu eskasera azaldu zenean, andrazkoari bostekoa emateko eskua luzatu zuen.

-Egun on, Bidart andrea, -esanez eraildakoaren emazteari diosala egin zion.

-Egun on. -Sarak hotz erantzun zion.

Matiasi ere eskua estutu zion esanez: -Matias guk biok elkar ezagutzen dugu, ezta?

-Bai, zoritxarrez esango dut elkar ezagutzen dugula.

-Zoritxarrez diozu hemen ezagutu genuelako elkar?

-Bai, ba!

-Beno, hemen hauxe dago, egia da, baina hala ere beharrezko gauzak egiten dira. Bai, egia da heriotzari lotutako gora beherekin gabiltzala, jakina; alabaina, hemen lagundu egiten dugu jakiten zein egoeratan joan zaigun familiakoa, laguna edo ezaguna, edo eta ezezaguna, pertsona, alegia. Gure ofizioan galderen erantzunak xerkatzen dira. Zein egoeratan, zelan eta bestelako xehetasun guztiak bilatzen aritzen gara, justiziari baliagarriak izango zaizkionak, errudunik balego zigortua izan dadin edo daitezen. Zergatiak eta holakoak, epaitegietako kontuak izaten dira, edo batzuetan gureak baita.

-Ados gaude, jakina da, Aitor. Baina goazen Xalbadorren gorpua begiestera eta, bide batez, zer edo zer esan beharko diguzu, ezta?

-Beno, badakizue kasuaren sumarioa sekretupean dagoela.

-Bai, jakitun gara. Hala ere, badakigu zenbait gauza esatera behartuta zaudetela.

-Bai, hala da, Matias, eta ahal dudan neurrian azaltzen saiatuko natzaizue.

-Eskertuko genizuke, -Sara bien arteko solasaldian sartu zen.

-Ederto, goazen ba! Etor zaitezte. -Forentse eta patologoen lana egiten zen aretora barruratu aitzinean, bazegoen estres gutxiagoko gela bat, nora familiartekoek ikus zitzaten zenduak eramaten ziren-. Ia, itxaron apurtxo batean, gorpua hona ekarriko dugu eta-. Apenas iragan zen denbora. Aitzinetik, Aitorrek ateak zabaltzen zizkiola, gurpildun kamila arras berrian, maindire zuriaren estalpean, laguntzaileak Xalbadorren gorpua zekarren. Aretoaren erdian utzi ondoren, auzitegi-medikuak gerturatzeko erreguarekin batera, izara osorik kendu eta gorputzeko alderik intimoena estaltzera jarri zion. Sara Bidartek ez zuen inolako sentimendurik

azaleratu. Defuntuaren aurpegia begira izoztuta bezala zegoen oinak lurrari irmotuta.

-Ezertan hasi aurretik, Bidart andrea, baieztatzen du berorrek Salvador zenaren gorpua hauxe dela? -Aitor Sararen fermutasunaz jabetu zen.

-Bai, forentse jauna, hauxe da nire senarra izan dena. Hauxe da Salvador Palomeras Ruiz.

-Hortaz, egiaztatuta geratzen da gorpuaren ezagutza. Agiri hau sinatu behar duzu eta gero horren kopia bat emango dizut.

-Bai. -Sarak klisk egin gabe.

-Beno, ba, has gaitezen, -bota zuen forentseak.- Gorpuari behatu aitzinetik, non, nongo herritan eta zein eratan kausitu den argitu beharko dizuet, -erantsi zuen eskuetan zueneko txostena behatzen zuela.

-Bai, hori sinez axola zaigu, -Matias bizkortu zen esatera.

-Xalbador duela bi egun Zeanuriko udalerrian, Saldropoko hezeguneko interpretazio gunean kausitu dute. Biluzik zegoen, egurrezko gurutze bati plastikozko bridekin lotuta, Kristo bedeinkatua gurutzean eskegi zuten erara eta Atxuri haitzera behatzen dagoen leihatilari begitartea ematera. Jakina egingo zaizue Atxuri haitza, hiruki itxura duen Gorbeiaaren iparraldera ematen duen aurpegia dela.

-Bai, hortik ibilita nago, -esan zuen ikertzaileak.

-Bai, ni ere gaztetan ibilia naiz Gorbeian; Arraban, Egirinaon eta zenbait aldiz gurutzean ere bai. -Gaineratu zuen Sarak.

-Ederto. Ekin dezagun, -forentseak xehetasunetan barneratzeko desioarekin-. Zelan hil duten? Ba, bistakoa da ezta? Altzairuzko kable batekin ito egin dute eta, gainera, iduneko erara zuen saman ezarrita. Kablea bizikletak izaten dituzten horietako bat da. Ausartuko naiz beste gauzatxo bat ere esatera, alegia, bertan ez

dutela hil; azken arnasa beste tokiren batean eman ondoren, bertara garraiatu dute, ezagutarazi dizuedan bezala Saldropon kokatzeko. Beraz, eszenaratzea egin dute; badakizue, bazekiten zein erretratu erakutsi gura zuten. Eta ezin dizuet gainerakorik esan. Hauxe da oraindik jakitera eman diezazuekedan guztia.

-Eskertzen dizugu forentse jauna, -esan zion Sarak.

-Ez horregatik, Bidart andrea, horrexetarako ere bagaude.

-Agur, -Sarak.

-Agur, Aitor. Ia hurrengoan beste leku lasaiago batean elkar ikusten dugun, ardo bat edateko-edo. -Matiasek.

-Beti izango da interesgarri berriketa apur bat, -forentseak.

-A, Aitor, gauzatxo bat: noiz atera dezaket Xalbadorren gorpua hileta egiteko? - Galdetu zion Bidart andreak.

-Ba, nik uste bihar, etzi arratsalderako-edo atera dezakezula. Baina nahi baduzu, baieztatzeko telefonoz deitu diezazuket.

-Eskertuko nizuke.

-Horrela egingo da.

-Kafe bat behar dut, Matias. -Sara Bidartek erregu eran Matiasi.

-Bai, nik ere bai, eta zeozertxo gehiago ere bai. Sara, orain kontuak arrapaladan helduko zaizkizu. Aurki ertzainak etxera joango zaizkizu galdeketa egitera, edo deituko dizute komisaldegira gerturatu zaitezten. Ahalik eta xehetasun gutxien eman behar diezu. Aditzen didazu?

-Bai, zelan ez dizut aituko ba, Matias. Horrexetarako kontratatu zaitut. Zer esan behar diet?

-Galdegingo dizute ia dakizun duela bi gau nora joan zen.

-Ba, egia esango diet: ez dakidala. Afal ondoan, bederatziak aldera kopa bat edatera jalgi zela. Asteazken gaua zen eta ez nion inolako susmorik hartu. Badakizu eguazten gauetan ardandegietako giroa alaituz hasten dela, ezen ostegunetan ikasleak ateratzen dira eta dena leporaino ipintzen da; hurrengo egunean asteburua dator. Horixe da hiriaren gaueko bizitza, ezta?

-Jakina. Begira, Sara, bi gauza hartu behar ditugu kontutan, elkartuta kausitu direlako: bata, biluzik buztana agerian azaldu dela, eta bestea, Atxuri. Atxuri haitza izan daiteke, hori ematen du aditzera, baina Bilboko auzo historiko bat ere bada, zazpi kaleei sarrera egitera dagoena. Donostiatik, Durangaldetik, Bermeo, Gernika eta abarretik datozen trenak hortxe amaitzen zuten ibilbidea. Orain arte esan didazuna aintzat hartzen badugu baliteke gaztaroko jazoera baten aurrean egotea. Ziurtasunez ezer esateko oraindinokarren goizegi da, baina era horretako zeozer barrundatzen nago. Bai, egia da beste inguruabar baten ondorioa ere izatea eta, gainera, mezu argi batekin, hots: “biluzik utziko zaituztegu”. Baina horri jaramon egiten badiogu zu ere tartean egongo zinateke eta, ez dut uste, bi hiltze hauen arrazoinamendua horrantz doanik, edo, behinik behin, ez dut hori pentsatu nahi; usnak agintzen dit lehenaren aldeko dema egitea.

-Ez dakit zer jazotzen ari den eta burua noraezean bezala dabilkit. A, Matias, ahanzten zitzaidan, atzo eskatu zenizkidan bi erretratuak. Tori!

-Xalbadorrena eta, beste hau, gaztetako bere kuadrillako lagunekin. Argazkiko lagun guztiak ezagutzen dituzu? -Matiasek bi potretak lazturaz begiratuz.

-Bai. Zelan ez!

-Sara, gauza bat egin behar duzu. Irudiko pertsona bakoitzari oinetan zenbaki bat ipini eta folio batean numeroaren ondoan dagokionaren izen abizenak, helbidea, telefonoa eta dakizkizun xehetasun guztiak. Xalbadorren bizitza ezkutua ezagutu behar dugu, batez ere gaztaroko gorabeherak.

-Egingo dut. Biharko edukiko duzu.

-Aitzinatzen joateko, orduko eta egungo Xalbadorren lagunik onena zein izan da? Badakizu? Arakatzen hasteko ezinbestekoa zait zer edo zer izatea.

-Joaquin esango nuke. Gaztetan lagun handiak ziren eta bizia galdu duen arte sarri geratu izan dira hurrupaka ibiltzeko, edo afaltzeko, edo horrela.

-Joaquinen deitura, bizilekua eta telefono zenbakia?

-Abizena orain ez dut gogoratzen, baina badakit no daukadan. Helbidea eta eskatzen didazun numeroarekin batera, hiru eskaerak etxera heldu bezain laster WhatsApp-ez bidaliko dizkizut.

-Lagun taldearen burua Xalbador zela esango zenuke?

-Nire ustez oilarrez beteriko saldoa zen. Eta bai, Xalbadorren hitza denek errespetatzen zuten. Gehiago oraindik, zendu den arte berak esaten zuenari men egiten zioten.

-Ederto. Beste gauzatxo bat: zelan daramazu hiletaren kontua.

-Ba, ez dakit noiz izango dudan gorpua lurperatzeko baimena.

-Errausketa-labea ez?

-Bai, ehorzketa esan nahi nuen. Gero sua.

-Elizatik?

-Ez. Azken agurra erraustearen ondoren egingo diogu. Gauza intimo bat izango da, publizitaterik gabea eta lagun artekoa.

-Hobeto.

-Telefonoaren seinalearekin hasi behar dugu. –Bota zion Lakua lankideak.

Nereak ez zuen anitz ordu behar izan taldera egokitzeke. Heldu berri zen hiriburura eta Canciller Ayala hotelean aurretiaz erreserbatutako gela bat zuen. Lauko araldea zen hilketak arakatzen hasi berri zena eta bera haietariko baten urgazle zegoen buru-belarri, Lakua ezizenez ezagutzen zenarekin bikote.

-Orain?

-Bai, Makua, orain abiatuko gara zenbait ikerketa egiten, baina beste kontu batzuetarako epailearen baimena behar da eta hori ere bagaude igurikitzen.

-A, noski. Aizu, Lakua, Xalbadorren emazteari galdeketa egitera ere joan beharko da, ezta?

-Bai. Zu hona iritsi baino apurtxo bat lehenago betekizun hori taldeko beste biri manatu zaio. Gu telefoniaren datuekin jardungo gara eta hortik idokitzen duguna aztertu beharko dugu, denbora izaten badugu, ezen laster burutu beharreko kontuak pilatuko zaizkigu; ikusiko duzu sarean zenbat datu aztertu beharko ditugun. -Lakua Nereari, apurka-apurka, ikerketako bide desberdinen ardurak zelan banatuta zituzten azaltzen ari zitzaion. Nerea nasai zegoen. Lehen aldia zen beste eskualde bateko kideekin lankidetzan zebilela eta aukera ezin hobe ikusten zuen guzti hartatik aparteko eskarmentua ateratzeko.

-Oraintxe lehenengoz telefoniaren kontuetan arituko naizela, -zioen Nereak.

-A, bai? Ba, ni aspaldian nabil holakoetan. Beti izan dut gogoko honelako bideak arakatzea. Sarean anitz aukera dago burutu behar duguna gauzatzeko eta diru gutxirekin lortu daitekeena, pribatuetan alegia, baina guk bide ofizialak bakarrik jarraitzen ditugu eta, gainera, zerbait gehiago behar dugunean, ba epailearen babesa daukagu. Ikusiko zenuen pelikularen batean, "CSI" edo "Bones" edo horrelakoetan zer atera daitekeen, ezta? Bai, egia da, ikusten dena fikzioa dela, baina erabat hurbiltzen da errealitatera.

-Jakina Lakua, baina ez dut egundaino tamaina honetako ikerketa batean parte hartu. Zu egiten zabiltzana gurean beste talde baten eskuetan dago. -Bota zuen Nereak halakoan zuen interesa erakutsiz.

-Ba, begira Makua, hasteko bi egiteko finkatu behar ditugu: bata ikerketari zein ordutatik aurrera ekin behar zaion eta, bigarrena, beno, bigarrena, luze joango da, ezen oraindik ez dakigu telefonoa dabilen edo zapuztu duten. Zenduaren emazteak esandakotik dakigu, asteazken gauean etxean afaldu ondoren, bera bakarrik, bederatziak aldera kopa bat edatera ilki zela. Nora? Andreak ez daki. Bada, arakatu behar dugun lehen kontua zera da: bizilekutik jalgi ondoren defuntua nondik nora higitu zen. Gero, jakingarria iruditzen zaigun ordu zehatz batetik honantz izan dituen mezuak, bai WhatsApp-ez zein beste sare sozialetan ikuskatu beharko ditugu. Horren ostean, sistemak erabiltzen duen teknikaren barru barrura murgilduko gara. Horrekin erdietsiko duguna zera da: smartphonak informazio iturri direnez, Xalbadorrenak zer berri duen jakitea eta, halaber, hodeian izan lezakeena. Goitik behera ikuskatu behar dugu. Gero telefonoaren eta antenaren artekoaz arituko gara. Mugikorra hegazkin eran izanda, zein itzalita egon, beti dago antena bati lotuta. Jabetu zara gaur egungo sakelako telefonoei ezin zaiela bateria kendu, ba horixe da gertatzen dena: komunikazioa ez dela eteten.

-Urte asko daramazu horrelako kontuetan, Lakua?

-Bilbon, San Mamesen egin nuen Teleko. Amaitu ondoren lehen deialdira aurkeztu nintzen eta gorpuan sartu. Harrezkero beste kontu batzuekin batera, beti nabil ikusten duzun honelakoetan; atsegin dut. Gero, ba beno, batzuetan ikerketa jarraitzen karrikara ere ateratzen naiz; ahal denean soilik.

-Gustatzen ari zait. -Nereak.

-Begira, telefono guztiek, sakelekoak jakina, bi sistema eragile izaten dituzte. Bata erabiltzaileak ikusten duena, hau da: Android, iOS edo dena delakoa, eta, bestea,

telefonoa antenarekin lotzen duena. Bigarrenera ezin gara barneratu, bakar bakarrik sistema eragilean. Horrela dagoz gauzak.

-Eta menderatze horretatik ilkitzeko guraria badugu egin dezakegu zerbait?

-Aukera bakarra mailuz joka suntsitzea edo faraday kaiola batean ezkutatzea, hau da: izozkailu batean, zilarrezko edo aluminiozko paperean biltzea edo horrelako zeozer. -Lakuak.

-Eta telefonoa non dagoen jakiteko. -Nereak.

-Bai, begira. Horretarako ezinbestekoa da mugikor hori hiru antenarekin lotuta egotea. Horri antenen bidezko triangulatzea deitzen zaio. Eta hori egiteko ez dugu epailearen baimenik behar, beraz oraintxe hasiko gara. Antenek badakite sakeleko telefonoa zein distantziara dagoen, hortaz hiru antenatara estekatuta badago zehatz-mehatz jakingo dugu zein ordutan non egon den, hau da: mugikorraren kokaleku erregistroa lortuko dugu. Jakingo dugun beste gauza bat zera izango da: zein ordutan zenbat telefono egon diren ikertzen gabiltzanaren ondoan; beraz, hortik ere ekin beharko dugu arakatzen. Baina, eta beti dago baina bat, gerta daiteke mugikor hori une batetik aurrera Xalbadorren eskuetan ez egotea; kontuz ibili beharko gara.

-Holakoak teorian soilik nekizkien, baina orain nabil ikusten praktikan zelan ikertzen den. -Nerea interesaturik.

-Beno, beste gorabehera bat ere aintzat hartu behar dugu eta horrekin jakingo dugu hiltzaile horien maila nolakoa den. Pluralean nabil, ezen aditzera ematen du, jazoera horren atzean talde bat dagoela eta, horrela ez bada, aginduak bere nahierara ematen dituen botere handiko norbaitek ezkutuan ondo daki hariak mugitzen. Esan nahi dudana da elementu horrek ez duela zertan talde osoarekin bildu behar. -Lakuak aurrean izan zezaketen egoera argitzen.

-Nora joan nahi duzu? -Nereak ustezkoa zitekeena azken muturreraino eramateko asmoarekin.

-Ba, xerkatzen gabiltzan horiek zuhur jokatzeko badabiltza, hilketa burutzera joan zirenean ez zuten inolako tresna elektronikorik eramango, ez mugikorrik ez bestelako ezer.

-Hain artatsuak izango dira? -Nerea zalantzan.

-Ba, erne ez badabiltza azkar harrapatuko ditugu, baina nire ustea da horrenbeste badakitela, edo jakin beharko luketela. -Lakuak susmoa zuen eta gainera eskarmentua.

-Lakua, kalera jaigiteko antsiaz beterik nago. Ia, goazen Xalbadorren mugikor horrekin.

-Lasai, karrikara astia izaten badugu bakarrik. Hemen daukagu. Makua, ikusten duzu?

-Bai.

-Matxete plazan denbora ematen du, gainera, Mikel deunaren elizatik hurbilen dagoen tabernan. Honekin batera erregistroa jaitsiko dut jakiteko Xalbadorren telefonoa zein ordura arte nondik ibili den eta zein ordutan itzali den, amatatu bada, jakina. Gero gaueko hamar eta erdietan mugikor horren ondoan zeudenenak ere jaitsiko ditut. Badaukagu nondik ibili.

-Di-da batean zenbat berri eta zenbat gauza aztertu beharra. -Nereak.

LARUNBAT EGUERDIA

6

Bizitza bozkarioz asebeteriko xendra bat dela uste izatea egundoko huts egite baten aitzinean izatea bezalakoa da, edo, oraindikarren are gehiago, zuzenagoa litzateke esatea erroitz baten ertzean behera begira egotearen erakoa dela. Azken egunetan zenbat aldiz egin duzu irri? Gomutatzen duzu? Egia da horretan nonahiko gizartek anitz laguntzen duela. Lanera egun oroz joan behar izateak eta hantxe zeozer izan nahi duen bihozgabe baten manupean jarduteak edonori kentzen dio ezpainetan irriño bat azaleratzeko desira. Edo, beste horrena, hots: asagotik hobeki begiets dezaten, arekak hildakoz ase izan behar duena nagusitzat baduzu jai egun ederra zurea. Eta horrela, kasu onenean, ezen lanik ez baduzu, dirurik ezean lagunik ere ez. Bizipen horietan murgildurik egoteak akaso bozkariorako gonbitea litzateke? Baina hala ere oraino badago egoera hobeago bat: jubilatua izatea eta lagunekin aurpegia ardoz erabat gorritzeko eguerdia noiz iritsiko egonean izatea zio ederra dela ematen dit. Ez, ez hitz egin koloreei buruz, sakuaren barrenean denak bateratuta doaz eta. Bai, urte larregitan horrela higitu zara eta orain begira zelan zauden. Pentsatu zenuen bide zuzenera etorrita atzean utzitakoa estalita bezala geratuko zela eta inor ez zela jabetuko ezertaz, baina ez da horrela izan. Begira zer gertatu zaizun. Enpresa on bat lortu zenuen magiaz beterik zeunden eta. Diruak egin dituzu, gupidarik gabeko ugazaba fina izan zarelako. Baina berriro agertu da zure barruko herra eta aiher izateak badakizu ez duela barkatzen. Besteak baino gehiago zarela pentsatzeak ez dakar gauza onik, eta tranpan erori zara. Begiratu zaitez zelan azkendu zaren. Noiz izan zen hori. Esan behar didazu edo besteak ere zu bezala joango dira, ezen besterik bada, ezta? Bai, badakit baten bat haboro badagoela.

Hamabi hamahiru urterekin begiesten zitzaizun zenekarren moldea. Ez, ez zenuen ahaleginik egin behar, berez ilkitzen zitzaizun. Bai, egia da, zuk ez zenuela inor ezertara behartzen, zuk galdatzen zeniena euren guraria zelako gauzatzen zuten, euren nahia eta gogoia zen egiten zutena egitea. Alfa itxura urrundik antzematen zitzaizun, nahiz eta zuk ez zenekien horrek zer esan nahi zuen. Denbora joanez, jite hori emendatzen joan zitzaizun eta maltzurkeriatxoak gauzatzen hasi zineten. Ez ziren gauza garratzak, *“gazteen kontuak”* esaten zuen jendeak.

Uste zenuten nesken gainetik ibiltzea ohizkoa zela, mutilak zineten eta horrek nolabaiteko eskubidea ematen zizuen neskatoekin basati sartzeko. Begitantzen zenuten neskak mutilen esanetara egon behar zutela eta eurekin nahi zenutena egiteko eskudantzia zenutela, ezta? Baina ez neskatxekin bakarrik, bigunagoak ziren mutilekin ere, ezta? Begiesten duzu orain zer jazo zaizun? Begiak orbitatik ilki zaizkizu. Nola ez zaizkizu idokiko, ba!

Matiasen Xalbadorren erretratua mahaiaren hegalean utzi zuen.

Luzia sarlekutik barneratu zen. Ordu batzuk lehenago nagusiak eskatutako egunkariak zekartzan.

-Bazatoz? -Matiasen.

-Batzuk eskuratu ditut eta besteak eskatu egin dizkiot; bi egun barru helduko dira, edo bederen kioskoko andrazkoak hori esan dit.

-Nerea, forentseak korreoa igorri du esanez odol analisietan benzodiazepina kausitu diotela. –Agertu zion Lakua lankideak.

-A, Saldropon gorpua kausitu genuenean, gure forentseak lehen behaketan lepoan gorriunetxo bat aurkitu zion eta baieztatu zuen, eraila irato aitzinetik, zer edo zer xiringatu ziotela. Badio Benzodiazepinaren familiako zein farmako den?

-Bai, Midazolam. -Lakuak.

-Loak azkar hartzeko erabiltzen da. Esaten du besterik?

-Zuk esan duzuna eta, eragina, bi eta lau ordu bitartekoa izaten dela.

-Beraz, buruan erabili behar dugu lehenengo erdi lotan-edo egongo zela eta gero irato egingo zutela. Andrazko bat tartean? -Nereak Lakuari.

-Baliteke. Errazena horixe irudikatzea da. Emakumezkoaren engainamenduarekin norbaitek Midazolam xiringatuko zion. Baina, eta beti dago baina bat, begitandu behar dugu horiek armatuta dabiltzala -Lakua susmoetan sartuta.

-Eskuarki ez zen jabetu ere egingo. -Nereak argibide gisa.

-Uste dut ikerketa honetarako kide gehiago beharko ditugula. Eskaera prestatu behar dugu; beno, hobeki nagusiari esatea eta datorren batzarrean azkenengo datu hauek taldeko bilkuran azaltzea.

-Errezeten jarraipen elektronikoa egin beharko da, ezta?

-Eta gainera ospitaleetako. -Lakuak.

-Ikusten hasi naiz hemen lana zelan pilatzen den. -Nereak.

-Kaleko ikerketa egitea gehienetan beste batzuei utzi behar izaten zaie. Ikusten zabilta, ezta? -Lakuak.

-Nabarmena da. -Makuak.

LARUNBAT ARRATSALDEA

7

Forentsearekin Xalbadorren gorpua begietsi ondorenean, orduak zalantzakor eta anitz geldo abiatu ziren ibili beharreko zorua ezagutuko ez bazuten erara.

Matias egonean zegoen, irmo, denborari aurrera egitea galaraziko bazion legez, minutuak pasatzea gurako ez bazuen moduan, etortzekoak zirenak dena minduta uzteko asmoarekin hurbiltzen arituko baziren bezala eta, gainera, izututa zegoen. Hala ere, astiak ez zuen abagunerik hartzen eta, etenik gabe, segundoek hirurogeiko multzoak eginez, inoren errukirik hartu barik aida batean jaurti ziren.

Iluntzean, Matiasen telefonoa joka jarri zen. Eskuan baso bete ardo zuen ezpainetara gerturatzeko antsiaz. *“Lanagatik lehenengo lehenengoa eta gero eginbeharra”*, gogoeta egin zuen eta godaletekoari tragoxka bat eman zion. Jendez inguratuta bazegoen ere soil-soilik zegoen, bere bakartasunean isolaturik bezala. Ukipen-pantailari so egin gabe, deiari itsu-itsuan ihardetsi zion.

-Bai, Matias naiz, zertan lagundu zaitzaket!

-Matias, Sara naiz.

-Bidart andrea, zer gertatzen da?

-Begira Matias, oraintxe deitu dit Xalbadorren lagun baten emazteak esateko bere gizona hil egin dutela eta gorpua Urkiolan agertu dela. Etxera joan zaizkion ertzainek esan omen diote soinean izan duen nortasun agirian Felipe izena jartzen duela eta erretratua hildakoarena dela. Hala ere, ziur egoteko derrigorrezkoa dela hatz-marken ikerketa egitea eta, horrez gain, emazteak gorputegian bera dela egiaztatzea. Gaineratu diot deitzekotan nengoela esateko Xalbador ere hilik dagoela eta hileta zein egunetan egingo diodan. Gehitu diot, hilketaren gorabeherak jakiteko, zu kontratatu zaitudala.

-Badakizu Feliperen gorpua noiz agertu den? -Matias interesaturik.

-Atzo goizean mendigoizale batzuk aurkitu omen dute.

-Esan diozu Xalbadorren gorpua non agertu den?

-Ez dit denborarik eman. Karla txokean dago.

-Karla deitzen da andrea?

-Bai, Karla Dominique. Zure telefono zenbakia eman diot.

-Ondo egin duzu.

-Bera ere zu deitzeko dago.

-Ondo. Zertan lan egiten zuen Felipek?

-Aleman markako automobil salmenta eta konponketak ere egiten dituzten enpresa bat dute.

-Ederto. Gu biok biharko geratuta gaude, ezta?

-Bai, Matias. Hamaikak aldera kafe bat eta eramaten dizut eskatutakoa. Ia egina daukat.

-Oso ondo.

-Bihar, igandea, plaza nagusian, Andra Mari Zuriaren plazatik sartu eta ezkerreko lehenengo tabernan, ondo?

-Bikain, -Matiasek.

-Ordura arte ba!

-Bai.

Urrutiko kontu bat izango balitz bezala, zeruari begira zenbat egun emango zuen gomutatzea zaila egiten zitzaion eta, bat batean, lanak gainezka egingo zion

ardurak ikertzaile pribatua bortizki hartu zuen. Ezin zuen gogora ekarri azkenengoz kobratu zueneko soldata. Soinetik ezinegonaren azkurak kentzeko ahaleaginean, tabernako paretaren kontra sorbalda batera eta bestera igurtzi zuen eta, aldi berean, beste ardo bat eskatu. Korapiloa pentsatu baino konplikatua goa zetorkionaren susmoa hartzen hasi zitzaion. Hogeita lau ordu lehenago mataza azkar askatuko zuenaren iritzia bazuen ere, bigarren hildakoak eta, gainera, Xalbadorren laguna izanda, jokoz kanpo utzi zuen. *“Ia batera gertatutako erailketak dira, beraz agerikoa da pentsatzea nolabaiteko hantazioa daukatela. Biak egon dira zeozertan eta horregatik biak agertu dira hilik, eta bata bestearengandik inguru hurbilean; bata Atxurira begira eta bestea Urkiolako santutegiaren ondoan. Gurutzea, Atxuri, buztana agerian, Urkiolako santutegia. Eliza, Atxuri, sexua. Hori beldurra emateko kontua da. Ez da izango ba”!* Matias gogoetan ezarrita. *“Agerikoa da eliza endredatuta dagoela pentsatzea, edo baten batzuk bistakoa izan daitekeena nahaspilatzea nahi dute”,* gogoeta hutsen itsasoan ziharduen. Norbait kartak erakusten zegoen, baina oraindik ez zekien jokoa zein zen. Telefonoaren hotsak bere baitatik jalgi zuen.

-Bai, arratsalde on!, -erantzun zion deiari.

-Matias zara? -Telefonoaren beste aldekoak.

-Bai, zertan lagundu zaitzakete?

-Matias, Karla Dominique naiz, Sara Bidarten laguna.

-A, bai, arestian egon naiz berarekin hizketan. Esan, Karla, zerk kezkatzen zaitu?

-Begira, Matias, nire gizona Urkiolako santutegiaren ondoan hilik agertu da eta zure laguntza behar dut. Ertzainek esan didatena ez da gauza asko eta nik ere, Sarak bezala, neure kontura ikertzea nahiko nuke. Nire gizona eta Sararena aspaldiko lagunak izan dira eta horregatik ba, ez dakit zer pentsatu, baina zure beharra dut.

-Ondo dago, Karla. Noiz ikusi gaitezke.

-Oraintxe bertan nahiko nuke. Oso urduri nago eta lehen bait lehen elkar ikustea nahiko nuke; arren, Matias.

-Non bizi zara?

-Sararen etxetik bertara.

-Ba, zuon etxetik bost minutura nago. Nahi baduzu oraintxe bertan ikus gaitzke.

-Bai, bai, Matias!

-Dominique andrea, helbidea behar dut.

-Berehalaxe bidaliko dizut WhatsApp-ez.

-Harrantz noa, orduan.

-Bai. Eskerrik asko, Matias.

-Aurki helduko naiz.

Ikertzailea jalgi zen tabernatik eta oinez abiatu zen ustez Karla Domeniqueren bizilekua egon zitekeen aldera. Urratsa azkarrago ematen ipini zuen, berak ederki gogoratzen zuen gaztetako martxa nordikoan bezala. Ohituta ez badago zaila egiten zaio jendeari horrelako oinkada jarraitzea. Atera zen Andra Mari Zuriaren enparantzara eta begiratu zituen Mikel eta, baita, Bixente deunaren dorreak. Oso dotore zeuden gaueko argiekin. Ezkerrerago Keparena erdi ezkutuan. Telefonoak hots bat atera zuen; Karlaren helbidearekin WhatsApp-a zitekeen; horixe zen. Dato kalera abiatu eta aurreneko bidegurutzean eskumara zuzendu zen. Ez zuen nahi Dominique andrearen bizitegira artez joatea. Etor zitzazkiokeen arriskuetatik saihesten hasi zen. Osteratxo bat eman bezala, eskumatik bira egin zuen tren geltokiraino. Renfe geltokiaren pareko tabernara barneratu, ardo bat eskatu eta karrikara begira ezarri zen, hiru bat minutu-edo; ez zuen ezer susmagarririk begietsi. Idoki eta Datora barruratu zen beste behin, lehen baino pauso azkarragoak ibiliz. Hiru-lau alditan bueltatu zen begiesteko ia norbait jarraika zuen. Iban eroa; baffle cleaning; harrapakina eta jazarlea; ohizko kontuak.

Iritsi zen Karla Domeniqueren bizilekuko atalondora.

Atartean itaun bat. -Nora zoaz? -Ozpindua eta erretxindua ematen zuen adin ertaineko etxeko langileak aurre egin zion.

-Zuri ze axola zaizu, e? Beti bezala, kontuak ez dira aldatzen; lagun gutxi duenak mingotsa gainezka, -Matiasek berezko oldarkortasuna agertuz.

-Axola zaidalako galdetzen dizut! -Besteak.

-Ba, begira nazazu nora noan eta gero galdetu, baina itaundu behar diozunari, papau! -Matias gainezka eginda bezala zegoen; txantxetarako gogo gutxi zuela antzematen zitzaion.

Etxeko langilea muturra okertuta geratu zen. Ez zuen behar izan bezeroaren txirrina jotzerik, ikusi behar zuena sarbidean zuen noiz helduko.

-Kaixo, Matias, -Karlak gizonezkoa ikusteak lasaituko bazuen erara agurtu zuen.

Dominique andrea, esatearekin batera, Matiasek ikertzaile pribatuaren karneta erakutsi zion.

-Ez da beharrezkoa. Arren, sartu! -Karlak.

-Eskerrik asko, -Matiasek ziurtasunez.

-Zu honantz zentozen bitartean, berriz hitz egin dut Sararekin.

-Bidart andrearekin?

-Bai. Jesarri nahi duzun lekuan. Zeozer edateko? Primerako Hibiki-a daukat edo Napoleon-a be bai.

-Goizegi da niretzat, baina Hibiki-ari sekula ez nioke ezetz esango. Zuk edaten baduzu nik ere edango dut, apurtxo bat.

-Bai, nik be bai arean. -Karlak.

Karla Dominique aberatsa zen, berehalakoan antzematen zitzaion. Hogei eta hamar urte inguruko andrazko atsegina, begi urdinak eta adats horia, oso lisoa eta bekainen parera kopeta-ilea. Zentimetro bat gora-behera, metro bat eta hirurogei eta bost neurrikoa zen gorputz argalez jantzita. Giharrak markatzen zitzaizkion, ziurtasunez gimnasioan aritzen zenaren agerraldia. Mauka luzeko elastiko beltza, kolore bereko praka estu estuak eta zahar gelditu ondoren etxerako uzten diren dantzari-oinetakoak, beixak. Andrea argia zen eta bizkorra elkarrizketa jarraitzerakoan; bat-batean harrapatzen zituen baita airean zihoazenak ere. Gizonik gabe zegoela jabetuta zegoen, bereganatua zuen, baina ezinbestekoa zitzaion heriotzaren zergatia jakitea. Bizitzan harrotasunez aurrera egiteko, derrigorrezkoa egiten da zenbait gauza jagotea, ospea, baita maila, nola ez zer esana, enpresa eta gizarteak eskatzen dituen beste kontu guzti horiek, jakina. Horregatik eta horrexegatik bakarrik behar zuen Matiasen laguntza.

-Beno, Karla, berorrek badaki eraildako bat agertzen denean den dena galzorian ezartzen dela. Hildako pertsonaren inguruko guztiak egoera larrian ipintzen dira eta, horren ondorioz, muturra lar sartzen bada norbera ere kili-kolo ahitzen dela, eta kasu batzuetan arekaren batean seko azkendu ere bai. Jakina da hori zerendako jazotzen den. Ba, anitz itaun eta ihardetsirik ez delako egoten. Bada, biziki garrantzitsua da ahalik eta lasterren erantzunak xerkatzen abiatzea.

-Bai, Matias, guzti hortaz jabetzen naiz. Nahiko nuke, Saragatik egiten zabiltzana nigatik ere egingo bazenu. Garestiago ez bazait irteten Sarak emango dizun berdina ordainduko nizuke.

-Bai, horixe da, Karla. Badakizu lagun gehiago beharko dudala eta litekeena da, zure izen ona artatzeko norbait, beno, badakizu...batzuetan kontuak oso bortitz jartzen direla eta, beno, ba horixe. Hortaz, ez zaitut xehetasunetan nahasiko; geroz eta gutxiago jakin zeuretzat hobe.

-Entelegatzen dut. Tori, Matias, Hibiki-a.

-Anitz esker. Saiatu zaitetz nasai egoten eta utzi dena neure kontu.

-Bai, baina oso artaga nago. -Domenique andreak.

-Noski, ulertzen dut. Baduzu familiarik? Baduzu seme-alabarik?

-Ez, bakarrik nago.

-Gurasoak?

-Parisen bizi zaizkit.

-Bon. Gaurko gaua norbaitekin iragan beharko zenuke.

-Ez, lasai, badakit bakarrik egoten.

-Bai, baina...

-Eskerrik asko, Matias. Lasai, badut buruaren jabetza.

-Bon. Ez dakit xehetasunetan sartu beharko nintzatekeen, ezen Sarak eta biok elkarrekin maiz hitz egingo duzuen. Hortaz, badakit batari esaten diodana zuetarikoak besteari esango diola, baina zehazkizun bat aitzinduko dizut, hots: Xalbador Barazargo portutik bertara agertu dela eta Felipe badakizu; horrez gain, aldiberekotasuna ematen da. Ez dut inolako zalantzarik bi erailketen artean lotura bat dagoela esateko.

-Zuk uste duzu?

-Argi eta garbi. Areago esango dizut, Karla: Indartsua izan behar duzu. Kontua latsa da. Ahaleginduko naiz eginbeharrak ahalik eta azkarren burutzen, hedabideetara heldu ez daitezen saihesteko, baina... Arren eskatzen dizut gaurko gaua Sararekin-edo igarotzea. Karla, egidazu mesede hori; gaurko gaua bederen.

-Horrela galdatzen badidazu erregutuko diot Sarari berera joan naitekeen.

-Nasaitzen nauzu, Karla.

Feliperen erretratua eta sei mila euro jaso ostean, Matias Karlaren bizilekutik jalgi zen. Lasaitu ederra hartu zuen karrikara idoki zenean. Oso aberatsak zirenen etxeko usainak, lehenengo aldian, lehenengo aldian bakarrik gogaikarri

sentiarazten zuen; larrituta bezala; ez zen beste munduko konturik, baina horixe. Etxebizitzako sarbidean zegoenari ez zion aurpegira begiratu ere egin. “*Hobe horrela*”, pentsatu zuen.

Patologoaren laguntzaz, forentseak Xalbadorri gauzatzen zebilkion autopsian kausitutako beste xehetasun bat bidali zuen ikerketa zientifikoa burutzen zebilen taldera. Lakua izaten zen korreoan islatzen ziren datuak beste kideei helarazteko ardura izaten zuena. Bera eta Nerea lanaldiko ordu gehienak elkarrekin zebiltzan eta, horren ondorioz, nolabaiteko konfidentzialtasuna izaten hasiak ziren.

-Begira Nerea, forentseak beste zertzelada bat igortzen digu.

-A, bai! Zein?

-Hiltzailea ezkertia dela.

-Eta zergatik ez eskuintia? Irudikatzen dut, baina Aitor Ruiz de Azua forentseak arrazoitzen du?

-Jakina!

-Tira ba, bota!

-Altzairuzko kableak lepoan utzitako marka eztarriaren eskuin aldean sakonagoa dela dio.

-Ba, hiltzaileak saman iduneko erara altzairuzko kableaz Xalbador itotzeko bizkarraren ezker aldetik indar egingo zuen, ondorioz bular aldeko eztarriaren eskuin ebakidura sakonagoa da. Hori da, ezta?

-Horixe, hain zuzen ere! -Lakuak ozen baietsi zuen.

-Saldropon gorpuari gainbegirada eman nionean konturatu nintzen. Ez dago pertsona ezkerri asko.

-Hori jakitea ere garrantzizkoa da. -Lakuak.

-Xalbador zutik zegoen irato zutenean. -Nereak Lakua urgatzi nahian.

-Edo belauniko.

-Um! Ez dakit. Ebakidura gorantz egina izango zen eta nik ez nuen horrelakorik antzeman. Forentseak horri buruz badio zer edo zer? -Nereak.

-Ez. -Lakuak.

-Beraz?

-Zuk diozuna. Zutik egongo zen ito zutenean.

-Bai. -Nereak zorroztasunez.

IGANDE GOIZA

8

Matias Sararekin igandean hamaiketan, Andra Mari Zuritik plaza nagusira sartu eta ezkerreko ardandegian elkartzeko berbatuta zegoen.

-Karlak zurekin igaro du gaua? -Behin plazako arkupeetako mahai batera jesarrita, ikertzaile pribatuak hasiera eman zion solasaldiari.

-Bai.

-Lasaitzen naiz.

-Karla pertsona gogorra da.

-Bon.

-Bai.

-Joaquinek non egiten du lan?

-Horko galeriako kudeaketa, gerentzia edo dena delakoaren ardura darama; bertan dauka bulegoa; bai, nahiko dendatxo dago hor.

-Bera ez zen familia aberatsekoa? -Matiasek zeozer gehiago jakin gurean galdegin zion.

-Ez prezeski.

-Zer esan nahi duzu?

-Ba, taldeko lagun guztiak ikastetxe berberera joan zirela, baina batzuen gurasoek ahalegin ekonomiko handia egin behar izaten dute euren seme-alabei horrelako erlijio-ikastetxe bateko ikasketak emateko. Horixe zen sendi horren kasua.

-Gidatzen du?

-Bai. Badut erretratu bat bera eta Xalbador agertzen direnak eta matrikula ere argi-argi ikusten da. Argazkia duela bi urtekoa-edo da. Oraindinokarren ez dut uste beribila aldatuko zuenik.

-Ahalik eta lasterren behar dut marka eta matrikula.

-Gero bidaliko dizut WhatsApp-ez.

-Badakizu, Sara, begizta bigunena nago bilatzen. Horixe jausten da lehena. Katea hortxe apurtzen da. Leku horretan agertuko da matazaren hariaren punta. Uste dut horrekin hasiko garela egia jakiten.

-Zer esan nahi duzu? Ez dut ulertzen.

-Zera esan nahi dut: talde bateko botere gutxien daukaten pertsonak izaten direla lehenak apurtzen edo erortzen direnak. Zure gizonak enpresa bat zuzentzen zuen, Karla Domeniquerenak ere beste antzerako bat. Eurak pertsona indartsuak izan direla esango nuke, zailak barne-barneko jazoeraren bat aitortzeko, nahi ez duten gertakari bat nekez ezagutarazten dutenak. Edo zuk zure gizonaren gauzaren bat ez duzu jakin, edo zuok elkar ezagutu aurretik, berak eta beste norbaitek, Karlarenak-eta, zerbait larria egin zuten. Zinez diotsut, gutxienez Xalbador eta Felipe gai nahasi xamarrean sartuta daudela. Horregatik galdatu nizun zure senarraren gaztetako lagunen erretratua. Ez dakit noizdaniko tema den, baina hor ekin behar dugu arakatzen.

Zerbitzaria luzatu zen; oraindik ez zen mahaira hurbildu.

-Txibierroak nahi dituk jatea eta bermuta edango nuke; badakizu, apeta garestiko andrea naiz. -Sarak supituan, desiraren aireaz.

-Zure nahi eta gurari guztietara makurtuko nintzateke. -Matiassek saiheska begiratu zuen.

-Apeta gaiztoa hartzea gustatuko litzaidake.

Matiassek hiru aldiz egin zuen eztul faltsua.

-Goazen ertzekora, haraxe, badago lekua eta. -Sarak plazaren beste aldean zegoen terrazarantz luzatu zuen eskua.

Joan, bata bestearen aurrean eseri eta eskatu, hirurak batera: txibierroak, bermuta eta Errioxako ardo zuria.

Sarak Matias finkotasunez begiratu zuen luzetxo.

-Esan didate azken urte hauetan anitz aldatu zarela? -Supituan, deblauki galdetu zion, hatz handiurrenaz, ilearekin jolasean, kiribiltxoak egiten zituela.

Matias konturatu zen jokoaz, hala ere, ez zen artegatu, erantzun aurretik, segundo batzuk mutu geratu zen. Gero, beldurra emateko hoztasunarekin, hitz leituak bota zizkion.

-Bizirik irauteko gogor borrokatzeak aldatu nau. Ezinbestekoa denean sumatu ezin den mudatzeak gura barik harrapatzen zaitu. Ni sekula ez naiz joan opariak ematen dituzten horietako eliza batera, beraz, atera kontuak. Ezin gara beti ostentzen ibili, duintasunez aritu behar dugu eta zuzena dena egin. Eta zu, zer? Zer esaten didazu zuri buruz? -Matiasek finkotasunez begietara so eginez.

Sarak, mugimendu oso sentsuala agertuz, jakaren barrutik eskua besaburura eraman zuen, sorbaldako ehun naturalaren tolesdura egoki ipintzeko. -Ba, bizitza nahiko lasaia eraman dudala. Orain ez da bat ere atsegina. Ederra? Inolaz ere ez. Eta zoragarria? Ezta pentsatu ere. Nola izango da ba! Baina daukagunarekin egin beharko dugu aurrera. Semea izan nuenean arean jokozen kanpo geratu nintzen. Dibortzioaren paperak prestatuta nituen, baina azkenean moldatu nintzen eta semeagatik jasan nuen bikotea. Berak bere bizitza egiten zuen eta nik neurea, eta horrela izan da gaur arte.

-Bai, bizitza aurrera doa eta ez da guri iguriki geldituko. Guk ere ekin behar dugu. Zuk gainera semea duzu eta beragatik ere jarraitu behar duzu, gelditzeko astirik hartu barik. -Matiasek serio.

Zerbitzariak eskatutakoa atseginez mahairatu zuen. Sarak ikertzailearen ahoan iltzatu zituen begiak.

-Matias, ikertzaile pribatua izateko, ematen dit ez zarela hain bihozgabea. Karonen laguna izango bazina bezala ikusten zaitut. -Emakumea interesaturik agertu zen solaskidearen izaeran.

-Begira, Sara: naizenari uko egin barik zintzotasunez bizitzea gustatzen zait. Uste dut Tolstoi izan zela esan zuena: eskergabetasunak ez duela bihotz handia zarratzen ez eta axolagabetasunak nekatu. Ez nago ezbaian bakartasunean bizi naizela esaten dudanean. Hala ere, sarriegi, onestasunez jokatzeari garesti ateratzen da eta, ez izan zalantzarik, kamusadak onartu behar ditugula. Ustez nago, beti izango dela hobe, norbere buruaren jabe izatea eta, ez, koherentziaren ezagatik, norbere sustraian kontra aritzea. Eta, Sara, egon zaitez ziur, neure benetako izaera zaintzen ahalegintzen naizela, kosta ahala kosta. Gainera, uretatik batean ibiltzea zein labarretik itsasoa behatzea anitz maite dut.

-Gustatzen zait. Uste dut ni ere horrela nabilela; behinik behin saiatzen naiz. Ze gozo txibierroak! Dibortziatuta zaude, ezta?

Sarak begiko niniak oso zabaldua zituen.

-Era honetara prestatuak sekula ez ditut jan; bai, gozo daude. Begira, Sara, ofizio honetan gabiltzan guztiok gauza bera esaten dugu: gutariko inor ez litzatekeela sekula ezkondu behar. Ezinezkoa da gure bizimodua eta ezkonduarena eskutik eramatea.

-Imajinatzen dut.

-Azkenean bikote bizimoduak porrot egiten du. Zu, Sara, gazterik ezkondu zinen, ezta?

-Bai. Hogeita lau urterekin; Xalbador ezagutu eta urtebetera. Hogeita bostekin, duela hamar urte, haurra izan nuen eta hemen nago.

-Hemen eta eder!

-Eskerrik asko.

-Senarrak inoiz jo zintuen?

-Ez.

-Eta bortxatu?

-Ahalegindu zen behin, eta berea eraman zuen. Gerora ez zitzaidan hurbildu. Semeagatik jasan nuen. Badakizu, banaketa ematen denean, ume txikiek pentsatzen dute eurek direla errudunak eta gorabehera guztia heriotza bezala ulertzen dute. Horregatik, umea handiagoa izan arte eustea erabaki nuen. Baina begira zelan etorri diren jazoerak.

-Heriotza behin betiko kontua da. -Matiasek.

-Bai. Ez dauka erdibiderik.

-Horrela da, bai.

-Aizu, Matias, hor aurrerago, legebiltzarretik bertara, badago Sagar ez dakit zer deitzen den jatetxe bat eta primerako solomiloa onddoekin ipintzen dute. Gonbidatzen zaitut, goazen!

-Zinez diotsut gustatuko litzaidakeela, baina gaur ezinezkoa zait. Bestalde, egun hauetan ezin gaituzte kaletik elkarrekin ikusi. Kontu hau oso beltz ipiniko da. Ezin dugu ahaztu bi pertsona hil dituztela eta oraindik ez dakigu noraino heltzeko ahalmena duten. Sara, zuhur jokatu behar dugu. Beste gauza bat: esan zenidan ama bizi zaizula, baina aita bizi zaizu?

-Ez, aita, odoleko gaixotasun arraro baten ondorioz duela urte batzuk hil zitzaidan. Erdaraz Amiloidosis du izena eta denbora labur batean bizi-organoen narriadura dakar. Oso zaila zen diagnostikatzea eta gure aitari beranduegi aurkitu zioten. Gauza da, ba, Amiloide izeneko proteina bihotzean, giltzurrun, gibel, edo eta

nerbio-sisteman pilatu egiten dela eta, ondorioz, organo hori edo horiek hondatu egiten direla, horrek, jakina, gutxiegitasun kardiakoa dakarrela, heriotza, alegia.

-Sufritu zuen?

-Nekea izaten zuen. Minik ez. Azkar joan zen. Gaur egun badago farmako bat osatzen duena eta, gainera, organo horietan egin izan den Amiloide proteina pilaketa desagerrarazten du, horregatik organoak ondo funtzionatzen hasten dira.

-Gorputza ezagutzen den makinarik bikainena izanda ere zelango gauzak dauden, ezta?

-Bai, hala da.

-Badugu nondik ibili.

-Bai, horrela da. -Nereak gogoz lanari ekiteko.

-Badut bihozkada bat eta nahi baduzu horrekin hasiko gara.

-Zein da, Lakua?

-Orain errezeta elektronikoarekin dena dago zentralizatuta. Hortaz, zenbait data desberdin erabiliz, osasun kontuetan sartzen bagara jakingo dugu Midazolam farmakoaren nondik norakoa eta seguraski non saldu den baita. Hori oraintxe egingo dugu, baina horretan ibili direnak badakite bide horrek arrasto argia uzten duela eta, ematen dit, talde horrek Midazolam lortzeko ospitalean errazago izango zukeela.

-Farmazialari baten laguna bada? -Makuak.

-Farmazialari baten laguna bada, ale bat behintzat, inolako arazorik gabe lortu dezake; mugimendu hori ez luke sarean sartuko eta, ale horren falta, urte amaieran egin beharrekoa izaten den inbentarioan agertuko litzateke, baina ez

litzateke inora joango, hor geratuko zen kontua. Zergatik? Ba, botikarioak ez duelako publiko egin behar. Hala ere, talde horretako bat, edozein, ospitale batean lanean badabil erraz lortu dezake edozein gauza; zeladoreak ere bai.

-Midazolam injektagarria izanik ez da usua izango farmaziatan egotea, ezta?

-Nik ere uste dut ezetz, baina zaharretxe asko dago eta horietako erizainek behar dutena farmaziatan erosten dute. Gainera zaharretxeetako erabiltzaileak, salbuespenetako kontuetatik aparte, batik bat pilulekin dabilta. Dena den errazagoa izango da ospitaleetan erabiltzea eta bertako pertsonalak, ba.... -Lakuak.

-Nik ere uste dut baietz. Ospitaleratzea ohizkoena egun batzuetarako izaten da. Hor uste dut egongo dela lapurreta edo dena delako kontu hori, gainera, urteak leku berean lanean ibilita, lagunak egiten dira eta badakizu, betikoa. -Nereak osagarri legez.

-Hori ba.

ASTELEHEN GOIZA

9

Matias astelehenean ohetik belu jaiki zen. Burua tapakietatik idokitzeak belarriak eta sudur punta izoztuta uzten zizkionez, berriz gordetzen zen, burbuila bat egitera bezala. Katilukada esne beroa gailatekin amesten ezarri zen berotasun apur bat emango bazion esperoan. Ohetik ilkitzea nekagarri bihurtzen zitzaion; gozo hantxe. Asteak ziren gasa ebaki ziotenetik eta, bai, hitzarmen berriak diru apur bat eman zion, hala ere, nekea sartzen zitzaion konpainiara deitzea eta atzera jartzeko agindua ematea, batez ere, langile bati harrera egin beharko ziolako, eta, hori irudikatzea soilik, unadura eta asperdura ekartzen zizkion. Jabetzen zen, astelehen goizeko ajeak gorputza eta burmuina menpean zituela, eta kafearen beharra zuen. Halaber, sorospen gisara aspirina pare bat.

Artega zegoen, nolabait kasu guztiaren gakoa iluntzean izango zuen elkarriketan egongo bazen antzera. Joaquin.

Ez zuen lanlekura joateko gogorik eta bertara hots egin zuen. Ez zuen erantzunik jaso. Bulegariari WhatsApp-ez audio bat bidali zion: *Luzia bart idazgelara heldu nintzenean nire mahai gainean gauza pare bat utzi nizkizun hots, argazki bat eta folio batean izen abizenak eta telefonoak. Erretratukoak zenbakituta daude eta ikusiko duzunez folioan zenbaki horiekin hainbat datu daude erlazionaturik. Pertsona horiek goitik behera arakatu behar dira: Non bizi diren, norekin, familiarik duten, beribilik, beste nonbait etxerik duten. Hortik ez dakit zein ordutan agertuko naizen. Gero arte.*

Kafea apailatu zuen. Katilukada gailetari likido preziatu beltza eta esne nahikoa kalera irteteko.

-Oraintsu korreo berri bat heldu zait. Ia zer dioen! -Lakuak Makuari finkotasunez begiratzuz.

-Norena? -Nereak.

-Forentsearena.

-Irakurri ba!

-Interesgarria. Forentseak dio Felipe Villanueva eta Xalbador egun eta kasik ordu berean hil zituztela. Gainera dio Feliperen gorputzean ere "Midazolan" arrastoak daudela. Analisi gehiagoren faltan "modus operandi" berbera izan dutela. Eta beste gauza bat ere badio. -Lakuak.

-Zein?

-Feliperen hiltzailea ere ezkertia dela.

-Hiltzaile berdina izango da? Zaila sinestea. -Nereak.

-Zergatik. -Lakuak.

-Aldi berean bi hildako eta hiltzaileak andrazko bat eta gizonezko bat soilik? Ez zait ahokatzen. Bi gizonezko batera itoartzeko lau pertsona sendo beharrezkoak liratekeela uste dut.

-Pertsona bat itotzeko gutxi gora behera hiru minutu behar dira. Hortaz, uste dut bide onetik zabiltzala. Ikertzen jarraitu behar dugu. -Bota zuen Lakuak eta jarraitu zuen eskaera batekin-. Gauza bat egin behar duzu.

-Esan. -Nereak-. Baina itxaron, forentseak badio Feliperi zelan eman zioten Midazolan?

-Ez.

-Gorputzean xiringaren markarik duenik?

-Ez.

-Hortaz edariarekin eman zioten. Ia, Lakua, zer eskatzera zindoazkidan?

-Lortu Feliperen telefono zenbakia eta atera genuen erregistroan begiratu ia Xalbadorren ondoan agertzen den, eta, agertzen bada, elkarrekin zenbat denbora ematen duten. -Lakuak.

-Oraintxe.

-Bi andrazko usaintzen ditut. -Lakuak.

-Zergatik bi?

-Ez dakit. Bi gizon bi emakume. Horrexegatik.

-Xalbador biluzik gurutze batean eta Atxurira begira. Felipe Urkiolako santutegiaren ondoan. Ez dakit ba nik zer pentsatu. -Nereak.

-Badakit nora zoazen.

-Azkarra zara.

-Argi ipini didazu.

-Taberna horretan borrokaldia ez dut uste egongo zenik. Hautabide bat dago pentsatzeko hiltzaileak emakume bat eta gizonezko bat direla. -Nereak.

-Uste dut ikusten dudala eszena. -Lakuak.

-Zaila, baina aukerakoa, baldin eta Midazolanen erabateko eragipenean bazeuden. Moralik gabeko egoera batean bizi izan direla uste dut, gainera grina txar lotsagarriak zituztelakoan nago. Hitz batean esan beharko banu zera esango nuke: endekapena, espezien endekapena. Zalantza izpirik ere ez izan. -Nereak hitz haserreak azaleratu zituen.

Sarak eman zizkion datuak baliatuz, arratsaldeko laurak inguru Matiasek Joaquinen beribila kausitu zuen. Gidariaren beste aldeko txirringari bizkarra emanda kokatu zen eta, behin batera eta bestera behatu ondoren, eskuarekin Galileo markako gps-a gurpil-arkuaren barrualdean ezarri zuen. Samako beroa ez galtzeko tapauka hobeto egokitu, martxa nordikoaren pausuan oinez jarraitu eta joan zen bezala bueltatzeko, eskuak berokiko poltsikoetan sartuta zekartzan.

Karrikan ez zen pertsona gehiegirik. Orduko hotsak gordetzera gonbidatzen zuen.

Bulegoan Luziaren falta sumatu zuen. Mahai gainean zegoenaz jabetu zen; ez zegoen gauza berririk; betikoa; eskutitz batzuk; fakturak. Ordaintzeko ezinbestekoak zirenak aukeratu zituen: alokairua, ura, argia, telefonoa eta, gainerakoak, hegalean laga zituen. Oraindinokarren goizegi zen Sarak esandako Joaquin lanlekura joateko. Egonean jarri zen. Ilunabar aurreratua iruditu zitzaion egokiena, azken orduak lan egiteko nekagarrienak izaten bait dira eta errazenak mihitik joateko. Idazgelatik irten zen. Tripak orroka zituela jabetu zen; gose zenaren ezaugarri nabaria.

Edozein ordutan zerbait eskaintzen duten horietako ardandegi batean mokadu bat jatera sartu zen. Odolki-pintxoak, txitxi-burruntzia eta Coca-cola zero. Gustatzen zitzaion okela era horretara egin berria. Ez zuen alkoholik eskatu. Bizkor egon nahi zuen.

Joaquin, Xalbadorren laguna, ez zen galeriako langile arrunta, gerentea baizik. Gainbegirada batean argi geratzen zen inguruko pertsonarik galantena zela; altua, argala, ile kizkurra, ondo jantzita. Matiasek ikertzaile pribatuaren agiria erakutsi zion.

-Eta, zer nahi duzu?

-Matias Martinez de Oca deitzen naiz eta Sara Bidarten izenean natorkizu.

-Bai, eta? Zer nahi duzu nigandik?

-Begira, Joaquin, Sara Bidarten gizona hil egin dute eta zenbait galdera egitera natorkizu.

-Niri itaunak? Eta hori?

-Sara Bidartek esan dit, zu eta Xalbador, gaztetatik lagun onak izan zaretela.

-Bai, hori egia da. Baina?

-Jazotzen ari den guzti hori entelegatzeko zergatiak xerkatzen gabiltza.

-Benetan, atsekabeturik nago Salvador erail izanagatik, baina nik ez dut inolako zerikusirik.

-Erantzungo zenizkidake itaun batzuk.

-Bai, zelan ez, baina hemen ez. Lanetik ateratzen naizenean.

-Non?

-Casa Blanca ardandegian. -Joaquinek.

-Hori Daton dago?

-Bai.

-Nahikoa ordu erdirekin? -Matiasek

Joaquinek sakeleko telefonoan ordua behatu zuen. -Apurtxo bat gehiago. Hiru ordu laurden barru. -Ihardetsi zion.

-Ondo, -Matiasek aurpegieran zimurrik atera gabe.

Joaquin heldu zenerako, Matias iguriki zegoen.

-Baina zu Xalbadorren lagunik onena zinen, ezta? -Supituan bota zion Matiasak, egun osoa elkarrizketa hura noiz helduko begira egoteaz nolabait luzetsita egongo bazen erara.

-Bai, lagun handiak ginen; eskola denboratik esango nuke; badira urteak.

-Horregatik esaten dizut.

-Ba, ez dakit zer esan.

-Bizkaia aldean inoiz egon zarete kuadrilla osoa-edo?

-E?

-Begira Joaquin, Xalbador erail dute eta, egun berean, zuon taldeko beste bat ere bai.

-Beste nor?

-Karla Domeniqueren gizona, Felipe.

-Joder!

-Bai, Felipe ere bai. Kontu larria da. Aditzen duzu zu ere galzorian egon zaitezkeela?

-Joder! Orain ez nuen nik horrelakorik behar, ba!

-Ez zuk ez inork, baina gorabeherak horrela datoz.

-Begira, Matias, zer gertatzen ari den hausnartzeko astia behar dut. Nire bizitza osoa jaulkitzea eskatzen didazu, edo behintzat nik buruz erreparatzea eta gertaera garrantzitsuenak zuri esatea. Jazoera horiei buruz nire bikotearekin hitz egin behar dut; Pablo deitzen da eta etxeratzen naizenean guzti honi buelta bat emango diogu. Ulertzen hasia naiz ni ere nolabait nahasian egon naitekeela eta aurre egin behar diodala. Behar bada, ostendu egin beharko nintzateke; dena argitu arte inguru honetatik alde egin. Hala ere, uste dut gero ere galbidea ez litzatekeela desagertuko. Behar bada. Ikusiko da. Ia, lotu gaitzen biharko, asteartean, lanetik ateratzen naizenean, gaueko hamarretan, WhatsApp-ez igorriko dizudan

helbidean. Nasai egon, hemengo inguruko ardotege bat izango da eta bikotearekin etorriko naiz; Pablo abokatua da. Nahi baduzu berton geratu gaitzke eta ordu berean gainera. Ni ere hilketa horiek argitzeko interesaturik nago; zer jazotzen ari den jakitea ezinbestekoa zait. Ondo deritzozu hemen geratzen bagara?

-Nigatik primeran, -Matiasek-. Hala ere, badago gauza bat ez dudana gogoko. Begira, Joaquin, oraindik zaila da usaintzea zein den erailketa guzti horien oinarria. Nork daki zu ere nahastean zauden ala ez? Guzti hori garden ikusi arte, nik ez nioke inori ezer esango. Erregutuko nizuke, zure bikoteari, Pablori, ezer ez bazenio esango, behinik behin, zeozer ziurtasunez jakin arte. Bai, esango didazu zure bikotea ondo ezagutzen duzula, baina azaleratuko zaigun kontuan edo erailketen zergatian zu nahasita bazaude eta, gainera, guzti hori nazkagarria, edo eta oso bortitza bada, zer? Pablok erantzungo lizuke? Ikusi egin behar. Beraz, oraingoz isilpean gordetzea gomendatuko nizuke, gero ere sobera denbora izango zenuke bikoteari den dena azaltzeko.

-Agian, arrazoia izango duzu. Bai, apika, bai. Ondo dago, oraingoz isilean geratuko naiz. Barkatuko didazu, baina orain nekatuta nago. Bihar hitz egingo dugu. - Joaquinek.

-Bihar arte, ba.

-Beno bai, bihar arte, orduan. - Joaquin era horretan agurtu zen.

Matias mahaitik zutitu eta eskatutako ardoa ordaintzera barrara zuzendu zen. Burmuina gezamin bihurtu zitzaion. Ez zegoen gogara. Une batez hausnarrean egin zuen bigunegi egin ote zion. Hurrengoan jarrera oldarkorragoa agertu beharko zuen; izutu, beldurra eragin.

Zigarreta bat ezpainetan ipintzeko, berokiko poltsikotik tabakorri paketea atera zuen. Karrikara irtetzeaz batera, isiotu aurretik, batera eta bestera so egin zuen. Posta kaletik Fueros hartu, gero eskumara zuzendu eta nola eta zergatik berak ere ez zekiela, bigarren zigarro-muturra ahitu aitzinetik, Sara Bidarten bizilekuko

atarian zegoen. Ez zuen txirrinik jo. Norbait barneratzeko asmotan bistaratu arte iguriki kokatu zen.

Andrazko bat erosketa poltsarekin azaldu zen. Gonbidatu zuen barneratzera. Matiasek ezetz esan zion, zigarroa azkendu ostean, baina ez zuen atea guztiz ixten utzi, zabalik izateko zapata puntarekin eutsi zion. Auzoa bistatik ezkutatu zenean, zigarrokina espaloira bota eta barrura egin zuen.

Sararen eskailburura heldu zenean txirrina jo zuen. Eskubandari bizkarra emanda ezarri zen. Serio zegoen. Emakumeak bizilekuko sarrera ireki zuen. Kolore beltzeko praka bakero estuak janzen zituen eta elastiko arrosa. Ikertzailea goitik behera ikuskatu, bere oinetan bira egin eta barneratu zen. Matias ez zen mugitu. Minutu erdi eskasera berriz azaldu zen. Titiak airean leunki dantzatzen zitzaizkiola zetorren. Matiasek bepuruak jaso zituen. Ikertzailea adi-adi behatu ondorik, ezer esan gabe, atea zabalik laga eta barruratu zen. Matiasek atzetik segitu zuen.

ASTEARTEA

10

Goizaldeko seietan, Matiasen telefono mugikorra alarma jotzen hasi zen. Mesanotxetik jaso eta gps-a zela jabetu zen. Hotsak Joaquinen beribila higikera zolian zihoala ohartarazten zion. Bizkor mugitzen zen, arrapaladan orduko hogeita hamarrean joan behar zuen karrika artetik. Gerorako laga zuen. Emakumeak erdi lotan segitzen zuen. Jantzi zen eta jalgiteko apailatu zenean, Sarak galdetu zion: -Nora zoaz?

-Joan beharra dut.

-Gosaldu gabe, ez!

-Hor nonbait edango dut kafea; tabernaren bat zabalik egongo da, El Mentironedo.

-Ezta pentsatu ere. Oraintxe apailatuko dut kafea eta zertxobait gehiago ere hartuko dugu; egunari hasiera emateko ondo gosaldut behar da.

-Gaurkoa ez dut matrakarekin hasi nahi. Gogor xamar datorrela barrundatzen dut gainera.

-Zer izan da alarma hori? -Emakumeak.

-Galileo, -Ikertzaileak.

-Zer da Galileo?

-Gps-a.

-Noren autoari ipini diozu, ba?

-Joaquinenari.

-Eta? -Sarak jakin gurean, solasketa jarraitzeko irrikaz.

-Atzo aitatu nizun katebegi ahulena izan daitekeela eta gainera azkarren bigundu daitekeena, baina ematen dit alde egiteko asmotan dabilela.

-Zergatik diozu?

-Ordua, abiadura, bere bikotea, Pablo, abokatua da. Denbora irabazten dabilta. Uste dut gogor ipintzeko unea heldu dela.

-Bai?

-Bai. Zer edo zer erdiesteko premia denean, batzuetan benetan aritu behar da. Ez zait laket, baina horrelakoak gara eta, gainera, kontu honetan familiak dagoz jokoan: zuon ospea, errespetua, izena, zeure omena. Ezin gara bigunkerietan ibili. Gorabehera handiko eguna datorrela barrundatzen dut.

-Lagundu zaitzaket zeozertan?

-Ez, ezin zara gure eginbeharretan korapilatu; hau gure betebeharra da. Bolbora usaina dago bazterretan. Honezkero lagun talde osoak izango du gertaeraren berri eta zailago egingo zait zeozer jakitea. Horregatik da hain garrantzizkoa Joaquin. Ez dut uste bere bikotearekin alde egin duenik. Berak erreza du gaixoaldi bategatik hiru-lau eguneko baja hartzea. Ustez nago bera bakarrik joan dela. Pablok egun libreak hartzea zailago izango luke. Seguraski bezeroekin aspaldiko konpromisoak izango ditu; agendaren kontuak. Bestalde, ikerketa ofizialekoek galderekin sakatu zintuzkete eta, sinez diotsut, badakitela euren lana egiten, beraz, geratu zaitez albo batera, eta ez aipatu nire izenik ere.

-Ondo dago. Ez nuen uste kontuak hainbeste okertuko zirenik.

-Oraindik ez dira hasi, baina lasai, gaiztotuko dira eta. -Matiasek jarraian hozkailutik txokolate ontza bat hartu, ahora sartu eta urtzen hasi zitzaionean zigarreta bat isiotu zuen.

Elur meheak kaleak eta teilatuak zuritzen zituen.

Sumatzen eta oroitzen zuena elkarturik filmetako zinta batean begietsiko balu bezala, bat-batean, nahigabe, gomutara hain laket zuen abestia heldu zitzaion. Off-eko ahotsa emeki jarrita Matias kantatzen zihoan:

Poliziak etxe inguruan

kanpoan autoak triste daude

ilargiak ez daki eguna ala gaua den

denak doaz arrastaka hankak trabatuta

jabetzen duzu gonbidatuentzat

norbaitek apuntatu honi

besteak beste horri...

Ematen zuen, bizitzak iluntsentiaren eta goizaldearen artean egiten zuela bere ibilbidea. Batzuk gauetan mozkortu gurean eta besteak egunabarrean eraildakoak han eta harago uzten. Matias ahitzen hasita zegoen. Guzti hari aterabidea xerkatu behar zion. Begizta bigunenak ere alde egiten bazion, bereak egina zuen eta hori ezin zuen inola ere baietsi. Nondik norakoa ebatzita zegoen. Ikerketari bulkada sendo bat eman behar zion; guzti hura argitu. Kariak ezagutzeko eta hiltzaileak agerrarazteko kausituko zuen lehenengo susmagarriena ukaldika belztu nahian ezarrita zegoen.

Karrikan pertsonak batetik bestera higitzen, egun zurituaz blai gozatzen. Tabernariak sarbideak eta negozioaren inguruak palekin elurra paretik kentzen, egunkari saltzaileak dendatxoan paketei kordelak kentzen, okinak furgoitik otzaratan ogi beroa dendara sartzen, udaltzainak autoan bazterrak begiztatzen.

Matias Hedegile karrikara barneratu zen, zabalik kausituko zuen lehenengo ardandegian kafea eta mistela kopa bat edateko. Mikel deunaren pasabidera iristeko zenean, La Malquerida tabernan, arrunki edaten zuen ebakia amaituta zuela eta egunkaria irakurtzen, Bixente kausitu zuen. Barraren aurrean begietsi zuen jesarlekuan eseri aurretik, eskuak atzera eramanda nagiak atera zituen. Bixentek, aharrausi isila egin ondoren, Matiasena eskatu eta beretzat beste kafe bat agindu zion zerbitzariari, eta egunkariko orria pasatu zuen. Une hartan bi gizon ezezagunek tabernara sartzeko imintzioa egin zuten, baina lehenak Matias eta Bixente begietsi zituenean buelta egin eta biak kanporatu ziren. Ikertzaile pribatua jabetu zen. Ulertu zuen gertaera. Erne jarri zen. Supituan edan zuen kafea eta tragoxka batean ardo gozoa. Kanpora jalgitzera zihoala, lagunari galzorian zeudela esan eta ardotegei barnean geratzeko manua eman zion. Bixentek ez zion jaramonik egin eta bere atzetik abiatu zen. Matias sarlekuan behatzen ipini zen. Bi atari aurrera zeudela ikustatu zituen. Egin zuten mugimenduaz jabetu zen. Bata bestearen aurrean kokatuta zeuden tiroketa gurutzatua egiteko prest, biak Matias eta Bixente noiz irtengo iguriki. Matiasek bederatzikoaren kulata ferekatu zuen.

Galtzada zuri zegoen eta hotza egiten zuen.

Bi ezezagunek oso sasoi onean zeudela ematen zuten. Bota beltzak, bakeroak, batak anorak urdina eta besteak soingaineko grisa, eta biak ile beltzdunak labur moztuta.

-Ez irten, -bi gizonak armak atera zituztenean, Matiasek Bixenteri ordenatu zion. Euren artean ez zegoen behaztoparik. Tiro argi batetik atariak soilik erdi ezkututzen zituen.

Bixentek ez zion Matiasi kasurik egin. Eztanda bat entzun zen eta hotsarekin batera Matiasen buru gainean zegoen taberna kanpoko argia txikituta erori zen Bixenteren sorbaldara. Bixente lurrera bota zen eskuan hogei eta bikoa zuela. Txino bat bizikleta eskuetan zeramala agertu zen tiro garbi bat egitea eragotziz, hiru mutiko kantari aitzak gedar egiten ziela atoan etxera bueltatzeko esanez,

edadeko andrea beldurtuta, Mikel deunaren kalezuloan itxita zegoen elizaren sarbideraino alde egin zuen, bertan belaunikatzeko eta errezetan ezartzeko. Bigarren tiro bat entzun zen eta Matiasen berokiaren eskumako sorbaldan, ehundura zuntzak hautsita hauteman ziren. Lipar batez, tiratzailea agerian geratu zen eta supituan beste tiro baten hotsa. Ezezaguna lurrera joan zen seko. Laguna hiltzen zitzaiola begietsirik, anorak urdinduna instant batez oharkabetu zen. Matiasen bila bira egin zuen begirada, baina berandu egin zitzaion. Une hartan ezkerreko begiak eztanda egin zion, odol puntutxoak eta azal zatitxoak aurpegian itsasten zitzaizkiola. Tipoa hilotz geratu zen, eta zulotik ateratzen zitzaion odol isuri geldiezinak zoru zurian putzu gorrixka egin zuen. Matiasek laguna behatu zuen. Bixenteren pistolatik ke lauso arina ilkitzen zen.

Ingurutik jendaldea desagertu zen. Gertatutakoaz ez zitzaien inolako interesik ikusten; jakina, beldurra, ikara, izua, dardara.

Matiasek hildako bien karterak jaso, euren bisaia ilunetan txanpon bana laga eta martxa nordikoaren urratsak emanaz karrikan gora egin zuen. Bixentek bere lagunaren oinkadak jarraitzeko korrika egin behar izan zuen. Haren parera heldu zenean, ikertzaileak galdegin zion: -Burdina nondik atera duzu?

-Tiro olinpikoa egiten nuen eta begira. Hogeia eta bikoia da. -Bixentek.

-Uste nuen hogeia eta bikoak kili-kiliak egiteko soilik baliatzen zirela.

-Tiratzaile ona, badakizu!

-Hori izango da. Legala da?

-Etxean daukadana paperekin daukat, baina hau beltza da.

-Badakizu zer egin behar duzun?

-Sobera ere bai. Eta zuk zurearekin?

-Oraintxe bilatu behar ditut bi edo hiru tximinia!

-Atalka jaurtitzeko?

-Jakina eta zuk ere gauza bera egingo duzu, aitu?

-Noski, Matias, ez naiz hain burugabea.

-Oraintxe bertan, entzun?

-Nora goaz? -Bixentek galdegin zion.

-Hemendik alde egin; laster badakizu inguru hau zelan ipiniko den. Orain puntu gorriak saihestu behar dira. Zelan zu pistolarekin? -Matias sek urduri, berriro errepikatu zion itauna. Urratsa azkarrago ematen hasi zen.

-Ba, Tiro Olinpikoa egiten nuenetik etxean daukat paperekin daukadana eta sarritan joaten naiz praktikatzen. Gainera, lehengo egunean ikaratu ninduzunez, ba, honako hau, ezagutzen dudako elementu bati erosi nion. Ez dakit markatuta dagoen. Kontua da, ba, aldean eramatea ebatzi nuela, ez inor hiltzeko, baina norbait beldurtu behar banuen, ba, horretarako. Eta begiratu! Orain etxekoa paperekin daukat eta hau tximiniatik behera doa behingoan.

-Ba, eskerrak hogeita biko aldean izan duzun, ezpabere orain ez nintzateke martxa nordikoa egiten ibiliko. Nik aldean daukadana Sarak kontratatu ninduen gau berean erosi nuen -Matias sek.

-Eta etxean berdina daukazu?

-Bai, bederatziko legala, paperekin.

Ahateen plazara heltzean zirenean urrutitik sirenen hotsak aditzen zituztela, gero arte arin bat elkarri opatuz bakoitzak bere norabideari ekin zion. Matias sek Aiztogile kalea hartzeko Seminario Zaharreko kantoitik Andra Mari kantoia zeharkatu behar izan zuen. Bat-batean, beste behin, soinuak burmuina blaitu zion. Ezin izan zuen saihestu. Off-eko ahotsa emeki ezarrita ekin zuen.

...denek diote atseden hartu behar duzula

baina ez duzu horren beharrik

Eta udako euriari esaten diot

minik sentitzen ene ez dudala

pentsatuko duzu erotu naizela

baina oraindik maite zaitut...

Azterlana zelan zihoan jakiteko, Luzia ikusi nahi zuen. Etsita zegoen. Datuak behar zituen. Halabeharrez idazkariarekin egon behar zuen. Hausnartu gura zuen eta beti bezala, bere mahaia ezinbestekoa zitzaion. Hantxe zuen laket kontuei bueltak ematea.

Litxarreriak saltzen dituzten horietako dendatxo batera barruratu zen. Jaso zuen plastikozko poltsa txiki bat eta gatzdun kakahuetez goraino bete zuen. Ordainduta kanporatzeko biratu zenean, ustekabean gizonezko bat lurrera bota zuen. Mostradoreko mutikoa ez zen jabetu. Adinekoari zutitzeko urgazpena eman eta barkamenak erregutu zizkion.

Karrika jendez animatuta zegoen. Ematen zuen elur gehiagoren beldurrez, bizilekuan berotan gordeta izateko lehenbailehen erosketak egitea nahi zituztela. Langelara iritsi zenean, Luzia han zuen, bera noiz helduko iguriki. Mahaia paperez beterik zuen eta kafea egin berri.

-Kontxo, bazatoz!

-Ondo eta bizirik. -Matiassek ihardetsi zion.- Kafea egin berri? -Galdegin zion.

-Bai. Kikara bete nahi?

-Noski, Luzia, itaundu egitea ere! Ia, zer daukagu? Etxerako lanetan zer edo zer azalduko zen, ezta? -Matiassek datuen gosez.

-E, ehundura zuntzak hautsita? -Luziak oso aurpegiera serio eta galde ikurra bisaia ilunean ezarrita-.

-Bai. -Matiasen berokia kendu eta besaulkian utzi zuen-. Luzia itxaron apurtxo bat komunara joan behar dut eta. -Botatako aitzakiarekin, Ikertzailea teilatura igo zen. Tximinia bi ikusi zituen, bata bestearen ondoan. Nahikoa zuen. Egitekoa di-da batean burutu zen.

Lanlekura bueltatu zenean, Luzia luzetsita jesarrita zain zegoen. Zutitu eta kafea zerbitzatu zuen.

-Zer, berantzakoarekin?

-Ez, ondo nago, baina goikoarekin topatu naiz eta berriketan.

-Ia, hasiko naiz xehetasunak botatzen. Nonbaitetik hasi behar eta eskeletatik hasiko naiz. Horien artean aurkitu dudak deigarriena hogei eta hamabi urteko andra batena da. -Bere mahaitik eskela hartu eta Matiasen eskura luzatu zion-. Andrea Blanka deitzen da. Ahalegin guztiak egin ditut, baina urteak desagertuta bezala egon da. Eskelari erretratu bat atera diot eta oraintxe bidaliko dizut WhatsApp-era.

-Zer da berari buruz dakigun azken datua?

-Ba, unibertsitatean zebilela ikasketak egiten.

-Non?

-Hemen.

-Zer egiten?

-Ingeles filologia.

-Badaukazu nondik jarraitu. Joan unibertsitatera eta lortuko duzu jakitea zein promozioa izan den. Norekin ikasi zuen. Nortzuk ziren bere lagunak. Lagunen helbideak. Non bizi zen eta zein familiatakoa zen. Azken hori oso garrantzitsua da.

Deitu Mikeli eta eskatu laguntza. Mikel beti dago prest batetik bestera higitzeko. Ni gaur arratsaldean kanpoan egongo naiz, datu batzuk ezinbestean behar ditut eta.

-Bai, baina egon. Sasoi hartan unibertsitatean zebilen ikasle batekin lortu dut hitz egitea. Itaundu diot Blanka deitutako bat ezagutu zuen eta baietz ihardetsi dit. Blanki, horrela deitzen zioten lagunek, ikasle ona eta mundu guztia urgazteko beti prest kaositzen zela ere esan dit. Baina oso kontu gogor bat izan omen zuen. Ez du jakin esaten, zehazki zer jazo zitzaion, baina bai, gomutatzen ez zuen hiri bateko jailetatik bueltatu zen goiz batean, ospitalera eraman behar izan zutela eta sabela hustu. Gerora inork ez duela bera ikusi eta, esaten zutela, ez zela bizilekutik irteten. Eta, baieztatu dit baita, aste honetan eskelatan agertutako andrea neskaxa horixe zela.

-Ziur! Koitadua!

-Zein ordutan alde egingo duzu? -Luziak orduak kudeatu gurean.

-A, Luzia, ahanzten zitzaidan. Hemen mahai gainean utzi nizun zerrendatik egin duzu zerbait.

-Zeozer bai, baina ez gauza larregirik.

-Joaquini buruz zerbait?

-Baduela bizitegi bat Briviescan.

-Balio dit. -Matiasek-. Zein ordutan aterako naizen? Ba, laster. Bihar arte ez dut uste bueltatuko naizenik.

Luziak ez zion ezer gaineratu. Kafeari zurrutada nimiñoa eman eta lanari ekin zion. Gogara ikusten zitzaion, baliagarria sentituko bazen legez. Matias zutitu eta alde egitera zihoan jazotakoaz inolako aipamenik egin gabe. Bestalde, unibertsitatara albait arinen joateko Luzia Mikeli deitzeko prestatu zen.

-Luzia, zarratu atea giltzaz eta ez zabaldu inori. Adu didazu?

-Baiiii! Joan lasai.

-Inori ere ez, entzun?

-Baietz ba!

-Bon. A, gauzatxo bat.

-Zer.

-Blancaren hileta noiz izan da, zein ordutan eta non?

-Ba, hori guzti hori, WhatsApp-ez bidali dizudan eskelaren erretratuan daukazu.

-A, bai, ni be!

-Zaindu zaitez.

-Beharko. -Ikertzaile pribatuak.

Matias langelatik jalgi zen. Etxera joatea nahi zuen berokia eraldatzera eta soinetik bolbora usaina eranztera. Behingoan, beste behin kanta bueltatu zitzaion. Ahalegintzen zen saihesten, baina ezin. Nick Cave handiaz oroitu zen, eta Txuma Murugarren musikoa berez ekarri zuen gogora; bere ekarpena zen australiarena. Off-eko ahotsa emeki jarrita ekin zuen:

...Gorde zure begiak

gorde malkoak

gorde aurpegia maite

gorde begiztak

gorde xingolak

gorde kaleak zapata jolas

gorde merkekeriak

gorde altxorrak

gorde guardasolak

gorde oroimenak

gorde denak mendi bateko etxolan

edo bota denak kalera

sirenak haizetan

huri tanta elurretan

pentsatuko duzu erotu naizela

baina oraindik maite zaitut...

-Lortu dut. -Bat-batean Nereak bota zuen.

-Ia, ikus dezagun. Nondik nora doaz? -Lakuak.

-Koordenadak begiratuta, Errementari eta Andra Mari Zuriaren plazara begira dagoen Dublín kafetegian elkartzen dira. -Makuak.

-Ia, erakutsi. Ederto. Hortik nora doaz? -Lakuak.

-Hortik zuzenean Matxete plazako Mikel deunaren ondora dagoenera doaz, Basque tabernara. -Makuak.

-Gauza bat egin behar duzu.

-Zer?

-Word batean xehetasun guztiak bata bestearen atzetik ipini. -Lakuak.

-Minutuak ere, ezta? Jakina da, ezta?

-Bai, horixe baietz! -Lakuak.

Matiassek gomutatu zituen bere urteak eta alferrik galduta bezala botatzen zituen denak, denak katamar ibilitakoak ez baziren aintzat hartzen. Hainbat aldiz lana aldatu behar, herriak eta hiriak ere bai, gainera nahi izango zuen baino sarriago. Denboraren ildoan bere jasa mudatu? Noski. Ideiak aldatu? Nola ez, edo hobe esanda, eboluzionatu. Darwinek espezien bilakaerari buruz teoria argitaratu zuela oro ezaguna da, baina mundu guztiak ere, bakoitzak bere bizitzan zehar, bederen bitan irakurri beharko lukeela uste zuen. Herriaren larruazala zerbaiten bila hazkatu, gainera maiz zombien irudira, leku baten bila, lan baten bila, eskubideak borrokatuz, direnak eta ez direnak eginez, eta dena aurka izan arren, irriñoa, aldarte ona garraztu barik, norbere buruari barre egiteko jarrera alboratu gabe. Horrela zebilen, kaosean, eta kaosa behar zuen oreka ez galtzeko, aurrera egiteko, filosofiak esaten duen bezala: kosmosaren aurretiko antolaketa eza kaosa zen. Supituan, berriro, nahi gabe, soinuaren letra zatia heldu zitzaion gogora:

...deitu hastera maite eta erantzungo diot zure deiari

deitu baina gogoratu zuretzat ez naizela baliagarri...

Iritsi zen bizilekura. Erantzi zuen berokia, gero tapauka, alkandora eta prakak, eta guztia ohe gainean laga zuen. Duxara sartzeko biluztu zen. Ur berorik ez zuela otu zitzaion. Gas konpainiara hots egin behar zuen; hurrengorako utzi zuen. Toalla handi bat urez blaitu ostean gorputz osotik, batetik bestera higitu zuen, gero, lepotik ezarri eta harraskan, burua ur-zurrustaren azpian kokatu adatsa xaboiak garbitzeko. Kaska tamaina ederreko izotz blokea egin zitzaion. Eskuoihala indartsu erabili zuen ilea lehertzeko eta epeltasuna berreskuratzeko. Aldean izandako

janzkiak ikuzgailura sartu eta bizilekuan zituen bero gehien ematen zuten soinekoak beztitu zituen. Egongelara zuzendu zen. Begien aurrean ikuspegia zoragarria zitzaion. Ezkerrera, behetik dorreko gurutzeraino Kepa deunaren eliza. Aurrean, alde zaharreko anitz etxe teilatuak mailaka jarrita. Harago, beste bi dorre: Mikel eta Bixente santuenak. Hirurak Erromara begira. Inguru osoa elurrez tindatuta zegoen, eder, liluragarri. Gelako armairuan zuen kutxa gotorretik bederatziko legala jaso eta karrikara jalgi zen.

Une hartan eguzkia ezbaian.

Bizitasunez asebeteta sentitzen zen eta ez zekien sentiera hark noiz arte faboratuko zion. Horrela egoteak bazkari dezente bat merezi zuen; horixe behinik behin. Handik hurbil bazegoen gogoko zuen ostatua, Hedegile karrikaren hastean, Andra Mari plazari beha dagoena.

Ohi bezala ondo jan zuen eta gatzatuaren marka ezpain ertzetik edeki segidan jalgi zen. Indar berrituta sentitzen zen eta bederatzikoa errekararen bala zuela. Hor zihoan.

Ikertzaile pribatua Joaquinen autoa zegoen albora arratseko bost eta erdiak aldera ailegatu zen. Ez zen geratu. Hamar metro harago zegoen etxebizitzaren atartea behatu zuen. Sarlekua xumea zen; zurezko marko zabalean bi beira handik barnealdeari babespea ematen zioten. Segitu zuen eta, eraikin osoa aztertzeiko eran, berrogei eta hamar metrora, karrika-bazterrean beribila gelditu zuen.

Doi-doi, ilunabarra zetorren.

Begiesten zen argi bakarra hirugarren solairuan egonean zegoen. Luziak datuekin plegu-laurdenean emandakoa behatu zuen. Hirugarrengoa zen. Apur batean iguriki egotea ebatzita, tabako paketetik zigarreta atera, ezpainetan ezarri eta isiotu zuen. Egin beharrekoa, onena gaua heldu aurretik egitea izango zela pentsatu zuen. Zigarroari beste zupada bat eman zion. Egokitu zen jesarlekuan, gidariaren albokoan. Uste gabea, zalantzan jarri zen: *“Joaquin bakarrik egongo*

da edo bere bikotearekin? Kasu egingo zidan eta bakarrik egongo da? Seguraski eroso sentituko da; fidakor, bere hiritik kanpo, beste herrialde batean, beste elkarte autonomo batean. Ez du aparteko segurtasun neurririk hartuta izango". Ikertzaileak hausnarrean bilduta jardun zuen. Gogoeta egin zuen baita, ilunabarrean, Pablo bikotea etor zitzaiokeela. Zigarrokina geratzen zitzaion, xupada bat bakarrik eta eman zion.

Bihurkin soila mahukan erdi gordeta, praketako patrikeran alde bietatik lekeda zuen zinta zati bat eta bi latex eskularru, gainera, lodiegia ez zen kordel luzea gerrian bueltak emanda. Abian jarri zen.

Bihurkina zirrikituan barruratu, hots leun bat eta sarlekua ireki zen; seguraski ez zen ikertzaileak parekorik egingo zuen lehen aldia.

-Joaquin ez duzu aterabiderik. Ni hemen nago eta, gainera, pistolaren kainoia zure burua ukitzera. Esadazu zer jazo zen.

Joaquin jarrita, jesarlekuaren besoei estekatuta zuen eta, atzealdetik, sama orkatiletara kordel batez.

-Neska bat.

-Non?

-B hirian.

-B hirian? -Supituan Matiasi harridura aurpegia jalgi zitzaion.

-Bai, B hirian.

-Zergatik B hirian?

-Aste nagusia zelako. Hara joan ginen gau bateko jaia egitera.

-Hori noiz izan zen, zein urtetan? -Matiasak galdeketan estutzen jarraitu zuen.

-Ez dakit, ez dut gogoan.

-Bai, gogoratzen duzu. Duela zenbat urte izan zen.

-Nik hogei eta hiru urte nituen. -Argitu zuen Joaquinek.

-Orain zenbat dituzu?

-Hogei eta hamabost.

-Ba, erreza, duela hamabi urte.

Joaquin izerdi-bitsetan zegoen. Azaleko poroetatik ateratzen zitzaion ura beldurrak eragiten duen izertza zen.

-Baso bete ur nahi dut.

-Ura? Ura bakarrik? Oraintxe ekarriko dizut baso bete ur. Non dituzu edalontziak?

-Pistola bitrozeramikaren bazterrean utzi eta latex eskularruak ipini zituen.

-Erdiko baldan, zabaldu armairuko atea.

-A, hemen daude, erdiko baldan! Zer ordutan datorkizu Pablo?

-Pablo gaur ez dator.

-Zelan gaur ez datorkizula? Ezin dizut sinetsi.

-Ez, gaur lana du.

-Ui, adarrak?

-Ez. Gu ez gara horrelakoak.

-Maitatiak?

-Bai, erabat.

-Zenbat hilabete elkarrekin?

-Bost urte.

-Horrenbeste? Eta oraindik maitatiak?

-Ba, bai.

-B hirira nortzuk joan zineten gaupasa egitera?

-Salvador, Felipe... -Joaquin zalantzan jarri zen; aurrera egin edo bertan geratu.

-Ia, lagunduko zaitut apurtxo bat. Kanoia sartuko dizut ahotik? Ez duzu ikusten Xalbador eta Felipe hil egin dituztela eta hurrengokoa zu izan zaitezkeela? Begira, Joaquin, behar ditudan datu guztiak ez badizkidazu aitortzen ez zara bizirik geratuko. Zin dagizut horrela izango dela, beraz badakizu.

-Salvador, Felipe. -Joaquinek bota zuen berriz.

-Bai, horiek esan dizkidazu. Nor gehiago? -Matiasen areago estutu zuen.- Esan!

-Alfonso, Jesus eta ni. -Joaquinek azkenik taldekideen izenak azaleratu zituen.

-Noiz izan zen hori?

-B hiriko jaietan.

-Zein lekutan?

-Tren geltoki ondoan.

-Atxurin?

-Bai, Atxurin.

-Zelan deitzen zen andereñoa?

-Ez dakit, Felipek sare sozialetatik ezagutzen zuen.

-A, baina ez zuen pertsonalki ezagutzen?

-Ordura arte ez.

-Nongoa zen neska?

-Gure hirikoa.

-Denok egin zenioten? -Matiasen indarrak ematen duen ahots baxuarekin.

-Nik ez.

-Ezin zenuen?

-Badakizu zergatik. -Joaquinek begiak behera ipinita gaineratu zuen.

-Bai, horrela izaten da. Eta amaitu zutenean, zure lagunek zer esan zizuten?

-Salvadorrek babestu ninduen. Salvador ez bazen egongo seguraski ni hilda geratuko nintzen hantxe bertan, edo onenean erriora jaurtita.

-Bai, hori ere gerta zitekeen. -Matiassek.- Eta zuk ez zenuen ezer egin? Ezin izan zenituen geldiarazi?

-Giroa basati zegoen. Ni erabat nengoen izaturik.

-Eta neska ondo heldu zen etxera?

-Ez dakit.

-Ez, ez zen ondo heldu etxera. Ospitalera eraman zuten eta sabela hustu behar izan zioten eta gero beste guztia. Drogarik?

-Bai, berak edaten zuen kalimotxoari tripi bat oso osorik bota zioten; beno, botila hartatik denok edan genuen. Bai, badakizu *Lyserg Säure Diäthylamid*.

-Lsd-a? Haluzinogenoa? -Matiassek.

-Bai, supergizon bat oso osorik.

-Nork bota zion lsd-a botilara?

-Alfonsok. Litroko botila aurretiaz zuten prestatuta.

-Nor zen neska?

-Esan dizut ez dakidala. Haren geroztik ez nuen ezer jakin nahi. Ez nor zen, ez zer egiten zuen, ez zein familiakoa zen.

-Baina elkar ezagutu zenutenean aurkezpenak egingo zenituzten, ezta?

-Bai, baina ez dut gomutatzen. Badakizu estresaren ondorioz gauzak ahantzi egiten direla.

-Bai, hori ere horrela izaten da. Eta nola ez zenituen zure lagunak salatu? -Matiassek itaunekin segitu zuen. Ezinbestez zitzaion jazo zena zehatz-mehatz ezagutzea.

-Ez, oso beldur nintzen. -Joaquinek.

-Andereñoa nor zen? Ez dakizula esan didazu, ezta?

-Bai.

-Ba, begira, hauxe da Blanca. -Matiassek eskelako erretratua erakutsi zion.

-Bai, horixe zen.

-Ba, lagun, orain zuzena dena egiteko aukera emango dizut eta egin zeniotenaren grabaketak nahi ditut. Daukazu guztia, mugikorra, bideo-grabaketak, dena nahi dut. Oraintxe!

-Ados. Horko ordenagailu horretan daukazu. Ordenagailua piztuta dago eta daukadan guztia disko gogorreko karpeta batean dago; karpetak "Ahantzi" du izenburua.

-Zure mugikorra?

-Ordenagailuaren aldamenean dagoena.

Matiassek konputagailua ikuskatu heinean pendrive-ra artxiiboak lekuz aldatzen hasi zen. Horren ondoren, telefonoko zenbait daturekin gauza bera egin zuen. -Ba, orain begietsi beharko da guzti honek zelan egiten duen aurrera. -Ikertzaileak-. Nahikoa da. Hemen gertatutakoa poliziari edo zure bikoteari esaten badiozu neu arduratuko naiz zure buruan bala bat sartzen. Aditu didazu, Joaquin?

-Egon lasai, ez dut ezer esango.

Matiassek konputagailutik pendrive-a idoki eta poltsikoan gorde zuen.

-Orain artekoa zure bikoteari jaulki diozu?

-Ez, kasu egin dizut eta Pablari nekatuta nagoela eta hiru-lau egunetarako hona natorrela esan diot.

-Ondo. Baduzu alkoholik etxean?

-Bai, egongelan.

Ikertzaile pribatua egongelako beira-arasa zurian usnatzen bezala aritu zen; nahi zuena bat-batean etorri zitzaion eskura.

-Begira zer aurkitu dudan, Jack Daniels botila bat bete beterik. Ia, zabaldu ahoa! Joaquin, apur bat gehiago! -Apurka-apurka, tipoari whiskya eztarritik behera zihoakion. Matias ahalegin horretan zebilen eta, berak ere, tarteka, trago txiki bat edaten zuen. Hamargarren minuturako Joaquin arras zegoen hordi. Burua zabuka zebilkion. Estekaturik segitzen zuen, baina erraz jaregiteko eran. Matiasek kanpoko ateari alde bietatik itsasgarria zen xingola zati bat kokatuta hetsi zuen. Sarlekua ez zen deigarri geratu. Sarrailara begiratuta, inork ere ez zuen uste izango barruan ezer jazoko zenik.

Ikertzaileak Joaquinen beribilaren gurpil-arkuaren barrualdean bezperan ipinitako Galileo gps-a eskuratu zuen.

Gaua beltz zegoen, zerua ezin ikusteraino eta ilargiak ez zuen agertzeko asmorik.

Matiasek bere bizi-espazioa ahalik eta lasterren begiestea nahi zuen. Izkinen batean autoa utzi, betikoekin elkartu, ardo batzuk edan eta buru-belarriak ernatuta jarri. Geroago, konorterik gabe, lotan gelditu. Heltzear zela, abestiak kolpean jo zion buruan eta Sara etorri zitzaion hegan:

...Orain zutik zaude eskailera buruan

esku bat barandan lore bat ilean

beste eskua aldakan jarrita axola gabe

lotan geldituko naiz udako euritan

minik oroitzen ez dudala egitan

pentsatuko duzu erotuta naizela

baina oraindik maite zaitut

baina oraindik

baina oraindik

baina oraindik maite zaitut.

Ikertzaileak automobila arboladira ematen zuen unibertsitateko ibiltokian utzi zuen. Beste batzuen artean, guztiz oharkabe geratu zen. Oratu zuen bederatzikoa eta kargagailua atera. Begiratu zuen. Balaz beterik zegoela zekusan, bere lekuan kokatu eta burdina gerrian ezarri zuen.

Gaua hotza zen.

Ez zen inor begiesten, ez pertsonarik ez beribilik eta jada ez zen ordua txoriak kantari aditzeko.

Ikertzailea nasaitu zen.

Haizea uluka entzuten zen.

Autotik irten eta alde zaharrera abiatu zen. Berak ere ez zekiela Floridako pasealekutik zihoala hauteman zuen.

“Orain datorkidanari aurea hartu behar diot. Urratsak eman behar ditut. Baina norantz?” Ibilian Matias gogoetatsu jarrita.

Goizean zendu bien katanarruak bizilekuan lagata zituela gogora ekarri zuen. Nortzuk ziren ezagutu behar zuen, euren egoitzak, agirietatik zer berri erdiesten zuen eta gero, bi elementuen azterketari Luziak ekingo zion.

Matiassek, Pedro Egaña karrikatik beraren bizilekuko atartera iristeko zenean, hetsirik zegoen tabako-dendari itsatsita, bi susmagarri behatu zituen. Berrogeiren inguruan, akaso oraindik ez, biak beltzez jantzita eta, bigak, beroki grisak soinean zituztela. *“Bikiak izango ote dira?”* Matias garunari bueltaka. Goizekoa behingoan heldu zitzaion gogamenera. Eskuak dardarka jarri zitzaizkion, izertza kopetara eta sorbaldara. Irribarrea ezpainetan ezarri zitzaion eta, *“horixe da inor hiltzen denean bueltan datorrena”*, kolpean heldu zitzaion burmuina asebetetzera; *“bai, horixe da: ikara eta izerdi hotza. Amesgaiztoak beste kontu bat dira”*.

Egia da, Matiassek bazekiela bera nor zen eta, hortaz, ez zuen beraren izaeraz ezein zalantzarik, nahiz eta kontu askoren aurrean usu ezbaian jarri. Ez zuen uste iruzurtiaren sindromea sortzen zebilenik. Berak bazekien eta, ondo gainera, gauza asko egiterakoan oso iaioa eta trebea zela, eta, nola ez, argi zeukan zoria ez zela existitzen. Argiro esaten zuen asturua lanaren eta erabakien gerokoa besterik ez dela.

Matiassek bazekien bere atzetik zebiltzala. Ez zuen egoki ikusten berak beraren etxeko atarian bere buruari escrache-an aritzea, ondorioz, egun berean beste tiroketa bati ekitea, norbaiten aurrean agerian geratzeko eta, gainera, dena hankaz gora botatzeko arriskuarekin. Baina, benetan, bazekiten nor zen, seguraski jakingo zuten norentzat zebilen lanean eta, ziurrenez, zein zen egiten zebilen ikerkuntza. Guzti haren giblean erakunde oso bat zegoenaren ustea gailentzen zitzaion. *“Goizean bi eta orain tamalez beste bi”*. Zalantzak uxatu zituen. *“Orain ez dut neure onetik irten behar”*, gogoeta egin zuen. *“Edozein egoera zailetik onik ilkitzeko naretasunak beti urgazten du. Bai, badakit gaurko gaua iluna dela eta hurrengo urratsak latz ipini zaizkidala, eta, zelan ez, guzti honi ezinbestean aurre egin behar diot”*, jarraitu zuen burmuina kiribilean ezarrita.

Langela aitzineko ardandegira abiatzeko, bere oinetan bira egin zuen. Harako bidean, ikertzaileen gidaliburuaren oinarriari bueltaka hasi zen: *“lagun, besteengan gorrotoa ez baduzu sortzen, jai daukazu”*. Edo, *“beti irribarre goibela izan behar duzu ezpainetan zizelkatuta”*. Edo, hirugarren kapituluan zegoena: *“beldurra ematea ez da nahikoa”*. Laugarrenak: *“orain arte zorionekoa izan zara, aitzitik, zorte onak noiz arte iraungo ditu?”* Baina, Matiasi, bosgarrenak nahigabe handiak zekarzkie, noraezean ipintzerainoko buruhauste garratzak; beti jartzen zizkion besoko iletxoak puntan; alegia, *“edozein bazterretan bala bat dago iguriki zure izenarekin”*.

Idazgela aitzineko ardandegiaren larrainean, Bixente hormari bizkarra emanda ardoa edaten zegoen.

-Bat aterako dizut?

-Bai, nola ez. -Matiasi erantzutea ez zitzaion kostatu eta jarraian itaun bat jaulki zion-. Goizeko burdina?

-Tximinietatik zatika jaurti dut.

Biak barneratu ziren ardandegira. -Bixente, -Matias, lagunari begietara finko behatuz hasi zitzaion hizketan- bizilekura joan behar nuen, baina atartera iristear izan naizenean, estankoari itsatsita bezala bikiak ematen duten bi elementu susmagarri ikusi ditut. Ez naiz ausartu sarlekura hurbiltzen.

-Nahi baduzu, lasai asko etxera sartu irtena egiteko, simulakro bat egin dezakegu.

-Bixentek, lagundu nahian, adoretsu.

-Sute-simulazio bat-edo, esan nahi duzu? -Ikertzailea lagunaren burutazioa nondik zihoan asmatu nahian.

-Esaterako. Hurbileko zakarrontzi biri sua emango diet. Ziur, bikiok edo dena delako diren bi horiek ingurura gerturatuko direla. Nahiko beta izango zenuke?

-Sartzeko bai, irtetzeko ez dakit.

-Zenbat denbora behar duzu? -Bixente kalkuluak botatzen.

-Demagun bost minuturekin nahikoa dudala.

-Hainbeste? Zer hartu behar duzu, ba?

-Ba, gora igo, goizeko bien katanarruak hartu eta ospa.

-Lasai, neu arduratuko naiz. Zu jarri zaitetz zelatan, behatu jazoerak eta azkar ibili.

-Matiasi laguntza emateko gogotan, Bixentek ardura guztia bere gain hartu zuen.

Ikertzailearen bizilekutik bertara zegoen txinoen janari dendaren ondoko paperontziak eztanda lehor bat atera zuen, suak ingurua eguerdiko hamabiak izango baziren bezala jartzeko. Bazterrak izutu zituen, azeriak oiloak nola eta jendea noraezean arrapaladan. Bixentek eskumara egin zuen Erremintari karrikan barneratzeko eta ehun metro inguru urratsak azkar eman zituen, Pedro Egañaren ertzean laguna noiz iritsiko iguriki jarritz. Matias atari batean erdi ezkutaturik behatzen.

-Lortu duzu? -Bixentek.

-Bai, zelan ez!

-Goazen ikustera ia nortzuk diren. -Bixente, esaten zuenaz, erabat ziur.

-Orain bulegora ez. -Matias zuhur.

-Zergatik ez?

-Orain erne ibili behar dugu; ezinbestekoa zaigu zentzunaz jokatzear.

-Uste duzu ezagutzen zaituztela eta ziurtasunez dakizu badakitela zertan zabiltzan? -Bixentek zalantza apurrarekin.

-Arras papaoak ez badira bai. Goizekoa gogoratzen duzu?

-Ez dut gogoan edukiko ba!

-Ezagutzen naute eta ez dute nahi arakutzen jarrai dezadan. Horixe da arrazoia. Paretik kentzea gura naute. Ematen du polizia mendean hartuta dutela; hori ez da eurentzat arazoa. Buruhaustea gu geu gara, ez gaituztelako eskupean. Gehiago oraindik...

-Zer. -Bixentek.

-Guzti horren atzean erakunde bat dago. -Matiasek ziurtasunez.

-Edo nire bizilekura edo zure lanlekura, batera edo bestera. Nora?

-Bulegora. Ez zaitut gehiegi nahastatzea nahi.

-Matias, kontu honetan belarriak arte sartuta nago bata!

-Bai, hori ere egia da. 22ko legala aldean?

-Noski. Zer uste duzu inozoa naizela?

Matiasek ez zion ezer erantzun eta, beste behin, martxa nordikoaren urratsak ematen hasi zen.

Erdi ezkutuan, idazgelara joateko buelta osoa eman behar izan zuten eta bata bestearen atzetik bost metroko tarte utzita zihoazen. La soledad kantoiatik Fray Zacarias Martinezera, gero Sociedad Vascongada, Gasteiz kalea, eta Santa Ana Kantoiatik Aiztogilera sartu ziren. Bazeuden.

-Ia, Matias, katanarruak! -Bixentek nolabaiteko agindu doinuaz bota zion; laguna trakets ikusten zuen.

-Tori bata, bestea neuk zabalduko dut. -Matiasek.- Izenak ez dit ezer esaten, baina hau ez zen hemendik urrutiegi bizi; Eulogio Serdán kalean. Urteak, ia itxaron: 46. - Jarraitu zuen datuak botatzen.- Zurea?

-Nirea 42 urtekoa eta Arriagako portalean bizi izan da. Ia auzoak ziren. -Bixentek.

-Eta, Bixente, bi hauek zer daukate amankomunean? Eta norentzat egiten dute lan? Zein da talde horren xedea? Zergatik iritsi dira erailketa burutzeraino? Zergatik hil gura nauten argi geratu da, ezta? -Matias artegaturik.

-Galdera lar. -Bixentek gora begira.

-Bikietako bat atzeman behar dugu eta gorriak ikusi arte astindu. Zer edo zer botako du eta hortik abiatuko gara kariak ezagutzen. -Matiasek ez zion Bixenteri Luziak egunkarietan aurkitutako Blankaren gorabeherarik aipatu, ez eta Joaquinekin egin berri zuena. Oraindik ez zuen argi, Blankak guzti hartan zerikusirik zuen ala ez, eta ondorioz, ez zuen Bixente nahastea nahi.

-Eta nola kausituko ditugu biritxiak? -Bixente ekintzari hasiera emateko gogo biziz.

-Egon nasai, eurek hurbilduko zaizkigu; pentsatu baino lehen begietsiko ditugu eta horretarako telefonoak prest izan beharko ditugu. Bixente, bihar arte esan behar dizut. -Matiasek.

-Bagoaz?

-Bai.

-Ardo bat ere ez? -Bixentek.

-Ardo bat bai eta, gainera, zabalik kausituko dugun lehenengo ardandegian.

-Hemengo aitzinekoa ziur irekita dagoela.

-Ba, horrax. -Matiasek.

Ardotegia bakarti zegoen. Lau mahai euren aulkiekin eta barra luzangan, plater bakar batean, saltxitxoi xerra pare bateko hiru opil txiki. Gibelaldean, ispilu eliptikoaren ondora, eskuz izkiriaturako folio tamainako afixan: arraultzak patata erreekin edozein ordutan.

ASTEAZKEN GAUERDI INARROSIA

11

Bixenteri agur esan ondorenean, Matias bizilekura igo zen. Ustez zegoen ordu hartan ez zuela galzoririk izango.

Asteazkeneko gauerdia aurreratua zen.

Armairu bakarreko logelara zuzendu zen baitezpadako baliagarriak kirol poltsan barruratzeko asmoz: alkandora bat, mauka luzeko polo beltza, jertse beltza, bakero ilunak eta neguko anoraka, a, eta galtzerdi bi pare, a, eta aldagarri pare bat baita ere. *“Zalantzarria da ziurtasunez ezagutzea egunak zelan etorriko diren”*, Matiasen burmuinean bueltaka. Buru-beroki beltza jaso eta kopeta eta belarriak estaltzera ezarri zuen. Egongelako armairutik galtzARBeko funda eskuetan jaso eta motxila baten erara egokitu zuen. Arineketan irteteko erosoago sentitzen zen burdina gerrian baino besapean eramanda. Hamabost balako bi kargagailu hartu eta poltsa barnean kokatu zituen. Bederatzikoan hirugarren bat egokitu, kargatu eta besazpiko zorrora eroan zuen. Arasaren gainean, maskaratzeko baliatzen zituen graduaziorik gabeko moldura beltzdun betaurrekoak eskumako hatzekin besotik heldu eta ezarri zituen.

Automobila laga zuen alderdira abiatu zen.

Hotza egiten zuen eta apenas ikusten zen gizakirik.

Kapota ireki eta kirol poltsa barruratu zuen. Martxan jarri zen. Automobila bikiak azkeneko aldian ikusi zituen gunetik utzi zezakeen hurbilen aparkatzea nahi zuen. Badaya karrika izan zitekeela begitandu zitzaion. Asmoa lortu zuen. Tabakorri paketetik zigarreta bat oratu, piztu eta egonean jarri zen.

Aldabeko enparantzatik txoritxoren bat aditzen zen, adar batetik bestera saltoka, pitean-pitean txio txikiak egiten zituela eta, pare bat aldiz, mozoloa ere entzun zen, bere audio-seinale bereizgarriak igortzen.

Zigarretari azken xupada eman zion eta mutxikina leihotik kanpora jaurti zuen.

Otu zitzaion, Eulogio Serdán eta Portal de Arriagara osteratua bat egitera joatea, ustez bait zegoen zitekeela handik bikien bat, edo biak begiestea. Ezinbestekoa zitzaion bietako bat atzematea eta albait arinen.

Beribila bertan utzi eta martxan jarri zen.

Erabaki irmoarekin joan zihoan.

Aldabe enparantzaren aldamenetik ezkerrera egin zuen, izen bereko kalera sartzeko. Eskuak anorakaren patrikeratan barrura zeramatzan. Bere ondotik automobil bat igaro zen, gero beste bat eta beste bat. Denak zebiltzan lekua bilatzen non utziko hurrupa nasai edateko-edo. Laugarren beribila poliki-poliki zihoan. Inolako garrantzirik eman gabe, besteak behatu zituen erara egin zuen; soslai, begirakune zorrotzaz. Gidariaren alboko jesarlekuan zihoana bikietako bat zela iruditu zitzaion. Ez zegoen ziur. Kasualitate handiegia izango zela begitandu zitzaion. Autoa mantso-mantso zihoan, ikertzailea patxadaz; Abisinia eskumara utzi, larrialdiko argiak ipini eta arean aitzinera gelditu zen.

Matiasi eskua berez joan zitzaion bederatzikora eta kulata leunki ferekatu zuen.

“Horiexek dira eta hurrupa egitera datoz” ezbaian jarri zen.

Buruan minutuko birak bizkortu zitzaizkion. Aukera bat zeukan. Urratsa zoliago ematen jarri zen, baina ez zuen agerian bistaratzea nahi. Buru-beroki beltzarekin eta moldura beltzezko betaurrekoekin maskaratuta zihoan bezala inork ez zion antzik emango, baina bera ondo ezagutzen bazuten, itxuragatik nor zen jakitea erraz egingo zitzaien. Egia da, norbere ohizko lekuetatik asago begiesterakoan, zaildu egiten dela bat-batean gizakia antzematea, baina bikiak bere atzetik

zebiltzan; bazekiten bera nor zen; bazekiten bere itxura zein zen; hala ere, bazitekeen baita, bikiek bere erretratu soil bat izatea.

Auto gehiago agertzen ari zen.

Susmagarriak zitzaizkionak, kaleko Gau Club bakarraren aitzinean ekuratu ziren. Segundo bat eta segitu zuten. Hamar metrora aparkatzeko lekua begietsi zuten. Horixe egin zuten, eskuin aldean. Automobiletik gidariaren albokoa atera eta Gau Clubera barneratu zen.

Matiasen kolpean burutik beherako hotzikara pairatu zuen. Zalantzak agertu zitzaizkion. *“Orain edo inoiz ez. Clubera joan dena badator akabatuta nago. Orain eta azkar”*, pentsatu zuen.

Deusen beldur gabe, ausardiaz, besapetik bederatzikoa jaso eta pilotukidearen atea ireki zuen.

-Esku bat bolantean eta bestearekin motorra abiarazi! -Manatu zion irmoki.

-Bizirik jarraitzea nahi dut, -tipoak.

-Horixe ba! Azkar edo zureak egin du.

Elementua jabetu orduko, Matiasen kulatarekin buruan sekulakoa eman eta gizona konortetik gabe geratu zen. Bizkor mugitu zuen, gidariaren ondoko jesarlekuan mozkorti legeaz uzteko. Emeki gidatu zuen autoa. Disimuluan, Jimmy Jazz kontzertu aretotik aurrera inor ez jabetzeko moduan zihoan. Gero, Eulogio Serdan hartu zuen, handik Gamarrara abiatzeko. Hiritik irtetzea nahi zuen. Galdeketa egiteko bakardadea behar zuen eta zuhaiztia; arbolak inork ez begiesteko eta tipoa bertan lagatzeko. Kapotean ere utz zezakeen, baina ikertzaileak berdea, natura, ura eta hotza maite zituen. Bazitekeen, hotzaren hotzez, gau osoa bizirik ez irautea, baina hori bikiaren arazoa zen, berea biziari eustea. Bien bitartean, soinekoak miatu zizkion.

Elementuaren telefonoa joka jarri zen; Matiasen ez zion jaramonik egin.

Berokiaren barneko eskuineko patrikeran Colt 45ekoa, berri-berria. Ezkerrekoan diru-zorroa. Behatu zuen. Nortasun agiria: izenak ez zion ezer esan. Bosteko bat gora-behera berrehun euro, elizain baten txartela, ordainagiri batzuk eta beste ezer gutxi. Sakristauaren helbide-txartela salbu beste guztia oinetara bota zuen. Bizkortu zuen abiadura.

Arraunketako euskal federazioaren kirol instalazioetara heldu aitzin, ezkerrean, arboladian, mendi-bide moduko batetik beribila barneratu zen. Matiasen urtegiaren ertzean, pagoen estalpean gelditu zuen autoa eta motorra itzali. Eskularru-kaxa behatu zuen: autoaren agiriak, plastiko zurizko bridak, laranja koloreko kuterra, zilindro itxurako linterna txikia eta gorria, kolore urdineko boligrafoa, herdoildutako klip pare bat...

Tipoaren mugikorrak beste behin ekin zuen doinu bereizgarria joka. Aitzineko deian bezala, ikertzaileak ez zion kasurik egin.

Elementua oraindinokarren konorterik gabe zegoen, edo hori ematen zuen, ezen ez zuen higidurarik eta begiak hetsirik zituen. Masailean zapladatxoak eman zizkion. Ez zuen zirkinik egin. **Matiasen** eskularru-kaxatik lokarria jaso eta eskuak gibelaldean estekatu zizkion. Ura behar zuen. Ontzi bat behar zuen. Ura bazeukan. Behatu zuen atzeko jesarlekua. Plastikozko ur botila hutsak. *“Zaingoan ibiltzearen ondorioa”*, otu zitzaion. Botila bat eskuarekin jaso eta urtegi ertzean bete zuen. Ez zuen lelokerietan ibiltzeko astirik eta litro eta erdi osoa burutik behera bota zion. Bikietakoa esnatu zen.

-Pentsatuz nengoen hilda zeundela?

-Non gaude? Hau ez dut ezagutzen? -Biritxia txakal zegoen, hala ere Matiasen haren ongizatea ez zuen aintzat hartu.

-A, hor dago koska, lagun!

-Zer egin behar didazu?

-Zer egin behar dizudan? Ezer ere ez. Baina horretarako galderatxo batzuei erantzuna ipini behar diozu. Jokoa entelegatzen duzu?

-Bai.

-Lasai egon, itaunak oso errazak dira; lehenengoan asmatuko duzu.

Tipoari begietan antzematen zitzaion nor edo nor hiltzeko irrika zuela; sumindura, amorrua idokitzen zuen. Horixe bera zen Matiasek desiratzen zuena, galdeketa egitean hortxe sentitzen zen eroso, besteak ezin zuenean ezer egin eta, ezintasun horren eraginez, haserrea azaleratzen zitzaionean.

-Ia, Eduardo, lehenengo galdekizuna. Zuok biok bikiak zarete?

-Bai.

-Zelan deitzen da zure anaia?

-Gorka.

Matias Eduardoren begien mugimenduei erreparatzen hasi zen. Begien higikerak ondo zekizkien interpretatzen. Pertsonaren barru barrutik jalgitzen diren egiak izaten dira. Begietan dago bakoitzaren sinesgarritasuna edo eta gezurren ispilua. Hitza ere izan liteke, baina elea sarritan mirail deformatzailea izaten da eta begiak sekula ere ez. Bikiak "bai" esan zuen aldi berean, bere begiak berez egin zuten behera, sortzetiko bulkada bezala, alegia. Matias jabetu zen Eduardok emandako erantzuna benetakoa izan zela, gainera karneta zuen egiaztatzeko.

Ikertzaileak bederatzikoa besapetik hartu eta gidariaren jesarlekutik tipoari kanoia buruan jarri ostean galdatu zion:

-Zer egiten duzue nire atzetik?

-Gu ez gabilta zu jagoten. Nondik atera duzu hori? -Tipoak.

-Entzun lagun, ez dut kokolokeriatarako astirik. Begitantzen baduzu hamarrera arte zenbatuko dudala erratuta zaude, hiru arte soilik kontatuko dut eta egia ez badidazu esaten zureak egin du.

Bestea jabal geratu zen, sinetsiko ez bazion bezala, benetan ibiliko ez bazen erara.

-bat... bi... hiru.

-Itxaron, itxaron.

-Bota.

-Bai, zure atzetik gabiltza eta zu hiltzeko agindua eman digute.

-Norentzat zabiltzate lanean?

-Ez dugu ezagutzen.

-Berriro hasiko naiz hiru arte zenbatzen? Berriro? -Matias arras asaldatuta.

-Ez, ez. Ez nauzu ikusten zein txarto nagoen! -Eduardok min keinua eginez burua artez jarri zuen; txakal zegoen.

-Ni gehiago. Etxean egon behar nuen lotan, baina begira, hemen nago, ezin naiz etxera joan norbaitek ni hiltzeko agindua eman du eta. Uste duzu inori iseka egiteko eran nagoela?

Gizona begira geratu zitzaion. Artegatuta antzematen zitzaion, baina aldi berean haren begiek izua agertzen zuten eta baita oldarkortasuna; hiltzeko gogoia. Tipoaren telefonoa berriro ipini zen bili-bili-ka. Matiasek ez zuen itzali, amaitu arte utzi zuen jotzen. Bikiak erantzuna ez zuen asmatu behar izan. Berehala bota zuen.

-Bai, bai, ondo dago.

-Esan ba, aspertzen hasi naiz eta.

-Elizainaren aginduz gabiltza.

-Zein sakristau?

-Zure etxe ondokoa.

-Nire etxe ondokoa?

-Bai.

-Zer egiten duzue zuok Zaperokon? -Ikertzaileak ez zuen laket izaten galdeketa jarraian egitea, nolabait gogoko zuen bestea nahastea, besteari erratuta, noraezean bezala zebilela pentsa eraztea.

-Maiz joaten gara hara. Gustatzen zaigu zeozer edan eta halako batekin egotea; badakizu.

-Bai, ez dut jakingo ba!

-Ba horixe, -bikiak.

-Sakristauak zergatik gura nau hilik?

-Ez dakit.

-Zergatik aukeratu zaituzte zuok biok?

-Aspaldi ezagutzen gaituelako.

-Nondik?

-Elizatik. Luistarrak garelako.

-Luistarrak?

-Bai.

-Baina Luistarrak aspaldi desagertu ziren bata! -Matiasek.

-Bai, baina guk jarraitzen dugu. -Biritxiak.

-Gainera zuok ez zarete parrokia horretakoak, ezta? -Matiasek.

-Bizilekua kontutan hartzen bada ez, baina beti joan gara eliza horretara.

Bikiaren telefonoa hirugarren aldiz ezarri zen alamera ematen. Matiasek ez zion kasurik egin eta jarraitu zuen itaunketarekin.

-Orduan erretorea ezagutuko duzue, ezta?

Matiasek elizainaren gainean egon zitekeenarengana joan nahi zuen. Ez zuen uste halako kontu baten ardura pertsona batek bakarrik izan zezakeenik, edo bai. Okertuta egon zitekeen. Bazitekeen kontu hartan elizaina guztien gainetik zegoen pertsona bakarra izatea eta, ezkutuan egonda, inork pentsa zezakeen baino haboro ahalmen izatea. Guzti hari iraganeko erregimenaren zantzua antzematen zitzaion; bazuen kiratsa, bai. *"Ikusi behar kordela noraino heltzen zen"*, ikertzaileari burmuinera iritsi zitzaion.

-Antzinako lagunak gara. Txikitatik gara etxeko. Gure gurasoen lagun handia da.

-Eta hain eliza zaleak izanda Gau Club-era, Zaperocora joaten zarete? Matiasek berriro apurtu zuen galdeketaren orden logikoa.

-Bai, zergatik ez gara joango, ba?

-Ba, jainkoarengan sinesmen sutsua duzue, ez dakit zelan joaten zareten horrelako lekuetara.

-Edozein pertsona legez.

-Baina gero konfesatu egingo zarete, ezta? Bestela infernura zoazte!

-Jakina baietz. Jesusek berak ere behin belauna makurtu zuen. -Bikiak.

-Jesus, Inazioaren lagunak diñozu? -Ikertzailea trufari.

-Ez, jainkoaren semea.

-A! -Kar-kar, Matiasek irri sotilari ironia ozpindua erantsiz.

-Hori, -gehitu zuen bikiak.

-Ez dakit ba nik! Parrokoak badaki sakristaua eta zuok zertan zabilzaten? -
Matiasek.

-Hori ez dakit, baina pentsatzekoa da baietz.

Erantzunaren berezko bulkadaren ondorioz, tipoaren begiek Matiasenak finkotasunez behatu zituzten, nolabait esandakoa baieztatuko bazuten erara, irmotasuna eta sendotasuna azalduz.

-Sakristauak zergatik gura nau hilik?

-Zure lanean ona zarelako eta berak ez zaitu nahi kontu horretan.

-Pertsona bat hiltzea oso gauza serioa da, hortaz kontua potoloa izan behar, ezta?

-Badirudi baietz. -Elementuak.

-Elizaina ezkonduta dago?

-Ez.

-Zein da erretorearen familia? Hori ziur dakizula, ezta?

Matiasek usaintzen zuen aginte mailan gora eginda bilatzen zebilen galderen erantzunak aurkitu zitzaizkela, nahiz eta oraindik berarentzat aginte maila non zegoen jakitea zalantzakoa izan.

Bikiak begiak doi-doi zuzenduz berriro behatu zuen ikertzailea. Ezbaian jarri zuen itauna, galdeketa norantz zihoan jakingo ez balu bezala. Hala ere, erantzun zuen:

-Bai.

-Ba, bota eta azkar! -Matiasek aginpide doinuarekin, harila askatzen hasita balego bezala.

-Bikarioak arreba eta iloba bat bakarrik dauzka.

-Zenbat urte ditu?

-Hirurogei eta hamar edo hortik.

-Arrebak?

-Ze axola du arrebak kontu honetan? -Galdatu zion bikiak harridura aurpegia ipinita.

-Aspertzen hasita nago, lagun. Ez dakit oraintxe bertan errekamarakoa ez ba dizudan buruan sartuko!

-Ez, ez, itxaron, bai, hirurogei eta hamabost-edo.

-Zelan deitzen da erretorearen iloba?

-Blanka.

-Zenbat urte ditu?

-Pasa den astean hil da.

-Baina zenbat urte zituen?

-Hogei eta hamabi.

Kanpoan egunsentia aurpegia ematen hasita zegoen.

Lokian kolpe itzela jaso bazuen ere, oraindik tipoaren aurpegiak jas egokia izaten segitzen zuen. Soinekoek izurdura bat bera ere ez zuten begiesten uzten eta, oro har, gaintetik botila bete ur gora-behera, biritxia aurkezarri zegoen. Ikertzaileak ez zekien bertan hilda utzi edo pago bati estekatuta ezarri. Bai, egiten zuen hotzaz, seguraski ez zuen gau osoa bizirik iraungo eta, ustez zegoen, horixe zela aukerarik onena, hots: hotzaren hotzez bera bere bakantasunean zendu azaltzea. Ezbaian jarri zen. Bazekien zalantzak ez direla adiskide onak. *“Zalantzak edukitzen direnean erraza izaten da huts egitea; horiek burmuinetik uxatu egin behar dira”*. Ekarri zuen garunera. Supituan, airean iritsi izan balitzaio bezala, beste bikia aurpegiaren aurre aldera agertu zitzaion. *“Guztiz papaoa ez bada laster jakingo du telefonoa non dagoen, beraz atoa izan daiteke hemen”*. Matias ernatu zen. Oldoztutakoa egin eta bikoitzen autoan hiriburura bueltatu zen.

ASTEAZKENA

12

Ikertzaileak ez zuen astirik hartu kuluxka bat egiteko. Arrapaladan zihoakion azterketan arras zegoen murgilduta; bazeukan zereginik.

Egunsentiaren aurreneko erlantzak ziren.

Patrikeran zuen elizainaren helbide-txartela idoki eta mahaian laga zuen. Ordenagailuari tapa igo, piztu, pasahitza ezarri eta USB memoria atakan kokatu zuen. Bi klik “ahantzi” izenburua zuen karpetan. begietsi zuen, Blankak eta Felipe deitutako batek, goizaldeko ordu biak aldera, Tinder-ez izandako elkarriketa; ematen zuen elkartzeko itsua izango zenaren atarikoa zela; bazirudien moztu itsatsia zela. Berriketa laburra:

-B hiriko jaietara heldu berri naiz. Nahi baduzu ikusi gaitezke. -Blankak Feliperi idatzia zion.

-Zein lekutan zagoz? -Felipek ia aldiberean erantzun zion.

-A lekuan. -Blankak.

-Txosnaren batean? -Felipek.

-Ez.

-Bidali koordenadak eta bilatuko zaitut. -Felipek.

-Oraintxe. A, bai, baina zure telefono zenbakia behar dut. WhatsApp-a hobeto koordenadak bidaltzeko, ezta?

-Beno, bai. Hobe.

-Hori ba!

-Oraintxe idazten dizut. Bidali zure atzean dagoen hormaren edo dendaren erretratua ere.

-Bai.

-E, eta zure erretratu bat.

-Eta zuk zeurea.

-Ok. -Felipek.

Bazirudien talde osoak zuela jazotako guztiaren kopia bana. Matiasek bideo guztietatik bat, soilik lehena hasi zen ikusten. Berehalakoan goragalea sartu zitzaion. Komunarako bidean korridorera jalgi zen. Barruak asaskatu behar zituen.

-Tori baso bete ur. Erizainak opatu zion.

-Ez, orain ez dut nahi. -Blankak erantzun zion.

-Arren, zurrutadatxo bat bakarrik ez bada ere, edan!

Blankak ezpainak busti zituen; seguraski ez zuen ezer irentsiko; bere gorputza ez zegoen horretarako. Txokean zegoen. Ez zuen zirkinik egiten.

Ertzain bat urbildu zitzaion.

-Blanka, Hurí naiz, beno horrela deitzen naute.

Blankak kaixo batez erantzun zuen.

-Egun on, bai. Blanka, esango didazu zer gertatu zaizun?

-Ba, lagunekin egon naizela eta galdu egin naiz.

-Non egon zarete?

-B hiriko jaietan.

-Zein ordutan izan da hori?

-Ba, ez dakit ziur, baina goizaldeko ordu biak aldera-edo horrela.

-Eta zer egin duzu?

-Elkartzeko itsua egin dut.

-Zure lagunek ez zeramaten telefono mugikorrik?

-Ez, batek ere ez. Neuk bakarrik neraman. Gure arteko joko bat asmatu genuen eta jokoa horixe zen, telefonoa neuk soilik eramatea; besteenak autoan geratu ziren.

-Eta ez zenuten ezarrita lekuren bat-edo galtzen bazineten han elkartzeko?

-Bai, orduero automobilean. E, Hurí, itxaron. Oraindik ez dakit salaketarik jarriko dudana ala ez.

-A, uste nuen horiek, madarikatu horiek harrapatzea nahi zenituela!

-Orain ez dut hitz egiteko gogorik; ez dut kemenik ezertarako.

-Ondo dago. Lasai hartu. Dena den, ospitalean izango zaren denboran gu ere hemendik ibiliko gara eta, gero ere, komisaldegia badakizu non dagoen. Tori nire txartela.

-Eskerrik asko.

Blankari ama hurreratu zitzaion.

-Blanka, salaketarekin zergatik ez duzu jarraitu?

-Nekatuta nago, ama. Gainera, osabarekin hitz egitea nahi dut. Pairatu dudana guzti hori berari jaulki eta ia zer aholkatzen didan. Etxean hitz egingo dugu sakonago. Bai?

-Ondo dau, laztana. -Amak.

Matias sabela hustuta bueltatu zen bere mahaira. Nasaiago zegoen. Ordenagailuari estalkia jaitsi zion. Elizainaren helbide-txartela eskuetan jaso zuen. Egitasmo bat gertatu behar zuen haren higidura guztiak ezagutzeko, nondik norakoak, ordutegiak eta gainerako enparauak. Elementuaren izen abizenak ahoz gora bota zituen: Anselmo Villaviejo. Behatu zuen izenaren behe aldean azaltzen ziren helbidea eta telefonoa. Taldea elkartu behar zuen. Laguntzaileari ohartxo bat idatzi zion: -Luzia, deitu Bixente eta Mikel eta esan hamaiketarako hona etor daitezela. Zu ere egotea nahi dut. Gero arte.

Bulegotxoa epeldu nahian, berogailua lotsaturik zebilen.

Ikertzailea hotzaz dardarka zegoen. Sofan etzateko botak soilik kendu zituen eta gainetik, burua ere estaltzera, albo batean beti tolestuta izaten zuen manta jarri zuen. Neke handiak hartuta zuen eta ondorioz lo apur bat egiteko beharrak gainezka egin zion.

-Blanka, etorri. -Itxuraz otzana eta jabala zen erizainak manatu zion.

Komuna eta aldagela zuen gela batera eramaten dute.

-Blanka, tori, erantzi soinekoak eta jantzi bata.

Blankak ez zuen ezer esan eta agindutakoa egin zuen.

-Amarekin etorri zara, ezta?

-Bai.

-Oso ondo. Orain gure historialerako zer egin dizuten jaulki beharko diguzu.

-Bortxatu egin naute. -Blankak begiak zoruan finko ezarrita zituela aitortu zion.

-Batek? Batek baino gehiagok?

-Bost mutil izan dira, baina ez dakit zenbatek.

-Drogatu egin zaituzte.

-Uste dut baietz.

-Ia, ahoko DNA-ren laginak hartu behar dizkizut. Badakizu zelan egiten den, ezta?

-Bai.

-Eta ubeldura hauek? Zelan egin dituzu? Jakitun zara zelan dituzun besoak?

-Ez dakit.

-Baina eta izter biak dituzu ubelduraz beterik bata!

-A, ez ditut erreparatu; min arina nuela bai jabetu naizela.

-Jarraian egin behar dugunaren ostean, forentsearekin egon behar duzu, bai ala bai. Ados?

-Bai.

-Ia, ireki ahoa. Horrela, oso ondo. Badago. Odola idoki behar dizut jakiteko nolabaiteko infekzioaren bat-edo kutsatu dizuten eta, baita, drogaren baten aztarnarik agertzen den. Atoan egingo dugu. Estutu ukabila. Horrela, oso ondo. Orratzarekin min apurtxo bat bakarrik eta berehala amaituko dugu.

-Ondo zagoz?

-Bai.

-Ez zara zorabiatu!

-Ez, ospitaleko kontuei ondo eusten diet.

-Orain jarraian frotis-ak datoz, hamabi orotara: lau baginakoak, beste lau ondestekoak eta azken laurak bien arteko tartekoak. Egingo dizudan beste gauza bat zera da, espekulu batekin, baginako jariakinaren laginak hartzea.

Bixente deunaren kanpandorrean, eguerdiko Angelus Domini nuntiavit Mariae-ren hamabi kanpaiak entzun ziren.

Ikertzaile pribatuaren langelan, Luziak egin berri zuen kafea edaten hirurak isilik zeuden, Matias noiz esnatuko itxaroten. Zeozertan hasteko gogoz beterik begiesten zitzaien, guzti hari irtenbidea aurkitu eta berehala amaitzeko antsiaz zeudela ere. Nagusiaren mahaira katilukada ederra eroan eta edari energetikoaren albora madalena bat laga zuen. -Hori nekea arintzeko ondo etorriko zaio, gainera badakizue ikuspegia hobetu eta animoa ere igotzen duela. -Bota zuen bulegariak.

-Beharko du, -gaineratu zuen Bixentek. Mikel isilik zegoen; gogoetan ari zen, burmuina kiribilean izango bazuen erara.

Halako batean, Matiasek burua jaso zuen.

-A, hemen zaudete hirurok. -Manta gainetik kendu eta jaiki zenean nagiak atera zituen. Ezer esan gabe, korridorera jalgi zen. Komunako konketan aurpegia uraz araztu, begietatik piztak edeki eta adatsa eskuarekin leunki gibelera eraman zuen. Toailarekin indartsu sikatu ostean lanlekura itzuli zen. Barneratu bezain laster, inori ezer esan gabe, berbetan abiatu zen bere buruari arituko bazitzaion, nolabait hotza uxatuko zuelakoaren esperoan:

-Bart, Bixenteri adio esan ostean, ehizan jalgi izan naiz. Zori itzela izan dut eta bikietako bat euren autoan osteratxo luzea egitera gonbidatu dut. Askatu du mihia. Ordu batzuk lehenago baino askoz ere gauza gehiago ezagutzen dugu. Badakigu guzti honen atzetik elizaina dagoela. Izena: Anselmo Villaviejo. Bai, badu kiratsa. Ematen du erregeen estoldetakoa dela, ezta? Oraingoz ziurtasunez jakitea zaila bada ere, baliteke bikarioarekin bat eginda jardutea. Zergatik? Ba, guzti honen arrazoa, nire ustez eta ziur aski, sotanadunaren ilobarengan dagoelako. Blanka. Zuk Luzia bere eskola kausitu zenuen. Ba, kontua da mutil talde batek bortxatu zuela. Hori, guzti hori, duela hamabi urte gertatu zen.

-Eta Xalbador eta Felipe zergatik hil dituzte orain? -Luziak guzti hura garunean ondo kokatzeko asmotan.

-Ba, ustez nago, orduan iloba eta osabaren artean nolabaiteko pakto bat izango zela eta orain arte ez dute ezer egin; uste dut ilobak ez zuela nahi izango berbiktimizatua izatea, diot. Ziur nago, urte guzti horietan, taldekoen jarraipena egiten ibiliko zirela eta, Blanka hil ondoren, bortxatzaileak garbitzen hasi dira. Oraingoz bi hil dituzte eta, ez izan zalantzarik, besteen atzetik ibiliko direla. Baina, eta beti dago baina bat, ni ere hausnarrean ibili naiz eta, pentsatzen dut, Antselmoren gainetik ez dagoela bikarioa. Talde guzti horren burua, horixe dela ematen dit, eta isilpean hariak berak bakarrik mugitzen dituela. Zergatik? Ba, ezinezkoa egiten zaidalako, erretore bat erailketen atzean dabilela pentsatzea. Ez dut uste Aitagurutzeko Loidi berpiztu denik. Elizaina? Bai, nola ez. Nik uste dudana bezalakoa bada, inolako arazorik gabe gainera.

-Beno, eta orain zein da gure zeregina? Luziak aurrerako ekintzaren bidea zein izan zitekeen jakin gurean bota zuen.

-Ba, Luzia, Antselmo hori nor den ezagutu behar dugu; batez ere bere itxura, bere aurpegiera.

-Eta gero? -Mikelek.

-Gero, elementu horren jarraipena egin behar dugu. Bere kontu guztien ezagutza izan behar dugu. Kaletik zein ordutan higitzen den. Bistara zer egiten duen. Eliza barruan ohizkoak dituen orduak. Erailak bere gain hartuta badabil, tipoak kristoren boterea dauka eta galbidetsua da. Zertxobait gehiago esaten uzten badidazue zera esango nuke: tipo hori ez dut uste K deunaren elizako elizaina bakarrik denik. B eta M deunarenak ere begiratu beharko genituzke eta akaso katedral zaharra baita. Lehenbailehen bere erretratu bat lortu behar dugu-. Matiassek.

-A, zelango taldea elkartu garen gu ere! -Luziak irribarrea ezpainetan jarrita.

-Beraz, has gaitezke mezetara joaten. -Ordura arte isilik egon zen Bixentek bere gogoeta bota zuen.

-Has gaitezke. Arratsaldeko bostetan hemen. Nik beste zeregin bat daukat egiteko eta banoa. -Matiassek.

-Blanka, itaundu behar dizut ia azken hirurogei eta hamabi orduren bueltan sexu adosturik izan duzun. -Erizainak begietara finko begiratzuz itaundu zion.

-Ez, tarte horretan ez dut sexu adosturik izan. -Blankak irmoki ihardetsi zion.

-Ia, Blanka, azkenengoz bagina inguruari tindagaia emango diot. Horrekin lortuko dugu jakitea zein alde dagoen kaltetuta edo eta minduta.

-Ondo.

-Nahikoa da. Zoaz komunara, egin behar duzuna egin, soinekoak jantzi eta bueltatu. Baduzu hor barruan edukiontzi txikia, aldean duzun bata bertan lagatzeko.

K deunaren elizan, ordu batean hasten zen goizeko azken elizkizuna. Luziak nahi zuen bertaratzea eta beste biak ez zioten inolako eragozpenik jarri.

Beretter baten laguntzaz, apez batek ofizioa egiten zuen. Gizonezko adindu bat ere bazebilen batetik bestera, pulpitutik sakristiara, handik aitorlekuen ondotik, kanpotik bulegoa ematen zuenekora. Luzia, eskuma aldeko banku ilaran erdialdera, atso baten aldamenean zegoen jesarrita, lausengatu egitera, ezagutu behar zuena nor zen jakiteko eginahalean. Gizonezko adindua bigarren aldiz begietsi zuenean, alboko adintsuari ia halakoa Antselmo Villaviejo zen itaundu zion. Andrazkoa ez zen berritsua, hala ere, baiezkoa eman zion zurrumurrua ahotik aterako bazuen erara. Dagoeneko, Luziak ikusi zuen lehen aldian erretratua disimuluan aterata zion. Hurbilagokoa izateko, beste aukera bat zegoen iguriki eta, izan zuen, ordea, ez zen elizatik atera, eta susmorik ez sortzeko, elizkizuna amaitu arte begira egon zen, pitean-pitean, astuna suertatu gaberik, itaunen bat edo beste aldamenekoari zuzenduz. Bigarren argazkia ateratzetik gerora, elementua ez zuen eliza barruan berriz ikusi. Meza amaitu ondoan, Luzia deigarri agertu barik kanpora irten zen eta txakurrarekin eguerdiko osteratxo egiteko jalgi zen.

Ordu biak aldera, taldeko beste biak Gorbeia bodegoian elkartu ziren.

-Zuk zer? -Bota zion Mikelek.

Bixente ez zegoen hitz egiteko gogo handiarekin eta, solasketa abiatu ordez, bi ardo eskatu zituen.

-Ezer ere ez, Mikel. Uste dut kontuak oso gogor jarraituko duela eta denok gaude zuhur jokatzeko beharrean. Horiek dira sasoia bateko erregimenaren inguruko zantzuak eta jende oso bortitza da. Gazte horiek Blanka bortxatzearekin euren kontra egin dute eta ez dira geldituko denak erail arte. Gu gazte madarikatuen eta

horien artean gaude, eta gu gara begizta bigunena. Kontuz ez bagabiltza hor agertuko gara arekaren batean.

-Zer gertatu zitzaizuen bi elementu haiek garbitzeko?

-Ba, La Malqueridan nengoen oso lasai kafea edaten eta egunkariko titularrak begiesten Matias barneratu zenean. Berak nahi zuena eskatu baino ez nuen egin, bi tipo sartzekotan zirenean, baina gure nagusia begietsi zutenean, buelta-erdi eman eta karrikara jalgi ziren. Matiasek badakizu zelango usaimena duen, ezta? Ba, ez irteteko esan zidan eta kanpoaldera zihoala, ni bere atzetik, ezen ez nion kasurik egin, ba, tiroketa hasi zen. Emaizta badakizu, ezta?

-Bai, noski, Bixente.

-Blanka, hobeto zaude?

-Bai, eskerrik asko.

-Ia, Blanka beste gauzatxo bat. Begira, antibiotikoak emango dizkizut sexu-bidezko gaixotasunen bat izateko galzorian egongo bazina babestu zaitezten. Lau pilula dira eta laurak aldi batean irentsi behar dituzu. Beste hau biharamunekoa da. Eta kontutan izan: gehiegizko odoljariora, edo arnasteko zailtasunak, edo urtikaria, badakizu, azalean azkura ematen duten pinporta gorritxoak ateratzen bazaizkizu, edo eta zeure buruaz beste egiteko gogoak etortzen bazaizkizu, orain emango dizkizudan paperetan agertzen den telefonora deitu. Deitu inolako konpromisorik gabe, baina deitu.

-Bai, eskerrik asko.

-Ba, ia Luziak ezer lortu duen? -Mikelek patxadaz.

-Beno, eta ez badu ezer lortu, bihar berriz saiatu beharko gara, ezen nik ere uste dut aurpegi hori ezagutzeko horixe dela biderik egokiena, edo behintzat denbora gutxien hartuko diguna. Hala ere, beste trikimailuren bat ere asmatu dezakegu, baina arriskutsua gerta liteke, gutariko norbait agerian geratuko litzatekeelako. Eta, badakizu, bat ezagututa besteak nortzuk diren erraz jakiten dela. -Bixente, bizkortuta, hitz egiteko gogoak berreskuratuta zebilen.

-Zein izango litzateke trikimailu hori, Bixente?

-Ba, aitzakiaren batekin, gutariko norbait bere bila hastea. Desenkusa edozein gauza izan liteke: familia txiro batek laguntza behar duela, edo senideren bat narkotiko kontuetan dabilela eta zer egin dezakeen galdetuz, edo beste edozer gauza asmatu daiteke.

-A, bai. Baina agerian geratuko litzateke eta hortik arriskua. -Mikelek.

-Bai ba!

-Ia, goazen beste batera. Ze arraroa Matias oraindik agertu ez izana, ezta? - Arduratuta bota zuen Mikelek.

Osabak iloba besarkatzen duela ikusten da. Bata besteari itsatsita bezala daude. Halako batean Blankari jesartzeko esaten dio.

-Ia, Blanka, esadazu gertatu zaizun guztia.

-Bai, osaba, bortxatu egin naute.

-Pluralean diñozu.

-Bai. Bost izan dira, nahiz eta ez dakidan bostak izan diren.

-Lasai, Blanka. Egingo dugu aurrera. Ia, hasi hemendik atera zineten unetik. Nortzuk joan zineten?

-Ba, lagunak, betiko lagunak, badakizu nortzuk diren, ezagutzen dituzu. Badakizu euren gurasoak ere nortzuk diren. Betiko laurak osaba.

-Zure autoan joan zarete?

-Bai.

-Ia, jarraitu kontatzen gogoratzen duzun guztia. -Erretorea nasaia zen, eroapen handiko pertsona.

-Ni nengoen... goizaldean lagunengandik galdu egin naiz.

-Gogoratzen duzu zein ordutan izan den? -Bikarioak.

-Ez dakit ondo, mugikorrean izango dut. Mugikorra kendu egin didate, hala ere, uste dut goizaldeko ordu biak-edo izango zirela.

-Eta zer egin duzu?

-Sare sozialetan ezagutzen dudak batekin elkartzeko itsua egin dut.

-Nongoa da?

-Hemengoa.

-Zelan deitzen da?

-Gero, xehetasun horiek gero, idatziz lagako dizkizut zure lanlekuko mahai gainean.

-Ondo dago. Esadazu zelan egin duzun elkartze itsua.

-A puntuan nengoen eta bertatik. Lehenengo idatzi nion B hiriko jaietan nengoela eta nahi bazuen elkar ikus gintezkeela. Berak galdetu zidan non nengoen eta nik A puntuan erantzun. Koordinadak eskatu zizkidan eta nire erretratu bat, eta nire

gibelean nuen hormaren edo dendaren baten erretratua ere eskatu zidan. Nik neure aldetik bere argazki bat ere eskatu nion.

-Eta aurkitu zintuzten, ezta?

-Bai.

-Eta gero?

-Gero, prestatuta zuten eta hasteko zegoen kalimotxo botila batetik edateko eman zidaten. Handik gutxira txarto sentitzen hasi nintzen, zorabiatuta bezala. Gauza arraroak behatzen hasi nintzen, begiesten nuena itxuraldatuta egongo bazen errealitate bat, edo horrela, oso kolore biziak nahasian. Bazter guztiak leporaino zeuden jendez, dena zen ukitua, broma eta esku sartzea. Baina ezin nuen ezer egin eta jende-mareak eramaten zaituen bezala, eurek nahi zuten lekurantz ninderamaten.

-Goazen galdu zineten unera eta eurekin elkartu zinenera. Zenbat ziren?

-Bost, eta euren artean nik saretik ezagutzen nuena zegoen. Alaiak, dibertigarriak ziren. Lelokeria asko esaten zituzten eta barreka gelditu gabe zebiltzan.

-Elkar agurtu zenuten, ezta? Gogoratzen dituzu euren guztien izenak?

-Bai, elkar agurtu genuen, baina besteen izenak ahantzi egin ditut.

-Bai, normala da. Egon lasai. Saiatu zaitez azaltzen hortik aurrera.

-Jendetzaren artetik oinez segitu genuen, ez dakit norantz gindoazen eta ezinezkoa egiten zitzaidan denbora neurtzea. Oraindik ere ez naiz gai hutsartea izartzeko. Nonbaitera heldu ginen. Nik ezagutzen ez nuen tren geltoki bat zela ematen zuen. Gomutatzen dut bortxatzen ninduten bitartean egiten zidaten guztia grabatzen zutela. Amaitu zutenean esan zidaten salatzen banituen, poliziara akusatzerako joaten banintzan, eurek niri egindako guztiaren bideoak sareetan eskegiko zituztela.

-Gogorarazten duzu zenbat iraun zuen?

-Ez, oraindik ere astiaren nozioa ez dut berreskuratu.

-Horren ostean, zer egin zenuen?

-Ba, erdi burtzoratuta, burua joanda bezala nengoen. Apur bat bizkortu nintzenean jabetu nintzen inguruan ez nuela inor. Arropak ahal izan nezakeen ondoen janzten saiatu ondoren, autoa non utzita nuen gogoratzen nuenez harantz abiatu nintzen. Nire koadrila zain nuen. Elkar ikusiaz batera, lagunak zerbait larria jazo zitzaidala erreparatu zuten eta salaketa jartzeko erregutu zidaten, baina nik neure indar guztiekin etxera bueltatzea desiratzen nuen. Hona heldu garenean, amari hots egin eta ospitalera joan gara. Han bortxatu egin nautela esan diedanean, eurek protokoloa hasi dute, eta, handik gutxira, Hurí deitutako ertzain andrazkoa etorri zait agitu zaidana berari aitortzeko. Baina ez diot gauza handirik esan. Indarrez hartu nautena bai, baina beste ezer gutxi.

-Ondo dago, Blanka. Ondo egin duzu. Orain nasai egon. Ez zaizu ezer gehiago gertatuko. Dagoeneko nahikoa eta lar pairatu duzu. Orain neuk babesten zaitut.

-Osaba nik ez dut salaketaren martiriotik pasatzea nahi. Esan didate den-dena lau aldiz-edo azaldu behar dudala. Gero epailearen aitzinean beste hainbeste egin beharko dut eta harrapatzen badituzte berriro. Badakit biktima naizela, nola ez dut jakingo ba, neure borondatearen kontra, drogak eta indarra erabilia bortxatu egin naute eta. Badakit zer egin didaten! Aukera izango banu oraintxe bertan hil egingo nituzke. Baina, osaba, ez dut nahi berbiktimizatua izatea. Berriro ez. Eta, guzti hori, sinetsi nazaten, sufritzen nagoena sinetsi nazaten. Ez, berriro ez. Dena ahaztea nahi dut. Ez dut irratietan eta telebistetan agertzea nahi. Ez dut kaletik noala jendeak seinalatzea. Lasai bizi nahi dut. Lehengo bizimodura bueltatzea nahi dut, pertsona normal baten antzera jarraitu nahi dut bizitzen, zaila izango da baina.

-Lasai egon Blanka, ni arduratuko naiz guztiaz.

Arrastiriko bostetan, elur xehearen mihisetik kaleko argiak indartuta begiesten ziren, lore-zuri jelatuaren gauari zidor ezkutua ikusarazteko borondate irmoaz. Gainera, ohorea, ametsen mundua, baita inoiz lehortuko ez den betiko maitasuna bueltan zetozen eta airearen uluekin iragazita aditzen zen edertasun arraroak bere espazioa eskatzen zuela, nasaitasunak ere bai, eta erregua: arren, idatzi egidazu. Apeuz deia.

Bulegoan Gorka Urbizuren “Maitasun bat” abestia entzuten zen.

-Luziak lortu duela erretratua, ezta? -Matias lanlekura barneratu zenerako beste hirurak irribarretsu zeuden.

-Hori bakarrik ez! -Mikelek.

-Ia ba, bota. -Matias berrien gosez zegoen.

-Ba, erretratua lortu dudala eta Bixentek dio berak elementu hori B deunaren elizatik ateratzen begietsi duela. Nik diot hori ezinezkoa dela eta horretan gabiltza.

-Luziak erdi harro erdi sinestezin.

-Bai, izan daiteke. -Matiasek.

-Ba, ez dut ezer entelegatzen. -Luziak.

-Bai, begira, eraikuntza horiek egin ziren orduko sasoi hartara joan behar dugu. Zelan eraikitzen zituzten eta zergatik. Orain elizen kontuarekin gabiltza, baina berdin izango litzateke, dorretxe, jauregi edo aberats baten etxea izan. Denak zituzten lurrazpiko pasabideak. Zergatik? Zertarako? Ba, bazekitelako lehentxoago edo gerotxoago, batez ere gosete handien sasoiari, gosearen gosez, jendaila, herri xumea lapurreta egiteko eurek hiltzera joango zela eta, erasoaldiari ezin eutsirik aurkitzen baziren, bizitza salbatzeko, jauntxoak eta maila horretakoak galeria horietatik ateratzen ziren; ihes egiten zuten. Hori alde batetik eta, bestetik, ahaide nagusien borrokak edo bando-gerrak XII. mendetik XV.era arte izan zirenak, ba,

badakizue, kontu bera. Hemen gauza bat dago argi, hiru eleizok katedral zaharraren zerbitzariak zirela, beraz sinestekoa da laurak lur azpiko tunelekin elkar komunikatuta egotea. Konturatzen zarete elizak sasoi hartan zelango indarra izango zuen; orduko hiriburua menpean zuten -Matiassek.

-A, ba, horrela izanda, dudagabe Bixentek behatu duena Villaviejo izango zen. Noski! -Luziak.

-Baiez ba, Antselmo izan dela. Erretratua agertu didazunean bera dela jakin dut. Nik ikusi gabe, inork ere ez dit hanka egiten; benetan bera izan dela. -Bixentek ziurtasunez baieztu zuen.

-Eta orain zer? -Mikelek itaundu zuen; ikerketari ekiteko gogoak antzematen zitzaizkion.

-Ba, nik Antselmoren atzetik joatea proposatuko nuke. -Matiassek zer egin behar zen erabat argi zuela.

-Nik ere horixe bera ikusten dut. Zurekin nago esaten duzunean guztiaren burua elementu hori dela, beraz diozuna. -Bixentek zalantzarik gabe agertu zuen, huraxe zela egin beharreko sentsuzkoena.

-Jakin behar dugu Villaviejok zenbateko taldea duen. -Mikelek buru-belarri gertatzen ari zitzaienaz erabat zopatuta.

-Jakin behar dugu non elkartzen diren, non egiten dituzten batzarrak; batzarrak eta egiten badituzte, ezen bere lana telefonoz bakarrik ere primeran egin lezake. -Luziak unean-unean argiago zuen bere egitekoa zein izan zitekeen.

-Ezinbestekoa zaie nolabaiteko batzarrak egitea. Behar bada aldi berean jende gutxi biltzen direnak izan daitezke. -Mikelek

-Denok gaude arriskuan, beraz, guzti hau gelditzea nahi badugu edo akordio batera heltzen gara, salatzen ditugu edo guztiak garbitu behar ditugu. Hiru aukera eta erabaki bat hartu beharra. Baina ezer egiten hasi aitzinetik horren inguruan

dagoenarekin blaitu behar gara. Arriskuak eta ekintzak biak ala biak ondo neurtu behar ditugu. Antselmoren antolaketa zein den jakin behar dugu, horrexek erakutsiko digu egitekoa. Beharbada bera garbituta nahikoa izango litzateke, baina hori esatea eta ezer ez, berdina liteke. Guzti horretaz zopatu behar gara. -Matiasek erlantz batzuren ekarpena egiteko antsiarekin-. Begira zer dagoen hemen.

ILUNTZEA

13

Ilunabar aurreratuan Matias Sararen bizilekuan azaldu zen.

-Kaixo, Matias. -Sarak irribarretsu egin zion diosala-. Etorri!

-Zelan? -Matiasek.

-Ondo. Aizu, Matias, astearte goizeko tiroketan hildako biren inguruko affaire-an nahasita zaude?

Tartetxo bat ezer esan gabe eman ondoan, Matiasek oso benazko behatu zuen. Bere aurpegierak ez zuen irri xumerik ere islatzeko intentziorik eta eten nimiñoaren aurrera hurrengoia iharduki zion:

-Hobeto ez badidazu ezer galdetzen. Ertzainak etorri zaizkizu itaunketa egitera?

-Ez, oraindik ez.

-Lasai egon, etorriko zaizkizu eta. Sakatuko zaituzte, baina ez etsi. Eutsin egin behar duzu, entzun?

-Bai, Matias, sinez diotsut.

Isilune bat egin zen.

-Sara, baduzu aluminio paperik? -Matiasek irribarrerik gabe segitzen zuen.

Sarak sukalderako joan-etorria laster batean egin zuen.

-Ia emadazu zure mugikorra!

Matiasek Sarak ema zion mugikorra eskuetan jaso eta aluminio-paperean bildu zuen, segidan berearekin beste hainbeste egiteko.

-Eta hori? -Sarak harriduraz.

-Horrela inork ere ez gaitu entzungo ez eta jakingo hemen biok elkarrekin gaudela.

-Orain ulertzen dut. Edango dugu zeozer? -Galdetu zion Sarak lasaiago.

-Bai eta zuk ere zerbait gogorra edan behar duzu.

-Whiski eskoziarra?

-Macallan? -Matiassek.

-Bai.

-Ederto, biontzat.

-Oraintxe.

-Sara, ez dakit nondik hasi. -Hemmes kristalezko armairutik jasotako bi baso eta Macallan botilarekin emakumea bere aldamenera hurreratzen zitzaiola Matiassek besaulkitik esan zion.

-Ba, hasieratik. Nondik ekingo duzu, ba? -Sarak axolagabe.

-Arazo biziki krudela daukagu aitzinean. Eskuartean daukagun kontua entelegatzeko nik neuk ere psikiatra lagun batekin egon behar izan dut, ezen ez nuen onartu nahi Xalbador bezalako pertsona bat, Felipek-edo horrelako gai samin batean barneratzeko gauza izango zirenik.

-Bota, Matias. Izango dena izango da eta aurre egingo diogu.

-Talde bortxaketa baten aurrean gaude.

-Xalbador ere bai?

-Bai.

-Nortzuk?

-Felipe, Joaquin, Alfonso, Jesus eta Xalbador.

-Zergatik? Zergatik egin dute horrelakorik? -Sarari berehala jarri zitzaion harridura aurpegia; zaila egiten zitzaion entzuten ari zena sinestea.

-Psikiatrak esan didanaren arabera, beste batzuk bezala, euren artean gizonen pentsamendu oker bat zuten kultura bihurtuta. Pentsatzen zuten gizonak andreen gainetik daudela eta, ondorioz, emakumeak kontrolpean izateko eskubidea zutela, eta, nola ez, andrazkoak gizonen beharrianak asetzeko daudela.

-Ene, ene, ene! -Sara larritzen ipinita.

Horixe zen pentsatzen zutena eta, gainera, uste zuten zuzen jokatzeko zutela, bestela jendeak epelak zirela pentsatuko zuelako, eta, ondorioz, andrazkoak ez zutela eurekin ibiltzea nahi izango. Horixe zen eurentzat jokabide zuzena. Irainak-eta, umilazioak-eta, gauza normalak zirela pentsatzen zuten, beti izan dela horrela. Eta begitantzen zuten baita, andra onak eta txarrak daudela. Noski, giza jokamolde horrekin, andra onak zigortuak izan behar direla uste zuten. Zergatik? Ba, horrelako emakumeak libreak direlako eta erabakiak hartzeko gaitasuna dutelako. Horren ondorioz, iruditzen zitzaion baita, edo dute, egun horrelako jendea badagoelako, sexualki bortxatzea emakumeak kontrolatzeko era bat dela. Gainera, bortxatzaileak bortxatzen duenean plazera sentitzen du, noski, burmuinak dopamina sortzen duelako, baina bortxaketa oroitzean, horrelakoek oraindik plazer handiagoa izaten omen dute.

-Joder zer etorri zaidan gainera! -Sarak ikaraturik segitzen zuen.

-Bai, galanta!

-Noiz izan zen hori?

-Duela hamabi urte.

-Hainbeste? Eta orain?

-Bai.

-Joaquin ere bai?

-Joaquin ikusle dohakabea.

-Ezin izan zuen?

-Ezin izan zuen ez zitzaizkiolako eta ez zaizkiolako andrazkoak gustatzen, sexualki diot. Gainera, Joaquin bizirik dago Xalbadorrek babestu zuelako, ekintza gau berean eta gerora ere bai.

-Joder, joder, joder!

-Nik esango nuke arazo kultural baten aurrean gaudela, berdintasuna ez onartzearena, alegia. Batzuk inondik inora ez dute ametitzen emakumeak eta gizonezkoak kidekoak garela eta eskubide berdinak ditugula. Eta hori onartzen ez dugun bitartean jai daukagu; horrelako pertsonak existitzen jarraituko dute. - Matias goibel zegoen.

-Baina ez hori bakarrik. -Sarak.

-Zer gehiago dago, ba?

-Ba, plazerarena! -Sarak.

-Ez, Sara, berdinak garela aintzakotzat hartu eta horren alde borrokatzen badugu egina dago.

-Ez, sadismoa dago. Hor beste arazo handi bat dago. Eta zer da sadismoa, ba, norbaiten sexu galbideratzea, perbertsioa, alegia. Pertsona sadikoak berak kitzikapena izateko, beste pertsona bati ekintza krudelak egin behar dizkio. Sadikoak, biktimaren onarpenarekin edo gaitzespenarekin, bere baitan egiazko ekintzak sortzen dituen sexu bulkadak eta portaerak izaten ditu. Eta nondik datorkio sexu kitzikapena ba, menderatutako pertsonaren sufrimendu psikologikotik, fisikotik edo eta umiliaziotik. -Sarak ondo dokumentatuta zegoela ematen zuen.

-Bai, hori ere larria da. -Bota zuen Matiasek.

-Ez da izango, ba?

-Orain artekoa nolabait euren portaera ulertzeko edo, horrelako basakeria baten aurrean ezer ulertu beharrik badago. Baina erailketen atzean nor dago eta zergatik? -Ikertzaile pribatuak solasaldia egiten zebilen azterketara bideratu zuen.

-Bai, egun hori da benetan interesatzen zaidana. -Sarak.

-Ziurtasunez esan dezaket bortxatu zuten neska pasa den astean zendu dela. Bikario baten iloba zen eta, badirudi, gertaera ez aireratzeko, bere osabarekin nolabaiteko akordio batera heldu zela, seguraski ez zuelako nahi berbiktimizatua izatea. Horregatik orain arte ez omen da ezer gertatu. Baina bere osabak bazuen eta badu konfiantzako pertsona bat, hainbat urtetan bere elizaina den Anselmo Villaviejo, alegia. Eta itxuraz elementu horrek gertaera guztiaren berri dauka. Gure ikerketaren arabera, esan dezakegu bi erailketa horien atzean sakristaua dagoela; beharbada bikarioa ez da enteratu ere egin; apika diot, edo hori da nik sinestea nahi dudana. Elementu hori erregeen estoldetakoa dela uste dugu eta pentsa ezinezko boterea du. Soberako susmoak ditugu ondorengo gogoeta egiteko, hots: jazotzen ari dena, antolaketa, ikerketa eta ekintza guztiak bera bere nahierara egiten eta desegiten dabilela. -Matiasek egoera argituz.

-Ezin dut sinetsi. Ezer jakin gabe, semeari eta biori zer etorri zaigun gainera! Joder, joder, joder! -Sara txit atsekabeturik.

-Esan dizudan guzti hori dena laburbilduz bota dizut. -Matiasek argibide gisa gaineratu zion.

-Kolpea handiegia izan ez dadin. Eskertzen dizut, Matias. Hala ere, sakonago hitz egiteko izango dugu denbora. Dena jakin behar dut; arren eskatzen dizut.

-Sara, beste gauza bat. -Matiasek.

-Ene jainko maitea, arazo gehiago! -Sarak deiadar egin zuen.

-Ez dakit guzti honek nolako amaiera izango duen, baina tipo horrek jazo zenaren informazio guztia dauka. Eta horrekin zer esan nahi dizudan, ba berak, edo

informazio hori jarauntsiko duenak, nahi izango zukeenean dakien hori xantaia egiteko erabil dezakeela eta ezin izango zenukete sekula gainetik kendu.

-Orduan zer egin behar dut, Matias? Sarak, atsekabetuta, argibide galdera erregu erara egin zion.

Matiasek finkotasunez behatu zuen eta luzaro isilik geratu zen. Zurrutada txikia ema zion Macallan-i eta kaleko leihora begiak iltzatuta ezarri zituen. Arrats ilunean karriketako farolak piztuta bazeuden ere, egongelara apenaz barneratzen zen argitasunik. Halako batean, ezpainen artetik zurrumurrua izango bazen erara, esaldi labur bat ilki zitzaion: -Zuk ezer ere ez.

-Matias! -Sarak deiadar egin zion.

Matias gure haitz irmoak bezala zegoen, ebatzia hartuta izango bazuen legez, baina inori ezer aitortzeko asmorik gabe.

-Sara, uste dut hitz egiten gabiltzan guzti hau Karla Dominique andreari partekatu beharko geniokeela.

-Uste duzu beharrezkoa izango dela?

-Bai, guzti honen berri izan beharko luke. Gainera diru apur bat gehiago beharko dut. Gai oso delikatueta barneratuta banago ere, azken ziztada emateko oraindik sakonago joan beharko naiz. Elizainak ikertuta daukan guztia jakiteko bahiketa-edo eta txostena, erretratuak edo eta bestelakoak ematen dizkigunean, eta non dituen gordeta ateratzen diogunean, garbitu. Ez dago beste irtenbiderik. A, eta beste gauza bat: lehenbailehen egin behar da.

-Zergatik hain arin?

-Poliziak ezer jakin aurretik egin behar da. Horrela, historia hau ilunbeetara eramango genuke eta, Xalbador, eta Feliperen erailketak kamuflaturik agertu genitzake; alegia, lapurreta baten ondorioz hil direla-edo. Ez dakit ikerketa ofizialeko taldeak zein erritmo daraman, baina gu oso aurreratuta gabilta; ustez

nago urrats batzuk euren aurretik. Horregatik da hain garrantzitsua premia hartzea. Elementu hori bahitzen badugu txapel gorriek jai daukate.

-Baina lapurreta baten ondorioz hil direla, hori ez du inork sinetsiko!

-Berdin da. Uste dut bertsio ofiziala hortik joan daitekeela, gainera kasuaren sumarioa sekretupean dago. Datu gutxirekin ez dut uste hauspoa eragiten hasiko direnik eta, okerreanean, dena nahasi egingo genuke. Ez ahaztu eliza dagoela tartean eta ez dut uste nahaste guzti horretan elizak bere burua agertzea nahi izango duenik.

-Zenbat gehiago beharko zenukete?

-6.000 zuk eta Karlak beste hainbeste.

-Ez.

-E?

-20.000 bion artean. 10.000na bakoitzak. Ondo deritzozu?

-Beharko dugu. Beste gauza bat: diru hori ematen didazuenean zuok biok nahasita geratuko zarete. Hemen denok gara denon gaizkide. Ulertzen duzu?

-Bai, orain oso ondo entelegatzen dut. Zuok ere nolabaiteko segurtasuna behar duzue salatuak ez izateko. -Sarak.

-Zuok diñozu, baina ez da horrela.

-Zelan ezetz. Ez daukazu talderik, ala?

-Bai, Sara, zelan ez dut izango ba! -Matiasen ihardetsi zion-. Baina guztiaren informazioa neuk soilik daukak eta dakit. Besteek esaten diedana egiten dute. Aitatu berri dizudan azken ekintza hori adeltatzeko garbitu behar dena denek ezagutuko dute, baina xehetasunik gabe, azal azaletik bakarrik.

-A! Hain zuhur jokatzeko zabilzala jakiteak pozten nau. Sarak lasaiago.

-Bai, noski, gauzak horrela egin behar dira.

-Ia, amaitu basokoa, Macallan apur bat gehiago eskatzen dit gorputzak eta. Beste gauza bat: jar zaitez eroso, ze hemendik ez zoaz bihar goizeko gosaria egin osterarte.

-Bon. Banuen axola zaidan zeregin bat, baina egokituko naizela uste dut.

-Matias, deitu behar dut.

-Itxaron. Zugandik beste gauza bat behar dut.

-Zer.

-Prudentzio deunaren etorbidean baduzu etxeren bat salgai edo alokatzeko?

-Bai, bat ederra gainera eta giltzak hementxe.

-Lau bat egunetarako behar dut.

-Itxoin.

Sarak apenaz behar izan zuen lipar ñimiñoa, jaiki, ikertzailearen gibelean zegoen apalategira hurreratu eta giltzak jaso.

-Tori, Matias. Eta orain Karla deitu behar dut.

-Bai, lehenbailehen. Jaso telefonoa. -Matiassek telefonoari aluminio-papera kendu ondoren Sarari luzatu zion.

Sarak WhatsApp-ean Karlaren telefono ikurra sakatu zuen. Erantzuna jarraian jaugin zitzaion.

-Sara, esan!

-Karla, etxean zaude?

-Bai, zer behar duzu?

-Nire etxera etorri behar duzu. Matiasekin nago hemen.

-Orain?

-Bai. Ezin duzu?

-Bai, bai, oraintxe abiatuko naiz.

-Beste gauza bat: 10.000 ekarri behar duzu. Baduzu horrenbeste etxean?

-Bai. Lasai. Banoa.

-Bizilekutik irteten zarenetik arreta handia jarri. Zuhur jokatu. Xehetasun guztiak hona heltzen zarenean azalduko zaizkizu. Behar bada, honako tartean, Matias zure inguruan begietsiko duzu. Dagoeneko jalgi da zu zaintzera. Nor den jabetzen bazara ez egin kasurik, agurtu ere ez. Zu etorri hona. Ondo entzun didazu? Zu noiz helduko, beheko sarbidean iguriki izango nauzu.

-Ondo. Eskerrik asko, Sara. Banoa.

-Karla, beste gauza bat.

-Zer?

-Komenigarria izango litzateke gaua nire bizilekuan igaroko bazenu. Esku artean daukaguna kontu delikatua da.

-Ados. Gaua igarotzeko eramango dut zeozertxo.

-Arropa soilik, beste guztia badago hemen.

-Eskerrik asko, Sara.

-Inor ez da jabetu behar ezertaz. Entzun didazu? Dei bat ere ez inori. Entzun didazu?

-Bai, lasai egon. Banoa!

-Bai. Eskegi!

Sarak eten egin zuen komunikazioa.

-Ia, zurrutada bat eta banoa Karla jagotera. -Matiasek.

-Topa, dena ondo atera dadin. -Sarak.

Bi basoak klink hotsa atera zuten eta Sarak ia aldi berean -Santé hitza ahoskatu zuen.

-Santé, -Matiasek-. Hau saio bezala, gero Karlarekin egiteko?

-Bai ba. Kar-kar. -Biak.

Matias Sararen bizitegitik jalgi zen, Karlak egin beharko zuen ibilbidea nolabait zaintzeko asmotan.

-Osaba!

-Kaixo, Blanka. Dutxatu zara berriro?

-Bai.

-Karrikara zoaz?

-Ez osaba, ez dut nahi, ez dut adorerik.

-Lasai, Blanka, gogoak etorriko zaizkizu.

-Blanka lagunak deitu dizute eta karrikara jalgi beharko zinateke. Eurekin osteratxo bat eman, zertxobait edan, gaur egiten duen ilargi ederrarekin gozatu. -Amak maitekiro esan zion. Hirurak zeuden egongelan jesarrita, osaba, ama eta Blanka.

-Ez dut kanpoaldetik higitzeko kemenik, ama. -Horixe zen erantzun ziona, gerora mantra bezala maiz erabiliko zuena.

-Baina alaba, horrela ezin zara bizi. -Amak arduraturik ihardetsi zion.

-Indarberritzen naizenean jagiko naiz. Egon nasai, ama.

Emakumea ez zegoen ondo.

Blanka bere logelara zuzendu zenean, nebak arrebari egoera zein zen argitzen saiatu zen: -bai arrebatxo, zoriontasuna zirrara baikorra da eta sentitzen dugun zerbaitek asetzen gaituenean sortzen da. Baina ilobari nabaritzen hasi natzaio beti dagoela zer edo zer hobeagoaren atzetik. Lortzen duenak dagoeneko ez dio asebetetzen, eta ikusten nago baita, horren ondorioz, poliki-poliki, gauzak egiteko interesa galduz doala. Ustez nago psikiatra bat behar duela edo galduko dugu.

-Bai nebatxo, baina larrituta nago, izututa, ze ez dakit neure alabatxoari zer eta zelan esan behar diodan.

-Nasai, badaukagu laguntza profesionala eta ahal dugun ondoen egingo dugu.

Karla iritsi zen joan behar zuen etxebizitzako atarira eta agindu bezala hantxe zuen Sara iguriki. Gora egin zuten. Matias gerotxoago heldu zen eta bizilekura barneratzeaz batera Karlari musu pare bat eman zizkion.

-Kaixo, Karla Dominique andrea. -Esan zion.

-Karlarekin soilik nahikoa da. Bai, gau on, Matias. -Karlak ihardetsi zion.

-Ederto. Eskerrik asko. -Matiasek zeozertxo gehiago esan zuen: -Zera, Sara-, begietara begiratuz, -edateko geratzen zaizu zerbait?

-A, ni be! Karla zer edango dugu? -Sarak itaundu zion.

-Ba, ez dakit. Matias zuk? -Ikertzaile pribatuari behatuz.

-Zu deitu aurretik Macallan apur bat edaten egon gara, baina zerbait suabeagoarekin hasi beharko ginateke. Oraindik afaldu egin behar dugu eta graduazio handiagokoa osterako utziko nuke.

-A, Karla, xanpaina? Moet chandon rose daukat hozkailuan!

-Primeran, pila bat gustatzen zait.

Lehenengo koparekin, Karlak *Santé*, ahoskatu zuen eta, beste biak ezpainetan irribarrea agertuz, bata bestearen atzetik, *Santé*.

Matias hasi zen Sarari esandako guztia berresaten, baina laburbilduz bezala:

-Begira Karla, ez dakit ikerketa ofizialekoek noraino iritsi diren, baina pentsatzekoa da eurek ere laster gu gauden puntura ailegatuko direla, horregatik egin behar dena azkar egin behar dugu. Baina has gaitezen lehenengotik bestela ez gara inora helduko.

-Bai, arren Matias.

-Arazo oso larria daukagu.

-Zein da afera hori, Matias. -Erregutu zion Karlak.

-Nik ez nuen uste Xalbador edo Felipe edo era horretako gizonak halako kontu batean nahasiko zirenik eta entelegatzeko lagun dudan psikiatra batekin egon naiz.

-Ia, bota. -Karlak.

-Duela hamabi urte talde bortxaketa bat egon zen.

-Nire gizona ere bai?

-Zure gizona taldearen aurretik ibili zen.

-Nortzuk?

-Felipe zure gizona, Joaquin, Alfonso, Jesus eta Xalbador.

Karla behera begira ezarri zen. Ematen zuen instant batean albo-kalteak neurtzen ibiliko bazen antzera zebilela.

-Joder, putakume halakoa! Daukagun guztia hondatzeko tamainakoa.

-Bai, horixe da kontua, Karla. -Sartu zen Sara.

-Duela hamabi urte eta orain zergatik? -Eskatu zuen, Karlak.

-Biktima hemengo neska bat zen, erretore baten iloba eta pasa den asteen zendu da. Esaten nagoen guztia bideoetan eta erretratuetan daukat, beraz ziurtasun handiagorik beharko bazenu izango duzu. Gure ikerketaren arabera, jazoera haren ostean, Blanka, horrela deitzen zen, gertaera ez airatzeko bere osabarekin akordio batera heldu zen. Ustez nago berak ez zuela berbiktimizatua izatea nahi. Badirudi urteetan gauzak horrela joan direla. Bikarioak badu elizaina, erregeen estoldetakoa dela ematen duena, pentsaezinezko botereduna. Eta Blanka zendu denean, ba, bortxaketan parte hartu zuten guztiak erailtzen hasi dira. Oraindik zure gizona eta Sararena bakarrik hil dituzte, baina, ez dut zalantzarik, kontua hor ez dela geratuko

-Joder, Felipe, putakume hori! -Bota zuen Karlak eta Sarari zuzendu zitzaion:

-Sara, siku nago. Geratzen da ezer botilan?

-Bai. Zuk, Matias?

-Jakina!

-Hemen erronda baterako dago eta gero beste bat zabalduko dugu. Karla tamaina oneko hordialdia harrapatzea nahi duzu, ezta?

-Bai, Sara, behar dut.

-Nik be bai. -Sarak.

-Ni ez naiz atzean geratzekoa. -Matiasek.

-Arren, Matias, jarraitu.

-Bai. Beno, badakigu guzti honen giblean nor dagoen eta ezagutzen dugu. Orain, zein da arazoa?

-Bai, hori! -Karlak.

-Ba, Antselmo Villaviejok gertaera guztiaren xehetasunak dituela eta berak edo bere oinordekoak nahi duenean xantaia egin liezazuekeela, eurek nahi izango zuketen hainbeste alditan gainera.

-Antselmo Villaviejo deitzen da putakume hori? -Karlak erabateko irmotasuna agertzen zuen.

-Bai, -Matiasek.

-Putakumea! -Karlak berriro.

Sarak Karla begiratu zuen eta ilea ferekatu zion.

-Joaquinek ere bortxatu zuen? -Karlak.

-Joaquin ikusle dohakabea.

-Ezin izan zuen?

-Ezin izan zuen ez zitzaizkiolako eta ez zaizkiolako andrazkoak gustatzen, sexualki diot. Gainera, Joaquin txiripaz dago bizirik; taldekideak oldartu zitzaizkion.

-Joder, gizon madarikatuak zakila ezin mendean izan!

-Bai, halaxe da. -Sarak, lagunak bota zuenarekin bat eginez.

-Sara, arren zabaldu beste botila bat. -Karlak erregu gisa.

-Bai, oraintxe dakart. -Sarak kopan geratzen zitzaiona deblauki edan eta sukaldeko hozkailura zuzendu zen.

-Orduan zer egin behar dugu, Matias? -Karlari begietatik sua jalgitzen zitzaion. Edozein gauza egiteko prest zegoela antzematen zitzaion.

Matiasek finkotasunez behatu zion eta tartetxo batean isilik geratu zen. Zurrutada txikia ema zion xanpainari. Halako batean, esaldi labur bat atera zuen: -Zuok ezer ere ez.

-Baina eta nola orduan?

Matias isilik geratu zen beste behin.

-Gai oso delikatueta sartuta banago ere, azken ziztada emateko oraindik barrurago sartu beharko naiz. Elizainak dakien guztia ezagutzeko bahiketa-edo, eta informazioa non duen gordeta aitortzen digunean, garbitu. Ez dago beste irtenbiderik. Beste gauza bat: lehenbailehen egin behar da.

-Zergatik hain arin?

-Ba, egoeraren kontrola guk izan behar dugulako. Ezin diogu inori aurea hartzen utzi. Horrela, historia hori isilpean geratuko litzateke, Xalbador eta Feliperen erailketak kamuflaturik agertuko lirateke, alegia lapurreta baten ondorioz hil direla-edo. Uste dut ikerketa ofizialaren aurretik gabiltzala eta prest gaude azken ziztada emateko.

-Baina nork sinetsiko du lapurretarena?

-Horrek berdin dio. Uste dut bertsio ofiziala hortik joan daitekeela eta okerrenean dena nahasi egingo genuke. Gainera, ez ahaztu, eliza dagoela tartean eta ez dut uste kontu guzti honetan bere burua zikintzea nahi izango duenik.

-Eta diruarena, azken kontu hori burutzeko. -Karlak.

-Bai, Beharko dugu. Beste gauza bat: diru hori ematen didazuenean zuok biok nirekin nahasita geratuko zarete. Ulertzen duzu?

-Bai, Matias entelegatzen dut. Guk daukaguna ez galtzeko badakit zuk zer egin behar duzun. Zuk edo zuok bizirik jarraitzea edo bizitza galtzea jartzen ari zarete, guk diru apur bat eta okerrenean, uste dut, gure ospea, baina berriz ere zerotik hasteko aukera izango genuke. Zuok bizitza jokoan ezartzen duzue eta hori kitatzeko ez dago munduan nahiko dirurik. -Karlari egoera menpean hartuta zuela antzematen zitzaion.

Sarak beste Moet Chandon botila bat zabaldu zuen.

-Ia, kopa horiek!

-Berrero be siku nago. Gainera zer etorri zaigun, ezta Sara? -Karlak goibel.

-Bai, galanta! Karla, badakizu zer jazotzen den? Ba, gure gizonak ez ditugula ezagutzen. Eta orain, eskerrak Matias dugula gure alde egiteko, bestela, zer?

-Daukagun guztia galduko genuke. Berrero zeretik hasi behar. -Karlak.

-Puf. -Sarak goibeldurik-. Sadiko madarikatu batzuk izan dira eta ez gara ezertaz ohartu.

-Guzti hori ezagutu ondoren ez dut inolako zalantzarik. -Erabateko gorrotoa aurpegieran antzematen zitzaiola, Karlak ziurtasunez baieztatu zuen.

Matias isilik zegoen, aldizka batari, aldizka besteari behatzen ziola. Halako batean, Sarari zuzendu zitzaion:

-Eta afaltzeko zozertxo ipiniko bagenu?

-Bai, oraintxe bertan ekingo diot. Zuok lagundu mahaia atontzen, bai?

-Jakina. Mahai eta ezpain-zapiak?

-Erdur! Karla, zu ere bai!

Karla txokean zegoen.

OSTEGUN GOIZA

14

Azterketa zientifikoaren taldeak buru-belarri ziharduen eta aurrerapen nabarmenak zituzten burutuak. Nereari kale ikerketa gauzatzeko gogoak aienatzen joan zitzaizkion eta Lakuak eman aginduetan gogo betean ziharduen. Gainerako kideek jada egoitza nagusiko galdeketa gelan zituzten ospitalean atxilotutako ustezko sopikunak: bata farmaziako langiletarikoa zena eta bestea zeladore taldeko elementu bat. Ez zioten farmaziakoari garrantzirik eman, ezen haren kontua ospitaleak berak zigortu behar zuelako. Baina, bestea bai, besteak bazuen zerbait esateko. Ikerketakoak egiten zebilkion itaunketak norabait gidatuko zuelakoan zebiltzan. Aurrera egiteko, ezinbestekoa zuten lehenbailehen zeri heldu izatea.

Gauzak horrela, kalean zebiltzan gainerakoak andrazko baten atzekik ziharduten. Makuak eta Lakuak lortu xehetasunetatik Xalbador, eta ustez Felipe ere, erail zuteneko gauan eta haren ondoan, andrazko baten telefono zenbakia azaldu zen eta hari horretatik zebiltzan tiraka.

Nerearen telefonoa dardarka jarri zen. Pantaila begiratu gabe, *bai*, soil batekin ihardetsi zuen.

-Makua, aspaldiko esan beharko dizut!

-Eider, zer moduz?

-Ondo, beti ondo.

-Pozten naiz. Zer berri hortik.

-Beno ba, agurtzeaz gain, zera esateko, hemendik ere bagabiltzala kontuak ikertzen eta, besteen artean, zure bizilekuko lanpasean gutuna utzi zizunaren atzetik gabiltza.

-Eta?

-Ba, karrikako bideozaintza batean kausitu da zilindrada handiko motor bat eta horren matrikula aztertuta tipo bat atxilotu da. Itaunketa egin zaionean norbaitek itzartu zuela aitortu du.

-Eta nork kontratatu duen?

-Bai, horra nindoan. Akuratu zuenaren izen abizenak bota ditu eta, lana, mila euroren truke egin zuela. Jada hasi gara elementu horren atzetik, baina ematen du aienatu egin dela.

-Bon, azalduko da. Egon lasai, bazterren batean hor izango da.

Blanka betilun begiesten zen, arras goibel, eta ez zuen onera egiten. Aisetasunez asaldutzen zen. Ematen zuen hunkipenik gabe bizi zela, alegia, ez zuela inolako zirrara baikorrik sortzen. Apenas egiten zuen ezer, egonean ematen zuen egun osoa, bera soil-soilik bere isolamenduan, bere baitan bildurik.

Egunetik egunera makalago begiesten zitzaion.

Ez zuen bere lagunak deirik ihardesten. Ez zuen bizilekuko sarbidera hurbiltzen zitzaizkion benetako adiskideak ikustea nahi izaten eta erdi behartuta bezala egoten zen, unetxo bat, ia isilean, ezer esan gabe. Jazoera haren geroztik, ez zen gai ezein harreman egonkorrik izateko. Nekez ateratzen zen gelatik eta beraren pentsamenduetan batuta ziharduen ia egun osoa, mundu ororen isilean.

Goizeko hamaikak aldera, Matias La Malkeridara hurreratu zen kafea edateko guratuta. Sarlekura heltzear zela, bi ezezagun, arrunt jantzita, aitzinez aitzin behaztopa egitera, barneratzea eragotziz. Gorpuko plakak azaldu ziren. Aurretiaz berarekin izandako antzerako topaketa batetik, Matiasek haietariko bat ezagutzen zuen.

-Kaixo, Matias, minutu batean erdu horko zokora galdera batzuk egitea gura genizuke eta.

-Ia ba. -Matiasek.

Hedegile kalean bertan, metro pare bat Mikel deunaren pasabidera barneratu ziren.

-Matias, ia zure erreminta, atera!

-Tori.

Matiasek eman zien bederatzikoa eta, muturbeltz ipinita, itauna zuzendu zien: - Paperak ere aldean ditut, erakutsiko dizkizuet?

-Ez, ez da beharrezkoa. Bakar bakarrik behar dugu serie-zenbakia idaztea. Matias zelan jazo zen pasa den eguneko tiroketa? -Galdetu zion ezagutzen zuenak.

-Aizu Markos, nik zer dakit ba! Ez dakit zeri buruz ari zaren!

-Ia Matias, sobera ere ezagutzen dugu elkar eta badakigu zu izan zinela. Zu eta, bestea, nor zen?

-Markos, benetan ez dakidala zeri buruz ari zaren. Burdina bakar barrik jendea uxatzeko eramaten dut, ez besterik. Eta norekin nabilen galdetzen badidazu, zera

erantzungo dizut: ardandegietan dabilen edonorekin. Poltsikoan dirua izaten denean, ez da tabernetan lagun falta izaten eta edonor egiten duzu adiskide.

-Eta bi gorpuak lurrean uztea karterarik eta agiririk gabe? Hori zein pelikulatan ikusi duzu?

-Ia, Markos, nahikoa da.

-Noraino heldu zara ikerketan?

-Oraindik ez nau inork ezertarako akuratu, beraz niretzat eskaintzaren bat baduzue eskertuko nizueke.

-Ia, hi, txantxa gutxiago.

-Kafe bat edateko beharrean etorri naiz honaino. Goazen barrura, nik gonbidatzen zaituzte, eta gero, nahi baduzue, komisaldegira eramaten nauzue. A, hori bai, bilurrak ipinita, gero!

-Emadazu telefono zenbakia.

-Markos, joder, sobera ere badakizue nire zenbakia eta ez hori bakarrik, nire zakilak zenbat neurtzen duen ere bai. Ez etorri adarra jotzera, ostia!

-Lokalizatuta izatea gura zaitut, une oro. Ulertzen duzu, Matias?

-Bai, sobera ere bai. Emadazu bederatzikoa eta beste batera arte.

-Tori eta zaindu eik besapea edo kartzelan amaituko dok.

-Bat-batean ikaratu nok, hi!

-Zaindu hadi!

-Zuok ere bai, Markos eta konpainia!

Matias ostatuan barruratu zen eta deblauki kafe hutsa eta mistela bat galdatu zuen. Zerbitzariak eskatutakoa aurrera eramanean bertan, telefonoa bilinga jarri zitzaion. Begiratu zuen pantaila. Sara zen.

-Sara, esan!

-Matias, bi ertzain itaunak egitera etorri berri zaizkit.

-Eta?

-Ba, horixe, aipatu zenizkidan galderak egin dizkidate.

-Artegatuta zagoz?

-Apurtxo bat bai.

-Domenique?

-Zu jalgi eta lasterrera abiatu da bere bizilekura.

-Nahi duzu elkarrekin bazkaltzen badugu?

-Bai.

-Baina zure bizitegian izan behar du. Unerik larrienean gaude eta badakizu nire burutapena zein den.

-Baina hiritik atera gaitezke.

-Bai, baina denbora lar emango genuke. Ia itxaron. Beno, bea B plana zure etxekoa da eta ardorik gabe; gauza arina eta berriro lanera. Bai?

-Bai.

-Lasai egon. Agertuko naiz. Agur bat entzuten digutenei eta, bestea, zuretzat bakarrik.

-Agur.

Sara andrea izugarrizko estresaren menpean zegoen. Abagune hertsia berea. Karla Domeniquek ematen zuen zerebrala zela eta, itxura batean, sendoago zegoen. Baina, Sara, oso bihozbera zen eta sentipen biziak jabaltzea neketsuago egiten zitzaion.

Nereak bere herriko taldeak ikerketa zelan zeraman jakiteko asmoarekin Eiderri hots egin zion.

-Nerea, ba, badoa aurrera.

-Galdeketan duzuenak bota du zeozer gehiago?

-Ez, baina lortu dugu berak esandakoa atxilotzea.

-Eta?

-Ba, beste baten izena bota duela eta esandako elementu hori horko hiriburukoa da.

-Atxilotu duzue.

-Oraindik ez, baina laster izango da. Deituko dizut gorabeherekin.

-Ederto.

-Zeozer gehiago esango dizut.

-Zer?

-Hemengo iritzia da, zure bizilekuko lanpasean lagatako gutunak beste hildako horren berri emateaz gainera, dena nahastea izan dela. Hori da hemendik egiten dugun gogoeta. Eta goikoek zu horra igortzearen arrazoia, zuk ikerketan parte hartzen jarraitzea izan omen da. Hemen geratu izan bazina gauza gutxi egingo zenuen eta hor informazio guztia eskura daukazu.

-Bai, hori egia da. Gainera oso gustura nago. Egoten garenean goitik behera azalduko dizut hemengoa.

-Ederto. Besarkada estu bat.

-Beste bat.

-Akabatuta gaude. -Esan zion arrebak bere nebari.

-Ez gaude ondo ez, arrebatxo. Gainera, ematen dit gerorako uzten den zoriontasunaren sindromea ere badabilela gauzatzen. Egiten dizkiogun proposamen guztiei “ikusiko dugu, oraindik denbora daukagu” esanez geroko uzten du eta horrela dena kolokan ezartzen du. Ezinezkoa egiten zait bere burmuinean ilusioaren bat piztea. Ikasketak, lagunak, dena hari batetik zintzilik ipinita ditu eta, nabaritzen diot baita, apurka-apurka, bere nortasuna ere eraldatzen dabilkiola. -Erabat goibel, nebak bere arrebari aitortu zion eta jarraitu zuen-. Jakina da, gerorako uzten den zoriontasuna, zoriontasunaren kontrakoa bihurtzen dela. Alegia, besteak beste, horixe da gure neskatoa pairatzen dagoena. Gauzak horrela, ezinbestean bere barnera, apurka-apurka, ia jabetu barik, baldreskeria, goibelaldia, eta suminkortasuna erakartzen dabil.

K deunaren elizara barruratu eta ezkerrean, aitorlekuen ondora, Villaviejoren idazgela zegoen, zabala, luzea, argitsua eta erosoia, bertan patxadaz lan egiteko modukoa eta elizkizunak izaten zirenean, nor sartuko beti zabalik egoten zena.

Lanleku hartan, elizaina noiz helduko, ikertzaile pribatuaren talde osoa zegoen iguriki; jauretxearen haizealdean, Bixente soilik sargura aiduru, zerbait makurtzen bazen sorospena eskaintzeko-edo.

Aurretiaz pentsatu bezala, sakristauak amua irensteko, Luzia bere armak bistara erakutsiz aitorlekuen ondoan prestatu zen. Eta elementua hurbiltzerakoan,

taldekideekin elkartzeko lanlekura sartuko zen, hantxe estekatuko zuten eta atea itxita isilean geratuko, elizkizuna amaitu ostean, bertan zegoen jende guztiak alde egingo zuen arte. Kanpoaldetik, Antselmoren urrunaldiagatik inoren artegatasuna somatzen bazen, nolabaiteko babes neurriak har zitzaten Bixentek barnekoak ohartaraziko zituen.

Pentsatu bezala, Villaviejo Luziaren atzetik bulegora sartu zenean, Matiasek burdinaren kulatarekin buruan eman zionaz, supituan lurrera joan zen eta, tipoak zoruari musu eman aurretik, kolpea larriegia izan ez zekion Mikelek eta Luziak sorotsi zuten. Haren ostean, Luzia Bixenterekin elkartzeko kanpoaldera jalgi zen.

Elementua ohizkoa zuen larruzko besaulkian eseri zuten, eskuak atzealdean oinei lotuta, ahoa estaltzera banda zabaleko esparatrapua eta burutik kaputxa ezer ikus ez zezan. Txanoarena ez zen taldekoen beldurraren kontua, baizik eta Matiasen jendea ikusterakoan Antselmok ikararen neurria handiago edo gutxitua ez izateko. Matiasi Villaviejok beldur ikaragarria izatea komeni zitzaion, era horretan, jakin nahi zuena ezagutzeko, bestearengandik errazago erdietsiko zuelakoan. Elizainak talde osoa bere begiekin ikusten bazuen bazitekeen hainbesteko izurik ez izatea, eta hori Matiasek aurretiaz saihestu nahi zuen. Gero isilunea hedatu zen eta luzetxo iguriki behar izan zuten egon, elizkizuna amaitu eta bertan zeudenak haizealdera jalgi ziren arte.

Eguerdiko ordu bata eta erdi ziren.

Matias Sararekin hitz egiteko adelatu zen. Sakatu zuen Bidart andrearen ikurra.

-Bai, Matias, esan!

-Sara, orain ezin naiz hemendik higitu. Lau bat egunetan ezin izango dugu elkar ikusi.

-Ulertzen dut.

-Une kritikoan gaude.

-Bai. Eutsiko diot. Baina, arren, kontuz. -Sarak Matiasi.

-Buel tara arte. Musu bat. -Matias ek.

-Beste bat, beroa. -Sarak.

OSTEGUN ILUNTZEA

15

-Nebatxo, jabetu zara Blankari gorputzaren higikerak motelduz doazkiola. Beti nekeak ahitu izan balu bezala antzematen zaio. Batzuetan egun osoa lotan ematen du, aldiz, beste batzuetan, ezin du loak hartu. Sarritan asko jaten du eta beste batzuetan txoriak baino gutxiago. Horren ondorioz, badakizu, ba kexaka, tripetatik txarto dabilela, egunerokoa bilakatu zaio.

-Bai, ez dut jakingo ba neure ilobari zer gertatzen zaion, hirurok bizi gara hemen eta. Baina ez du inolako laguntzarik nahi. Eta zer egin?

-Ezin zaio derrigortu, ez genuke ezer lortuko.

-Ez. -Nebak.

Blankak ezin zuen arretaz liburu bat ere irakurri, burua beti izaten zuen beste inguru batean eta, maizegi, gauzak ahazten zitzaizkion. Ezgai sumatzen zen eta horrela egoteak bere baitara babesgabetasun sentipena erakarrarazten zion. Dena zetorkion kontu beretik eta errudun sentitzen zen. Egunak joan egunak etorri, osaba jabetzen zen bere iloba ezkortasunean murgilduta bizitzen hasita zegoela. Hondamendian zegoen, egoerari neurria ezin harturik. Osabari jakina zitzaion, horrelako egoeran egonda, sarri heriotzaren pentsamenduak izango zituela eta, nola ez, lehentxoago edo gerotxoago, bere buruaz beste egiteko gogoak ere helduko zitzaizkiola.

Iluntzea heltzear zela, Nereak Eiderren telefono deia jaso zuen.

-Nerea!

-Bai, Eider esan!

-Lortu dugu izen bat guzti honen giltza izan daitekeena.

-Bidali duzue hona, gure taldera.

-Ba, ez dakit, hori ez da nire lana eta.

-Zein da izen hori?

-Elizain batena da, K deunaren eleizakoa. Antselmo Villaviejo.

-Eskerrik asko. Helbidea?

-WhatsApp-ez bidaliko dizut.

-Ederto. -Nereak.

-Zeozer gehiago badakit deituko dizut.

-Oso ondo. Agur, Eider.

-Zaindu.

Arratsaldeko seietan gau beltza zen hiriburuan.

Ordu guzti haietan, Antselmori apenaz eman zioten urik edateko, jateko ezer ere ez. Elementuak zenbait gauza aitortuak zituen, zeinen artean, zeuden lekutik bazegoela lurrazpiko bidea M deunaren elizako izen bereko pasabidera ematen zuena. Horixe zen Matiasek behar zuena. Aitortu zuen baita, jazotzen ari ziren hilketa haien erantzule bakarra bera zela eta, gainera, ez zuela inolako talderik antolatuta, erabiltzen zituen pertsonak bere ezagunak zirelako, eta bere nahierara baliatzen zituela. Matiasek eta Bixentek garbitutako bi elementuak bere

ardurapekotzat hartu zituen, berak alokatu zituela, alegia eta, bikiak ere bai, bere aginduetara zeuden konfiantzazko pertsonak zirela.

-Damutuko zarete egiten ari zaretenaz. Ez dakizue, benetan ez dakizuela ni nor naizen. Ez zarete guzti honetatik bizirik aterako. -Tipoak behin eta berriz mehatxua mantra legez botatzen zuen. Berak zuen adinerako oraindik gangar nabarmendun oilarra zela antzematen zitzaion. Matias jabetu zen horrelako pertsonak edo eroturik egoten direnak izaten direla, edo euren atzean izaten dituzten botere indartsuak babesten dituztela.

-Ia, Antselmo, ez duzu irtenbiderik. Bizirik jarraitzea nahi baduzu egon zaitez lasai eta esaten dizuguna egin ezazu. M deunaren pasabidera ematen duen sarbideko giltza behar dut berehala.

-Hortxe daukazu, M deuna ipintzen duen multzoan. Pasabidea jartzen du. - Antselmok, buru makur esan zuen.

-Hau? -Itaundu zion Matiasek.

-Bai, horixe.

Eguna jabalduz joan zen eta auzokoak jakitun ez ipintzeko ez zuten argirik isiotu. Konfesatokitik joan ziren lurrazpiko bidera. Tunela pentsatu baino hobeto zegoela jabetu ziren; bonbilekin eta garbi. Matiasek bereganatua zuen, guzti haren nondik norakoa erabat argitzeko, itaunketa gogortzen hasi beharra zuela. Villaviejok zekien guztia ezagutzea behar zuten eta haren jabetza nork gehiago zuen. Agiriak, grabaketak, erretratuak, edozein huskeria izanda ere, izan zezakeen guztia eurenganatu behar zuten eta gau hartan gainera. Hitz jarioa gogortuz joan zen, zenbait unetan ahotsa goraino eramateko arriskuarekin. Lur azpian zeuden eta horrek nolabaiteko babesa ematen zien, inork ez entzuteko itxurako hala holako gotorlekua baitzen. Goitik jaitsi zuten aulki batean Antselmo estekatuta zuten. Indarrak berreskuratzeke ur apur bat eta zeozer jateko.

Kanpoan hotz handiaren laguntzaz maluta xehez elurra botatzen ari zuen, kaleko jendearen giroa moteltzera gonbidatuz.

-Antselmo non duzu gordeta guzti honen inguruko dokumentazioa, grabaketak, erretratuak, pakete guztia nahi dut. -Matias ez zegoen barre egiteko gogoz.

Elementuak ez zuen adorerik zirkin bat egiteko ere; mutu zegoen geratuta.

Goizeko azken orduetan Matiasek kulatarekin emandako kokotekoaz gain, ez zuen ordura arte burdina eskuztatu. Latz ikusten zitzaion eta, besapekoa ferekatu ondoren, bederatzikoa bostekoan hartu zuen. Kainoia tipoaren baldokian indarrez sakatzen zebilela gaineratu zuen:

-Antselmo, ez nago txantxetarako, edo ematen didazu eskatzen ari natzaizun guztia edo errekamaran dagoen bala buru sakonera doakizu.

-Ez zara ausartuko. -Villaviejok irmotasunez baietsi zuen.

-Ez naizela azartuko?

-Ez, ez duzu lortuko nahi duzuna eta. -Tipoak bide beretik beste behin.

-Ez dudala erdietsiko? -Matiasek elementuari aurpegia ere estaltzera zuen kaputxa kendu zion eta, berak ikustera moduan, motxilatik biribilkatuta zuen oihal beltza atera zuen. Zabaldu ondoren, Villaviejoren aurrean zenbait erreminta agertu ziren: kurrika, aliketa, haginak ateratzeko forzepe-a, bisturia eta zenbait tresna berezi ere bai. Dena bestearen bistara utzi ondoren bederatzikoari astiro-astiro isilgailua ipini zion.

Elementuak ez zuen aurpegiera aldatu.

-Mikel, atzealdetik, paparra hartzera, eutsi hor, gogor! -Matiasek agindu zion.

Ikertzaileak haginak ateratzeko forzepe-a hartu ostean, beste barik, tipoak ahoa zabaldu zezan ezpainetan kolpetxoa eman eta deblauki ezkerreko letagina

beheitikoa klaska batean atera zion. Tipoa ezustean harrapatu zuen eta sentitu zuen minak aieneka ezarri zuen. Ez zen pentsatzen zen bezain porrokatua. Halako batean, ahotik, entelegatzeko moduan, zenbait hitz jalgi zituen:

-Ondo dago, bai, orain badakit ez zabiltzatela txantxetan. Neure etxeko langelan daukat den-dena. Mahaiaren atzealdean badago haizpitardean eguzkia agertzen duen kuadroa eta hark kutxa gotorra ostentzen du. Haren barruan dago dena.

-Konbinazioa? -Matiasak itaundu zion.

-Traol karakterea 1512 Traol karakterea, dena itsatsita.

-Zure etxeko giltzak, ia, azkar!

-Praketako eskumako poltsikoan. Hartu zeuk.

-Matiasak giltzak hartu zizkion.

-Helbidea?

-Ezkibel jauregia. Sartu Zapateriatik.

-Kuriosoa. Eskiak gustatzen zaizkizu, ala? -Matiasak.

-Jakina. Eta etxera gibeletik sartzea. Antselmok ezpainetatik irriño sotila atera zuen ondoren mutu geratzeko.

Kanpoaldean hasieran elur arina zena metatuz joan zen hiru-lau zentimetroko geruza egiteraino.

Matiasak Antselmoren ardura hartuta Mikel utzi zuen eta, gora, elizara igo zen. Faraday kaiola legeaz erabiltzen zuen aluminio paperetik telefonoa eskuan hartu eta Bixente deitzeko prestatu zen.

-Bixente!

-Bai, Matias, esan!

-Etorri!

-Atoan!

Matias berriz jaitsi zen lurrazpiko tunelera. Mikelekin elkartu zen eta, bien artean, elementua Bixenterekin geratuta zegoen M deunaren pasabideko sarbidera igo zuten.

-Deitu diezu? -Mikelek.

-Bai, berehala datoz. Apurtxo bat iguriki beharko dugu. Begiratuko dut ia giltzak sarraila zabaltzen duen.

Matias saiatu zen. Sarraila-zuloan giltza kokatu eta oztoporik gabe eman zuen buelta erdi. Izan zitzakeen zalantzak uxatu zitzaizkion; bazirudien Villaviejo zintzo zebilela jokatzeko. Ikertzaile pribatua pentsatzen jarri zen: Antselmok hartutako jarrera ez bazen izango zegoen egoeratik bizirik irteteko meriturik egitearen ondorioa. Bizirik ateratzen bazen, bere nahierara mendekua prestatzeko aukera izango zuen, baina abagune hura ez zitzaion azalduko. Ikertzaileak argi zeukan tipoa garbitu behar zela, edo, berak eta bere taldeak arekak ezagutuko zituzten, eta hori ez zen gauzatuko, inolaz ere ez. Matiasen segundo batean gomuta osoa egin zuen.

Anbulantzia iritsi zen. Gizonezko gidaria eta alboan zihoan emakumea beheratu ziren; biak zihoazen erizain jantzita. Bixente eta Luzia ziren. Atze aldetik esku-ohea atera eta, eskilarak igota, sarlekura bideratu ziren. Elementua eriautorea barneratzeko ohatilan etzanda ezarri zuten. Matiasen bi hitz Bixenterekin: -hi, telefonoa kaiola eta orduero bi minututan atera. Zeregina daukat eta Mikel nirekin dator. Gero ikusten dugu elkar.

Alde egin zuten; batzuk alde batera, besteak bestera.

Mikel eta Matias Zapateriara barneratzeko Roke deunaren kantoira abiatu ziren. Gora egin, Antselmoren bizilekura eta xerkatu zuten haren langela. Antigoaleko altzariz jantzitako espazio zabala zen. Hango erredizek dirutza balioko zuten. Lau kuadro ere bazeuden eta zoruan sasoia batean ederra izango zen alfonbra higatua.

Laneko mahaiaren gibelaldean, haizpitartean eguzkia agertzen zuen margolan itzelak, ez oso handiak, albo bat bandekin zuen eta, Antselmok esan bezala, kutxa gotorra ezkutatzera zegoen. Sakatu zuen konbinazioa eta ireki zen atea. Matiasek barnean zegoen guztia motxilan sartu eta kutxa gotorra berriz hetsi zuen, handik inor igaro ez bazen antzera lagatzeko.

-Mikel, hemen guzti-guztia arakatu behar dugu, sakon gainera, entzun? Baina ezer lekuz aldatu gabe. Inor ez da konturatu behar gure bisitaz. Ia, has gaitezen, azkar. -Matiasek han egon zitekeen guztiaren berri izan nahi zuen.

EGUNA ETA GAUA

16

Pitean-pitean, osaba otordurako norbaitekin azaltzen zen. Batzuetan Blankak ezagutzen zuenarekin, beste batzuetan ezezagun egiten zitzaionarekin eta aldizka, ilobak nor zen ez zekiela, lagun zuen psikiatrarekin. Baina gaztea bere gelan isolatzen zen, ez zuen inor ikustea nahi izaten. Erabat bakartuta zegoen. Jada ez zen sozializatzen. Ez zen etxetik jalgitzen. Ez zuen psikiatra baten laguntza nahi izaten. Ezezko borobila bota zion osabari. Ama ezer esatera ausartu ere ez zen egin. Neba eta amari ezinezkoa egiten zitzaien berarekin inolako eztabaida lasaia izatea eta tamalez, apurka-apurka, bizitza kalitatea hutsera joan zitzaion.

Psikiatraren hausnarketen ondorioz, osabak eta amak bazekiten, Blanka edozein gauzatan porrot egingo zuelakoaren pentsamendua izatearekin soilik izutu, ikaratu egiten zela. Ustez zeuden baita, nahiago zuela zegoen bezala egotea eta ez zuela nahi pertsona legez haztea, edo familian hobeto egotea, edo eta ikasketak amaitzea, eta gizartean norbait izatea. Gainera, jabetuta zeuden, guzti haren ondorioz, zoriontasuna geroko uzten zuenez, zirrara ezkorrei jada atea zabaltzen hasita zegoela, eta jakina zitzaien, noski, horrelako jarrerak ez ziola zorionsua izaten utziko.

-Gaur, -nebak arrebari esan zion-, psikiatra lagun batekin egon naiz, hona, etxera bazkaltzera hiru-lau aldiz ekarri dudanarekin eta gaineratu dit, Blanka dagoen moduan egonda, ba, bere burmuinak ziur larridura sortzen duela, ez kale egiteari soilik, okerbidea hartzeari berari izaten diola beldur, eta, jakina, ez duela ezer galzorian ipiniko, horregatik ez duela bere bizitza hobetu nahi, ezen bizitza hobetzeko nolabaiteko arriskutsuak hartu behar direlako. Kalera irtetzea sarritan segurantzak alde batera uztea izaten da. Zergatik? Ba, sozializatzerakoan

jendearekin neurtu egin behar garelako, agerian geratzen garelako, eta hori, alegia, borrokatzea da.

Matias eta Mikel astitsu joan ziren, Bixente, Luzia eta Antselmorekin berriz elkartzera. Hiritik apenaz ordu laurdenera zegoen baserri isolatu batean zeuden.

-Telefono guztiak aluminio paperean bilduta? -Matiasek bertaratu eta berehalakoan bota zien.

Denek, bai, aho batez.

Luzia eta Mikel, tipoa jagoten ezarri ziren bitartean, Matias eta Bixente, aparteko areto batean, Villaviejoren bizilekuan erdietsitako agiriak arakatzen jardun zuten.

-Begiesten duzu zelako ikerketa egin duten; hemen material pila dago, gero! -Eskuartean zeukatenari so eginez, aldizka Bixente zeharka begiratzuz, Matiasek ahopean jaulki zion.

-Bai. Jakin behar dugu ia inork guzti honen kopiarik duen. -Bixentek.

-Horren berri izatea ez da erreza izango. Aitortza erdiesteko estutuko dut, hala ere, zalantzak ditut aurrerantzean ezer jadetsiko dugunik. Uste dut berarentzat pentsatuta daukagunaz gogoeta egiten dagoela.

-Eta zein da buruan dabilkizun hori? -Bixentek.

-Bion artean egin beharko dugu eta, gainera, egunsentia heldu orduko.

-Hor beheko gela batean hondeaitzur, aitzur eta pala bat ere ikusi nituen atzo. -Bixentek.

-Zer da hondeaitzurra? -Matiasek.

-Landatxurra, aitzurak baino xafla luzeagoa eta estuagoa duena; gogorragoa; landatzeko sasoia ez duten lur gogorretarako-eta, basorako-eta erabiltzen dena.

-Lan hori egiteko hemendik arroparik?

-Bai, zeozer ekarri izan dut.

-Ia ba, lehenbizi zuloa eta gero hara eramango dugu.

-Bai, zeren alderantziz a zelango eromena. -Bixentek.

-Goazen elementu horri azken itaunketa egitera. -Matiassek.

Tipoa sukaldeko jarlekuetariko batean estekatuta zuten. Haren aitzinean, tankera oneko mahaiaren gainean, Matiassek oihalean bilduta zituen lanabesak kokatu eta guztiaren gainean besapetik atera burdina laga zuen. Antselmok ez zuen zirkinik egin. Bizitzaren amaiera begiesten izango bazen erara antzematen zitzaion. Matiassek hortzetako Forzeps-a hatzean jaso eta Villaviejo zuzenki behatuz itauntzen abiatu zen.

-Antselmo, gogora etorri zaizu eskuan dudan honek zertarako balio duen?

-Bai. -Horixe soilik ihardetsi zion.

-Ba, ia, ihardespen egokiak nahi ditut edo ahoan ez zaizu ez hagin ez hortzik geratuko. -Elementua mutu geratu zen-. Ikusi dut zelango ikerketa egin duzun. Ia, esadazu, guzti horren kopia nork gehiago du?

-Inork ere ez. -Ihardetsi zion.

-Esaidazu egia edo badoa beste hagin bat! -Matiassek lehor eta hotz.

-Ez duzu ikusten guzti-guztia kutxa gotorrean egon dela! -Deiadar egin zion.

-Bai, baina zuok sugea bezain maltzurak zarete.

-Egia diotsut! -Antselmok.

Matiassek Mikeli salara jalgitzeko keinua egin zion.

-Mikel, orain Bixente eta biok hortik kanpotik zulo bat egitera goaz. Elementu hori zaintzen, Alizia eta biok geratuko zarete. Arriskurik txikerrena begiesten baduzue garbitu bertan, ados?

-Bai, lasai joan.

-Egitan diotsut, tipoa aske geratzen bada, inolako alhadurarik gabe akabatuko gaitu.

-Lasai, Matias, honezkero horrenbeste badakigu. Zenbat denbora beharko duzue?

-Ez dakit ba, egin beharreko kontu horretan ez gara jaioak-eta.

-Abiatu lasai.

-Mikel, beste gauza bat, orain esan dizudana Luziari ere aipatu behar diot, badakizu, ez dadin haserretu.

-Entelegatzen dut, bai, esan.

-Ia, sukaldera barruratu eta esan Luziari ilkitzeko. -Matiasen manatu zion.

Luzia salara jalgi zen eta Matiasen ahotsa garbitu ondoren iruzkin bera azaldu zion.

-Luzia, beste gauza bat.

-Bota.

-Gainerako egunetan zer edo zer jazoko balitzait, Bixentek badaki ikerketa honetan negoziatutako sos guztia non dagoen. Gainera, beste hoge mila euro ere erdietsi ditut, ezen egiten gabiltzan honako hau badakizu zein tamainakoa den eta ezinbestekoa zaigu nolabaiteko satisfazio txiker bat izatea, eta poztasun hori dirua bakarrik izan daiteke, ez besterik. Gordeta dagoen horretatik zuri gastuetarako zeozertxo eman nizun eta nik ere ikerketarako, badakizu, zertxobait hartu dudala. Uste dut nire faltan legezkua izango litzatekeela lehenengo zuk zure soldata osoa jasotzea eta gero, geratzen den guztia, hiruron artean banatzea.

-Ondo deritzot, Matias. -Luziak bere nagusiari besarkada estu bat eman eta, bide batez, erregu esaldia luzatu zion: Mesedez, ibili zaitez kontuz, ezen ez dakit zer egingo nukeen zure faltan.

-Ia, ez gaitezen sentimental jarri.

-Sinez diotsut Matias, zurekin lanean oso gustura nagoela.

-Ia, izango dugu astia nasaia hitz egiteko, baina orain esan dizudana egin behar dugu. Izan zaitez zaren bezalako, ezen badakit oso pertsona gogorra zarela, bestela ez zinateke nire aginduetara egongo. -Luzia erabat zegoen hunkituta-. Ia, neskato, orain ez. Oraindik ez. Egoera hau gainditzeko dugunean izango dugu beta. Eutsi apur bat gehiago.

Luziak *"bai"* ihardetsi zion, begietatik itzuri zitzaizkion negar-tantatxoak eskuarekin lehortzen zituela.

-Orain zoaz barnera eta esan Bixenteri jalgitzeko.

-Bai. -Luziak ihardetsi zion.

Bixente eta Matias arropaz mudatu ziren eta baserritik urrunduz zihoazela, bidean anbulantziaren gora-beherekin jardun ziren.

-Nik uste, Bixente, orain daukagun kontuzko gaia, anbulantzia mugitzea dela. Non utzi dezakegu?

-Bai, horretaz gogoeta egin dut. Orain kaminoan dago arazoa. Errepidean sartu bezain laster, atera behar dugu eta bazterren batean utzi. Alde zaharretik hamar minutura gaude, beno apur bat gehiago. Horiek dira afera honetan izango ditugun minuturik arriskutsuenak. Baserritik hurrean lagatzen badugu, begiesten dutenean baliteke ingurumena arakatzen abiatzea eta ziur gure zeozertxo kausituko luketela. Lehen hezkuntzako kontua da; nonbaitera bazoaz zer edo zer daramazu, nonbaitetik bazatoz zer edo zer dakarzu. Urrun eramaten badugu bide bazterretan egongo diren puntu gorriek harrapatuko gaituzte. Ebatzi behar dugu. -Bixentek.

-Bai. Ez dakigu ikerketa zientifikoa noraino heldu den, baina honezkero jakingo dute, edo laster izango dute anbulantzia lapurtu denaren berri eta, Antselmoren ezagutza izanez gero, gertatzen ari dena azkar albainduko dute. Beraz, une kritikoan gaude: alde batetik Villaviejoren jarraitzaileak artekatuta egon daitezke, eta bestetik ikerketa ofizialekoak. -Matiassek.

-Bai, horixe da. -Bixentek.

-Autobus geltokia zenbatera daukagu? -Matiassek.

-Bost minutura.

-Nire autoa daukagu hemen. Eta dena erretzen badugu?

-Ideia ona, bai, oso ona. -Bixentek.

-Gasolinarik?

-Horretan ere egin nuen gogoeta. Bost litroko bi tanga.

-Kontu egiten duzu egoeraz!

-Maisu ona izatearen ondorioak.

-Beste gauza bat ere aintzat hartu behar dugu.

-Zein? -Bixentek.

-Baserria erretzen badugu ingurua zehatz-mehatz miatuko dute eta pentsatzekoa da Antselmo kausituko dutela.

-Eta zer iruditzen zaizu tipoa anbulantzia barnean laga eta dena erretzen badugu?

-Ez dakit ba. -Matiassek.

-Ia, lehenengo lehenengokoa, goazen tipo hori gainetik kentzera.

-Hementxe, Matias, hementxe egingo dugu zuloa. -Bixentek.

-Hobe zulorik ez egitea. Azken itaunak egiteko elementua honaino ekarriko dugu eta, gainera, erantzun zuzenak ez baditu ematen pentsa dezala hemen zenduko dugula.

-Ederto, era horretan gure aztarna gutxiago galduko dugu. -Bixentek.

-Bai ba.

Hotza egiten zuen.

Ilargia ilgoran eder ikusten zen eta haren argitasunak lagun aurpegia agerrarazten zuen.

Elementua zuloa egitea pentsatu zuten ingurura eramatea neketsu egin zitzaien. Elementuak barrundatzen zuen berarentzat zer zeukaten gordeta eta ez zuen nahi izan urrats bat bera ematea ere.

-Ia, Antselmo, azken aukera duzu egia esateko eta herioa uxatzeko.

Tipoak ikusi zuenean ez zutela zulorik egin lasaitu ederra hartu zuen.

-Zer behar duzu? Antselmok nasai bota zuen.

-Guzti horren berri nork gehiago du? Bortxatzaileak nortzuk ziren eta beste guztia.

-Inork ere ez. Neuk bakarrik dakit.

-Xalbador eta Felipe, nork edo nortzuk hil zituzten.

-Zu hiltzera bidali nituenak eta zuk "La Malquerida" ardandegiaren aurrean biak zendu zenituen. Sobera ere badakizu nortzuk ziren, euren karterak zeuk eraman zenituen eta.

-Zuk zelan dakizu hori?

-Ez nazazu inozotzat bota.

Bueltatu zirenean, Mikelek eta Luziak ia den-dena zuten prest. Anbulantzia kortan barnerago eraman eta tipoa bolanteari sendo lokarriz estekatuta jarri zuten. Ondorengo aise egin zitzaien: gasolinarekin dena busti-busti ezartzea.

-Ia, segundo pare bat, Bixente eta biok arropaz mudatzeko eta, falta dena, di-da batean egingo dugu. -Matiasék.

-Baina bizirik utzi behar duzu? -Mikelek.

-Bai, berez zenduko da.

Matiasen autoa Luziak gidatzen zuen. Barruan whisky usaina, gerta zitekeenari amarru soil bat izatearen arrazoi bakarra. Gibelean geratzen ari zen baserrian, oraindik ez zen ezer deigarririk begiesten; iristear zen denbora urriak agertuko zuen erre usaina eta kiskaltzearen kontua.

-Orain nora? -Luziak galdatu zuen.

-Orain alde zaharrean polizia asko kale-jantzian higituko da, beraz egun pare batean handik agertzea arrisku handia izango litzateke. Badut gordeleku bat ondo hornituta eta, gainera, sotoan autoa gordeta uzteko lekua ere badago, nondik ezkutuan, barruko eskilara baten bidez, etxera sartuko garen, baina, eta beti dago baina bat: asagotxo dago.

-Non? -Luziak.

-Prudentzio deunaren etorbidean.

-La ostia! Txarlet bat! -Bixenteri ustekabeen ilki zitzaion-. Haraxe! Ondo hornitu duzula esan diguzu?

-Bai eta bai. Txarleta eta bapo hornituta gainera; denetarik eraman dut. -Matiasék.

-Hara goaz! -Luziak.

-Ia, whisky apur bat gehiago eta Luziak ezik besteok buruak makur inork ikusi ez gaitzan. -Mikelek.

-Konforme. Bixentek.

-Ados. Matiasek.

Inguruko guztiaz jabetzen zela, Luziak gidatzen jarraitu zuen.

Matiasek hetsi zituen begiak eta jazotzen zenaz hausnarrean egokitu zen. Aginpidea, pertsonengan zuen ahalmena eta nola men egiten zioten. Tiro-hotsak ematen zion indarraz ere jabetu zen eta atsegin zitzaion. Bere garunak kontuak albaintzeko zuen abiaduran egin zuen eten txiki bat. Arestian izandako bizitza dekadentea begien aitzinera ilki zitzaion. Oraindik burmuina sasoi onean zekusan, gorputza ere bai eta pozten zen. Ez zekien ziurtasunez eskuartean zuten guzti hartatik zelan ilkiko ziren, hala ere, harro zegoen gorabeherak bideratzen zituen eraz eta, mundu hobeago batean pentsatu zuen, batzuetan oroimenik gabe gelditu zitekeen mundu batean.

Bat-batean, autoaren fokuetara, zuritasun paregabearekin elurra gogotik ari zuen botatzen.

Laugarren egunean, ebatzia onetsi zuten: egun oso hartan bakoitza bere aldetik higitzea eta, ahal izanez gero, bizitegitik kanpora ilki gabe. Jabetu etxetik irudikatu bezala jalgi ziren. Egunsentia jin orduko, oraindinokarren ilgoraren argitan, Bixente eta Matias bakoitza bere etxera joateko autobus geltokira oinez abiatu ziren. Ordu erdi geroago Luzia eta Mikel autoz bideratu ziren erdialderantz.

Matiasi etxean gordeta egotea ezinezkoa egin zitzaion. Bizilekura heldu eta ordu gutxira karrikara jalgi behar izan zuen. Bazterrak begira oharkabea zebilen.

Gorputza higitzeko oizkoa zuen ibilbidea egitera azartu zen: Diputaziotik Andra Mari enparantzara, gero Loma jeneralaren plazatik, Legebiltzarraren aurretik, Florida ibiltokira eta, handik, unibertsitate pasealekutik, tren geltokira. Itxarongelatik jalgi zen eta zuzenean Datora barneratu. Astiro zihoan, berriz alde zaharrera abiatzeko.

Hirian elurra maluta sendoz jausten zen.

Hamaikak jota zeuden eta ingurua zuri-zuri.

Matiasek “La Malquerida” ostatura iritsi ondoren kafeaz gain moskatela ere galdatu zuen. Ostatura bere gogokoa zen.

Karrikaren hasieran beribil batetik bi pertsona beheratu ziren, gazteak, sendoak, berrogei ingurukoak eta gimnasioetan ibiltzen diren horietakoen tankerakoak.

Ardandegiaren barnean lau bezero eta zerbitzaria batetik bestera. Telefonoan WhatsApp-ak begiesten zituen heinean, ikertzaile pribatuak kafea edan eta moskatelari zurrutada txikia eman zion.

Bidetik bi tipo ostatura gerturatzen ziren. Matias ilunbeen arriskuak blaitu zuen eta, bat-batean senera, elurtzatik norbait alboratzen zitzaiola. Sarbidera behatu zuen. Ez zegoen inor. Bederatzikoa ferekatu, eskuan hartu eta adi-adi ezarri zen. Aurreneko eztandarekin batera, tabernako beirate nagusia txikitu zen eta balak zerbitzariaren lepoa urratu ostean Yamazaki whisky botila hautsi zuen. Histura ikertzailearen burmuinean.

Supituan, Matias lekorera ilki gogotan tiroka abiatu zen. Laugarren eztandaren aitzinean zihoan berunak kanpoko bietako bati besahezurra hautsi zion, berehalakoan burdina lurrera amiltzeko. Bostgarrenak bertan utzi zuen seko. Ardandegitik karrikara jalgiteko unean, gelditu barik tiroak iraitziz ekin zuen. Kargagailuko hamabostak amaitu zitzaizkion. Klik batean lurrera bota eta beste bat ezarri zuen jaurtitzen ekiteko. Halako baten eztandarenak bigarren etsaiari errainaldea apurtzeko beste pipermin zeraman. Baina, ardandegitik ateraz batera

jabetu zen, espero ez zuena zain zuela. Paretaren ondoan, bera noiz jalgiko, ikusi ez zuen hirugarrenak zerman bere izeneko bala. Eztanda idorra, burrunbatsua entzuteaz batera Matias bortizki jausi zen atzerantz. Balak bete-betea jo zuen. Paparra erretzen zitzaiola sumatu zuen, zoruan, elurretan, ia hilik. Izterbegia prestatu zen beste behin botatzeko, baina, Matiasen, berak ere ez zekiela, bederatzikoaren katua sakatu osteko danbada baino arean lehentxoago, tipoa burezurra hautsita aurrerantz leunki erori zen.

Elurretan, ahoz beherako etzanera, berriro La Malqueridara barneratzeko desioan, Matiasen harrizko maila bakarrera eskua luzatuta, hatzak baliatuz indarrez igotzen saiatu zen. Orduko hartan, ordea, ahalegin hutsala egin zitzaion.

Handik bertatik arineketan, oraino eskuan zerman hogeitabikoaren kanoi ahotik ke lauso arina ilkitzen zela, Bixente laguna sorostera iristen zen.

Elurra mara-mara ari zuen, kalean inor ez ikustera legez eta, ez hain urrunera, eriautoaren sirena hotsa aditzen zen, baita auzoko leiho batetik Maybe it's time abestia doi-doi.